


Manuel Lasarte

Plaza-gizonak



MANUEL LASARTE. Leitzako Franki baserrian jaio zan 1927-an, eta gaur Orion bizi da. Ofizios errementari izan da, eta bokazioz bertsolari. Onenetakoa gaiñera. Ura arkaitz-iturritik bezin ugari eta garbi dator aren aotik bertsoa. Neurri justua, euskera dotorea, arrazoi mamitsuak, puntu aberatsak, umorea, abots eta kantu gozoak..

Gazterik asita, urtetan or ibili zan plazaz plaza bertso kantari. Bere lagunak: Basarri, Uztapide, Xalbador, Mattin, Lazkao Txiki, Jose Lizaso, Jose Agirre, Imanol Lazkano, Azpillaga. Lopategi, Xanpun, Txomin Garmendia, Egileor eta abar... Orduan agian ez genduan bear ainbat estimatzen; baiña orain, urteen buruan, bertsolari oiek danak plazaz plaza zebiltzan garaia bertsolaritzaren urrezko aro bat izan zala oartzten gera. Denbora berean ainbat bertso-jartzaille bikain izan baigenituan.

Manuel Lasarte plazetan kantatzeari utzi zion, ala bearrez. Baiña Orioko bere txokotik, leen kantuari bezela, azken urte auetan lumari eragin dio, bertsotan eta prosaz liburumordoska osatu arte. Onako au, *Gizonak* izenekoa, azkena. Bejondaizula, Manuel!

Manuel Lasarteren orain arteko liburuak:

- Bertso-mordoxka*, 1970, Auspoa 100.
- Gordean neuzkanak*, 1975, Auspoa sail berdea.
- Beranduko lanak*, Auspoa sail nagusia. 3.
- Lazkao-Txiki gogoan*, 1992, Auspoa 221.
- Enbor zarraren ezpalak*, 1995, Auspoa 225.
- Kantuaren ordainez*, 1997, Auspoa 248.
- Uztapide gogoan*, 1999, Auspoa 261.
- Plaza-gizonak*, 2005, Auspoa, 294.

Manuel Lasarte

Plaza-gizonak

Auspoa Liburutegia

294

LASARTE, Manuel

Plaza-gizonak / Manuel Lasarte. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián :
Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2005.

256 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 294)

Aurkibidea

LG 1.300-2005. - ISBN 84-7907-496-5

1. Vascos - Biografias. I. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. II. Título.
III. Serie.

929(=916.9)

821.361-94"20"

© Manuel Lasarte

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-496-5

Legezko Gordailua: S.S. 1.300/05

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Manuel Lasarte

Plaza-gizonak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2005



Manuel Lasarte bertsolaria.

Itzaurre gisa

Lagun zaar baten oroipenak

Manuel Lasarte Naparroako Leitzan, Franki base-
rrian, jaio zan, 1927 urtean.

Berak amaika urte zituala, gurasoak eta anai zaarrena ez beste senide guztiak Aiara etorri ziran bizitzera.

Sei anai eta arreba bat omen ziran. Arreba bat txikitán illa ba omen zuten. Bost anai eta arreba ezagutu nituan nik. Anai zaarrena Oiartzunen bizitzen omen zan, baiña nik aren aztarrenik ez nuan.

Gaur senide guztietatik Manuel bakarrik bizi da; gaiñerakoak illak dira.

Manuelek-eta arreba bat zuten, Katalina, eta ura Amezketako errero batekin ezkondua zegoan, Erremun izenez, eta arek garai bateko Landaenea errerotegia artu zuan errentan. Leengo nagusia, Landa jauna, erretiratu egin zan, eta orduan Erremuni eman zion.

Bizitokia, berriz, elizaren atzean dagoan etxea. Leenago Kotxeritoenea zuan izena; baiña Erremunek artu zuanetik aurrera, nola nagusia erreroa zan, Erreroanea artu zuan izena, eta gaur ere alaxe jarraitzen du.

Erremunek errerotzarako eta ganaduak perratzeko lekua eta bizitokia martxan jarri zituanean, leen esan bezela Manuelek amaika urte inguru zituala, bere guraso eta senideak, anai zaarrena izan ezik, danak Leitzatik Aiara etorri ziran bizitzera.

Nik gogoan daukat aiek etorri ziran egun ura. Beren baserriko altzari eta tresneri guztia kamion batean ekarri zituzten. Gu eskolatik errekreora erten giñan une artantxe, ain justu, iritxi zan kamiona, eta gure eskolaren ondoan gelditu zan. Ez baizeukan eliz atzeko

etxera geiago urreratzerik. Mutil jendea gauza garraio eta gu aiei begira egon giñan, aspertu eziñik. Gero Manuel ere gurekin batean eskolan ibili zan.

Eskolan zenbat denbora egin zuan ez dakit. Berak denbora gutxian ibili zala esaten du. Amabi urterekin-edo, gutxi gora-beera, Ernio azpian baso-ateratzen ari zan mutil-talde bat, eta an ari zan batek esan omen zion:

–Gure basora etorri nai badek, pintxe bezela iretzako lana baziok.

Eta orduan Manuel animatu eta joan egin omen zan. Bizimodu gogorra zala berak esaten du, Ernio azpiko malkar aietako ibillera ura. Baiña ala ere sei illabete antxe pasa zituan, arentzako lanak amaitu ziran arte.

Manueli basoko lanak bukatu zitzaizkionean, bere koiñado Erremunekin asi zan errerotzan eta ganadu-perraketan. Orduan Aian, idi eta bei, uztarrian ibiltzen ziran pare asko zeuden. Naiz eta bi errerotegei eta perratzaille errian bertan egon, danentzako naiko lana izaten zan.

Manuel bertsoan ere gazterik asia omen zan, taberna-giroan eta bere lagunekin zebillenean. Ni artean tabernara sartzan asi gabea egon arren, nere anai zaa-ragoari eta ni baiño elduxeago ziranei entzun izan nizkien. Astelenean-edo, jaieko pasadizoak esaten asten ziranean, kontatu oi zituzten:

–Atzo ere erreroak bertso politak bota zizkin, ba.

Orrelaxe, an eta emen saioak egiñez, asi zan Manuel ere, garai artako bertsolari geienak asten ziran bezela.

Gogoratzen naiz: Manuelek amasei-amazazpi urte edukiko zituan orduan. Irailleko Ernioko jaiak ziran, eta jai aietan Iturriotz eta Muatzen igande gutzietan erromeria izaten zan. Gu, gaztetxoak, Ernion izan eta Iturrioztik beera Aiara bidean Altzu-zelai parean gento-

zen lau mutilleko taldea; eta gurekin batean sasoiko neska-mutil bikote bat, aiek ere Ernion izandakoak, oitura zan bezela, Ernioko zinta, kate eta medaillez txapela eta petxu jira danak batean zituztela.

Leenago esan det Altzu-zelai aldean beera gentoze-la; eta, pare artan giñan garaian, Manuel Lasarte beste bi lagunekin Iturriozko erromerira bidean, eta antxe topo egin genduan.

Gurekin batera zetorren bikote artako mutillak Manuel ezagutu egiten zuan nonbait, eta onela esan zion:

–Manuel, bota zak bertso bat!

Eta orduan Manuelek, pixka batean pentsatzen egon ondoren, onoko bertso au kantatu zion bikoteari:

Bertso bat kantatzen det
naiz neretzat kalte,
gaizkirik esatera
ez nijoa bate.
Amarratzen bazerate
medailla ta kate,
etzerate libratuko
nik agindu arte.

Leenago aitatu bat eman diot nola Manuel gaztetxo zalarik an eta emen bertsoak kantatzen saiatzen zala: tabernetan, lagunartean, erromeritik etxerakoan bidean bertsoan egiñez, eta abar eta abar.

Gogoratzen naiz: bein batez bi jai alkarren jarraian gertatu ziran, eta bigarren goizean ni ere mezetarako joanda nengoan elizpean, eta beste bi lagun etorri ziran nere ingurura, bat Manuelen kidekoa, eta bestea amar bat urte zaarragoa. Gaiñera, azkeneko au bertso-kontuan asko samar zekiana, bere ustez beintzat.

Alaxe, bezperako kontuekin ari zirala, Manuelen kideko edo lagun arek esan zuan:

–Atzo ere erreroak bertso politak kantatu dizkik, ba. Orduan, zaarragoko arek esan zion gazteari:

–Oso oker ago. Doiñu politak bai, bazekizkik, baiña bertsoan batere ez dik balio.

Nik ere ordurako bertsoarako zaletasun aundia neukan, eta oso gogoan gelditu zitzaidan Lasartegatik gizon arek esan zuana.

Andik urte batzuetara, Lasartek izen aundia artua zeukan bertso-munduan. Punta-puntako maillan zebillen, eta ara nola izaten diran gauzak.

Jai-illuntze batean, Aiako Juaneneko tabernan nengoan ni beste lagun batzuekin, mai batean jarri eta kafea artuz; eta aldameneko maian zegoan, beste lagun batzuekin, leen Lasartek bertsoan balio etzuala esan zuan ura.

Mai artan zegoan batek esan zuan, bertso-kontua atera zutenean:

–Gaur etzekit Lasarte baiño bertsoan oberik egongo ote dan. Bertso ederrak orrek kantatzen dizkik.

Orduan, leenago txartzat bota zuanak esan zuan:

–Bai, motel! Orrek bertsoan oso ondo egiten dik. Bertsolaria zala aspaldi antzeman nitxeon.

Nik ere belarriak erne neuzkan. Ondo gogoan gelditua bainean leenago esan zuana, eta nere baitan esan nuan:

–Ori dek uztarrian bi eskutara ederki egitea.

Gizon arek igarlea bear zuan.

Manuel Lasarte errerotzan eta ganadu perraketan Aian jardun zan leenengo. Aiakoa utzi eta gero toki askotan ibilia zan bere ofizio artako lantegietan: Zumarraga, Eibar, Zoaitzene, Zarautzko Azken-portun, eta azkenik Orion egin zuan bere kabia.

Eibarren errerotzan ari zala, egin omen zuan leenengo aldiz plazan bertsoan jende aurrean. Asteasuko Lamitegi omen zuan bertso-laguna. Arek eraman arazi

omen zuan. Asi bazan asi, geroztik zenbat tokitan kantatu duan Jainkoak bakarrik jakingo du.

Nik ez dakit zenbat urtean ibili zan plazaz plaza. Berrogei urte edo geiagoan bearbada, eta askotan erdi gaixorik zegoala. Zenbaitek bezelako osasuna izan balu, oraindik ere bertsoan zebillen Manuel; eta, gainera, gazte askori erakutsiko zien bertsoan nola egiten dan. Maixu aparta izango zan ortantxe ere.

Askok pentsatuko zuten plazetako bertsoetari utzi zionean, Lasarte betiko itzali zala. Baiña jendeak gutxiena uste zuanean, bere idazlanak El Diario Vasco egunkarian azaltzen asi ziran: Uztapide bere lagun miñari eskeiñitako kronikak eta abar. Eta, ondoren, aizkolari, arrijasotzaille, pelotari eta korrikalariei. Oiek guztiak bere idazlanetan aitatzen zituan, Euskal Errian izan diran kirolaririk ospetsuenak egindako lanak goraipatuz. Egun askotan idatzi zuan, berak duan graziarekin ederki asko kontatuz gainera.

Manuel Lasartek leen ere liburu zoragarriak egiñak baditu. Prosaz egindakoetan itz-joko zoragarria erabiltzen du, eta bertsoan egindakoak, berriz, berdingabeak dira.

Orain, berriz, egunkarian kirolarieri buruz idatzitako kronika aiek guztiak bildu eta beste liburu berri bat argitaratzera dijoa, Auspoa-ren bilduma onetan. Euskerazko liburu zale zeran orrek ementxe dezu gozatze-ko aukera.

Manuel, lagun bezela eskatzen diat: aurrera ere jarraitzeko leengo bide orretan. Gure Euskal Erri zaar onek bazeukak olako zerbaiten premia. Gaur egun usteldutako aize zikiña zebillek leku askotan. Tarteka-tarteka aize garbi eta osasuntsua komeni zaiok gure erriari. Jakintsuen mintzoarekin bakarrik ez dek aseko gure egarria. Noizean bein benikan ea aitzeko iturri garbitik ur garden ori edaten degun.

Ziur nago Lasartek argitaratzen duan liburua, euskaldun jator geienei oso gogoko izango zaiela.

Besterik gabe, besarkada bero batekin nere agurra luzatzen diat, eta urte askoan alkartzeko zoria izan dezagula.

Ikusi arte, Manuel!

Joxemari Lertxundi



Juan Jose Narbaiza "Luxia" eta Martin Gartziaarena
aizkolariak, 1952.01.01. **Fototeka Kutxa.**

Martin Gartziarena

Kaixo, Martin Gartziarena, adiskide zaarra! Adiñez Kalde gutxi degu zuk eta nik, biok kinta berekoak baigera. Urtez berdindu zaitut oraindaiñokoan. Aurre-rantzean ez dakit jarraituko dizudan, edo zuk neri, edozer gauza gertatu liteke-ta, bizia arrixkuan dauka-gunez.

Gizon indartsua ta sendoa billatzen zaitut, alkar ikusten degun bakoitzean. Itxura ederrekoa, Baiña orrek ez du esan nai inoiz galduko ez danik. Zuk parrandan ibilita ez dezu gorputza askorik zigortuko. Ori badakit. Baiña bestela ere sortzen dira ezbearrak, norberak gutxien uste duen garaian gaiñera sarritan. Beraz, eutsi, Martin, aal dezun bitartean osasun bikain orreri. Nik ez dizut gutxiagorik opa.

Orain Martin Gartziarenaren aipamenak egin nai nituzke: zer maillatakoa izan dan aizkolari modura. Berak burutu dituen jokoak adierazi, alegia, gutxi gorra-bera. Egun batez onela zion:

–Emezortzi urtera iritxi bitartean, nere aitarekin batera nekazaritzan jardun nintzan baserrian; eta bolara artan, San Pedro jaiak zirala-ta, Leitzako Gorritzarango baillaran pestak antolatu zituzten, aal zanik ongiena ospatzeko asmoz. Eta, aizkoran apustutxo bat jarri zigutenez, lau gaztek artu genduen parte bi-bitara. Migel Zabaletak eta nik, Gartziarenak, irabazi genion beste bikoteari. Pranko poliki moldatu giñan, eta ordutik sortu ziran jendearen arteko disputak. Batzuek Migel zuten gogoko, eta besteak, berriz, nere alde. Iritzi desberdiñak zeuden oso, ta azkenerako berotu arazi ginduzten beintzat, eta Leitzako plazan jokatu genduen

apustua: zortzina kana erdiko enbor nork azkarrago ebaki, ta neronek irabazi nion Zabaletari.

Ara emen Gartziarenaren asiera; eta bigarrenago apustua, berriz, lurrebasoren aurka jokatu omen zuen, Tolosako zezen plazan, lan klase ontara: launa enbor irurogei ontzakoak eta beste launa kana erdiko nork azkarrago ebaki. Au ere Gartziarenak irabazi, noski.

Erramon lurrebaso etzan, ba, nolanaiko aizkolaria. Azkarra ta egokia. Dotore aparta, gaiñera, egur gaiñean. Naiz ta batek galdu egin bear besteak irabazteko. Orixe gertatzen da.

Gartziarenak irugarren apustua ere Tolosako zezen plazan jokatu omen zuen Antonio Soraluze Korta-ren aurka, eta amasei kana erdiko ebakitzekotan bakoitzak. Artean ogei ta bat urte zeuzkala dio Gartziarenak. Ala ere, bera irabazle azkenean.

Ikusten danez, oso gazterik sartu zitzaigun indarrean gure mutilla, ta aurreko puntaraiño iritxi.

Korta aizkolari gozo amorratua zala entzuten zitzaien ortan ulertzen zuen jendeari. Nik neronek ere sarritan ikusi nuenez, asko gustatzen zitzaidan.

Gizon aundia izateaz gaiñera, gorputza zuen egokia. Aren aizkora oso goitik ibili oi zan, egurraren azalak urratu bitartean batez ere, ta zuzen. Golpe utsik edo dudakorik nekez. Orrek erakusten du garbiro bere garaian aizkolari onenetakoa zala. Gartziarena ta biak borroka latza joak izan bear zuten Tolosako apustu artan, adibidez.

Dana dala, laugarrenago apustua Naparroan, Iruñen, jokatua omen zuten, Gartziarenak ogei ta bi urte zeuzkalarik, eta lan klase ontara: irurogei ta amabi ontzako zortzina enbor ebakitzera. Ez du esaten kontrarioa nor tsu zuen orduan. Papertxo bat bialdu zidan, neronek eskatuta, ta emen ez da agertzen Iruñeko kontrarioaren izenik. Aaztu egingo zitzaien idazterakoan, seguru asko. Baiña uste det Inazio Orbegozo Arria zaarra ote zan. Ala

ez balitz, barkamena aurrez eskatzen det, bada ez bada ere. Ez dezaidala iñork gaizki artu mesedez. Diodan apustu au ere Gartziarenak irabazia da.

Ondoren, Euskal Erriko txapelketa nagusian artu zuen parte, ogei ta bi urterekin, Donostiako zezen plazan. Aizkolari auetxek ziran: Antonio Soraluze Korta, Joan Baleztana Arozena, Inazio Orbegozo Arria eta Martin Gartziarena. Lan klase ontara neurtu zuten alkar: irurogei ontzako amarna enbor ebakitzen. Eta Gartziarena gelditu zan txapeldun.

Urrengo apustua, seigarrena alegia, Azpeitin jokatu omen zuten Inazio Orbegozo Arria eta biak, ogei ta iru urterekin. Berrogei ta amalau ontzako amarna enbor eta eun da zortzi ontzakoak beste bina ebaki bear zituzten, eta orduan ere Gartziarena nagusitu.

Arria zaarra oraingo auen aita zan. Diodan au aizkolari sonatu askoa izandakoa, ta gizon atsegiña bezin gozoa, lagunarterako beintzat. Baiña betikorik ez da iñor. Beraz, goazen aurrera.

Geroxeago Luxia-ren kontra egin du apustua, lan ontara: launa enbor larogei ontzakoak, eta beste launa irurogei ta amabi ontzako, nork azkarrago erdibitu. Ogei ta lau urte zeuzkala orduan dio gure Gartziarenak. Joko ospetsu ura Donostiako zezen plazan erabaki omen zan noski, ta orduan Luxia-k irabazi.

Geroago berriro antolatzen dute bigarrenko apustua leengo lan berdiñera, ta Luxia nagusitzen zaio Gartziarenari.

Beraz, zortzi apustutatik sei irabazi ta bi galdu ondoren erretiratua da Martin Gartziarena. Ortik aparte, Euskal Erriko txapeldun egiñik. Ez dauka nolanaiko istoriala Leitzako aizkolari eder onek.

Nik gauza auek berak esan zizkidan bezelaxe idatzi ditut emen, fetxa segururik izentatu gabe. Oiek leendik jarri ta artxibatuak egongo baidira bear dan tokian.

Dana dala, askoren iritziz, sasoirik onenera iritxi baiño leen utzi zion Gartziarenak aizkora lanari. Alde batera lastima da, baiña berak jakingo zuen zergatik.

Luxia aizkolariak ondoren artan esan zigun pranko-tan, kontu kontari ari giñala:

–Gartziarena ni baiño obea uke aizkoran, ongi pres-tatuko baldin balitz.

Arek zerbait ikusten ziola zirudien.

Garai artan Eibarren bazan gizon aberats bat, Itur-rino deitzen ziotena, jokalaria purrukatua; ta aretxek eduki omen zituen bi mutil batera gobernatzen: Luis Lopetegi, Azpeitiko Agerre leenengoa, arri-jasotzaillea, eta Luxia aizkolaria. Etzituen txantxetan prestatuak. Diruaren bidez gauza asko lortzen dira emen.

Ziaran-zar arri-jasotzaille zaarra, Eibarren bizi zanez, uraxe xan Agerre-ren erakuslea ta maixua. Luxia, berriz, Agiñeta aizkolari zaarraren eskuetan jarri omen zuen Iturrinok. Etzuen nolanaiko erakuslea aukeratu. Mutillari lana eragin arazten artista zala entzun gabeak ez gera.

Luxia ta Gartziarenaren arteko bi neurketa sonatu aiek onoko urte auetan jokatuak izan bear zuten, nik daukadan paperak dionez: leenengoa 1950-ean eta bi-garrengoa 1952-an. Ez dakit zein illetan eta zein egu-netan. Bestela idatziko nuke pozik, gauzak garbiago agertzearren.

Geroztik, joko kontuak erabat aaztuta, bere base-rrian lana galanki egiñez zintzotasun osoan bizi da Leitzako Martin Gartziarena.

Gizon serioa ta berriketa gutxikoa degu, berez. Ixi-lla eta apala, nere ustez beintzat, aizkolari aundia izan-dako au.

El Diario Vasco, 2000-01-05.

① Καίχο μαρτίμ εγάρτσανεμα αδιχκιδεκαω
 ηλα αδι μεη αε δε γυ χι δε γυ χυκ ετα μικ βί
 οκ κιμ το βελε κρακ βαί γενα υντελ βενδιμ δυ
 χαι τυτ ολαιμ δαίμο κοαμ αυηληαμ θεαμ
 εχδακιτ ζαηαι τυ κο δι χυδαμ εδο χυκ μενι
 εδορεη γαυχα γετα τυ ει τε κε τα βί χια αηηικ
 κυαμ δαυκα γυμεη χυ βε τι βε χε εα χε γι χομ
 ιμδα ντβα τα σεμ δωα βί εεα θεμ χαι τυτ αε
 κανικυ στεμ δε γυμ βακοι θεαμ ι χυηα εδε
 ηε κοα βαί μα οηεκ εχ δυ εσαμ μοι ι μοι χ
 γαε δυ κο εχ δαμικ χυκ ραηηαμ δαμ ι βί ει τα
 εχ δε χυ γοη ρυ βα ασκο ηικ χι γοη τυ κο ο ρυ
 βα δακιτ βαί μα βε στε εα ερε σοη θεμ δι ηα
 οηεα εχ βε αηηακ μοη βε ακ γυ χι εμα υσ
 τε δυεμ γα ηαι αμ γαί μενα σαηηι ταμ βε ακ
 ευ βί μαρτίμ αε δε χυμ βί τα η τε αμ οσα συμ
 βί καίμ οηηε νι μί εχ δι χυτ γυ χι α γοη ι κ
 ορα ολαιμ μαρτίμ εγάρτσανεμα ηεμ αι ρα
 μεμακ εγίμ μαι μι τυ χε χε η μαι εεα τα κο
 αι χαμ δαμ αί χ κο εα ηι μο δυηα βε ακ βί
 τυ δι τυ εμ ζοκο ακ αδι εηα χι αε εγία γυ χι βί
 γοηα βε ηα εγυμ βα τε χ ο με εα χι ομ Εμ εχ οη
 βί υντε η αι ηι χι βί τα η τε αμ με ηε αι τα ηε κι μ
 βα τε ηα με κα χαι τι ταμ ζα η δυμ μί μ θεαμ βα
 σε ηηιαμ ετα βο εα ηα αη ταμ σαμ ρε δυο ζαί
 ακ χι ηα εα τα βε ι τα κο εο η ηι χ τα ηαμ γο
 βαί εεα ηαμ ρε στα κ αμ το εα τυ χι τυ χ τε μ
 αε ε χαμικ ομ γυ εμα οσ ρα θε κο ασ μο χ ετα
 αι χ κο ηαμ απυσ τυ χ ο βατ ζα η ηι χι γυ τε με χ
 εαυ γα χ τε κ αη τυ γε μ δυεμ ρα η τε βί βί τα η α
 μί γε ε ζα βα ε τα κ ετα μικ εγάρτσανεμα κ
 ι ηα βα χι γε μιομ βε στε βί κο τε α ηι ρηαμ
 κο ρο εί κι μο ε δα τυ γι μαμ ετα οη δυ τικ

② son tu xilam jemdeanem ante ko disputak
 βαβυεκ μιγεε χυτεμ γογοκο ετα βεστε ακ
 βερνιχ μενεα εδε ιριβυ δεσ βενδι μακ χευ
 dem oso ta αχ κεμενα κο βερο τυαραχι γιμ
 δυχτεμ βειμ βωτ ετα βει βακο ρεαχ αμ ζοκα
 τυ gem duem apus τυα χοη τιμα καμα ενδι κο
 εμπορ μορκα χκαρνα γο εβακι τα μενο μεκ
 ινα βαχι μι ομ χα βα εε τα ρι ανω με με εαν
 βια με μα νεμ ασι ενα ετα βι γαν η με γω α ρυς
 τυα βερνιχ χυ ητε βασ ο η με αυη κα ζοκα τυ ο με η
 χυ με το σο ακο χε χε μ ρεα χ α μ ε α μ κ ε α σ ε ο μ τ α ρ α
 βαυμα εμπορ ι η υ η ο γ ε ι ο μ β α κ ο α κ ε τ α β ε σ τ ε
 ε α υ μ α κ α μ α ε ν δ ι κ ο μ ο ρ κ α χ κ α ρ ν α γ ο ε β α κ ι
 α υ ε η ε ε α η β ι α η μ α κ ι ν α β α χ ι μ ο ρ κ ι ε η η α
 μ ο μ χ υ η η β α σ ο ε β α μ β α μ ο ε α μ α ι κ ο α ι χ
 κ ο ε α η ι α α χ κ α ρ ν α τ α ε γ ο κ ι α δ ο τ ο η ε α ρ α η τ α
 γ α ι μ ε η α ε γ υ η γ α ι μ ε α μ β α ι μ α β α τ ε κ γ α ε
 d u e γ ι μ β ε α η β ε σ τ e a k ι ν α β α χ τ e κ ο ο η ι χ e
 γ e η τ α β e μ d a ε α η β ι α η μ α κ ι η υ γ a η η μ e γ o
 a p u s τ υ α ε η τ ο ε ο σ α κ ο χ e χ e μ ρ e α χ α μ ζ o k a
 τυ ο με η χυ με η μ ο μ ι ο σ ο η α ε υ χ e κ ο η τ η η μ
 α υ η κ α ε τ α α μ α σ e i k α μ α ε ν d i k o ε β α κ ι β e
 κ ο τ α μ β α κ ο υ β α κ α η τ e α μ o γ e i t a b a t u η t e
 χ e υ η κ α ε α d i o ε α η β ι α η μ α κ α ε α ε η e β e η α
 ι ν α β α χ e e α χ κ e μ e α μ i k u s t e μ d a m e κ o s o
 γ α χ τ e η i k s a η τ υ χ i β α i γ u m i m d a η η e a μ
 g u η e μ u t i e e a t a α υ η η e κ o ρ u m τ α η α i μ o
 ι η ι d i κ o η τ α α i χ κ o ε α η ι γ o x o α μ o η η α t u
 α χ α ε α e μ β υ t e μ χ i β α i o μ o η t a μ u e e η t e μ
 χυ με η jem de a η i μ i κ μ e μ o μ e κ e η e s a η η i
 t a μ i k u s i μ u e μ e χ a s k o γ o γ u s t a β e μ
 χ i β a i d a μ u η η e μ g o a t a e e a μ e s a μ g o d i t u t
 γ α υ η α γ e i a γ o

Manuel Lasarteren esku-idatzi bat.



Migel Irazusta Goikoetxea "Polipaso".
El Diario Vasco: Biyok.

Polipaso

Il berria dan Polipasoren gainean arituko naiz. Au ere I gazte denboran segalaria izan zan, eta onenetakoa, nik entzuer a dedanez.

Mutil aundia gorputzez, eta indartsu amorratua. Baiña garai artan sega jokoak oso urri ikusten ziran. Txapelketak ere bai. Beraz, etzeukan ongi prestatuta egoteko modurik. Ez baitzegoen etorkizunik.

Ori orrela zalako edo ez dakit zergatik, baiña sega alde batera utzi ta aizkoran asi zitzaigun, ordurako adiñez aurrera zijoan arren. Errez sartu arrastora, ta lan itxurazkoak egin gañera.

Oso gaizki erabili zituen bolara batean beste aizkolari batzuk, eta esango det nolako jokabidez.

Iñun zeuden egurrik gogorrenak eta gozakaitzenak eramaten saiatzen zan plazara, ta antxe asmatzen sarritan, kanako enborretan batez ere. Aizkorak kirten luzea eskatzen du beeko barren aldeak ebakitzeko, eta ura luzaroan erabiltzea ez pentsatu berriketa danik. Eskumuturretan bezela, besoetan indarra oparo bear du, ta Polipasori orixe ikusten zitzaion. Nekeak etzuen bildurtzen nunbait.

Ortan Mendizabalek eta biak alkarren antza ote zuten derizkiot.

Txapelketa batean, Donostian, ziri ederra sartu zion Berakoetxeari. Baziran dozena erdiren bat aizkolari, ta Berakoetxea joan zan danen aurretik. Azken enborra ebakitzen astera zijoala, deitu zioten: leen egurren bat ongi bukatu gabe zeukala ta ura garbi uzteko. Ankak astindu zituen gizarajoak. Korrika joan da golpe bakarez erdibitu zuen. Utsa faltako zitzaion. Baiña batetik

bestera zebillela, Polipasok izugarrizko sarrera jo ta berak irabazi juxtu-juxtuan, eta txapeldun gelditu, Berakoetxearen deskuidoa dotore aprobetxatuz.

Polipasok apetitu bikaiña zuela badakigu. Gero ere nik baiño ohea edukiko zuen noski. Ala zirudien aren gilbor aldeak. Iñoiz alkarren inguruan bazkaltzen edo afaltzen egokitu giñanetan, ni arriturik egoten nintzan ari begira.

Zuk, irakurle, bearbada ez dezu jakingo mandoa nolako babazalea dan. Ganadu geientsuenak gogozko dute pentsu ori. Baiña mandoak ez du neurrik, auke-
ran eman ezkeru. Ala ta guztiz ere, Polipasok berak esan zigun:

–Nik edozein mandori jokatu nioke, kilo bana baba ale ontzietan edo kajan bakoitzari lurtean jarrita, zeinek azkarrago jan gordiñik. Ez baratzen bildutako baba ale berri freskoa; legortuta dagoena, almaguetatik erosi ta bere artan jango genduke.

Ortik pentsatu Polipasoren barrena zertsu zan.

Egun batez, gogoratzen naiz Ernanin afaria zutela, ta deitu zidaten bertsoara. Joan nintzan da auntza zeukaten prestatua, parrillan erreta gozo asko. Leenengo tripotxak eta gero aragia jan genituen, amar edo amabi laguneko koadrilla. Ernaniko Paulo Txikia bertsolaria an zan, da biok jardun giñan kantari tarteka. Jatun aundiak baziran, baiña ni Polipasok arritu ninduen geiena. Auntza berak bakarrik ere laixter garbituko ote zuen iduritu zitzaidan, egun gutxiren barruan, alegia.

Gizon mardulak gobernu onaren bidez azitzen dira jeneralean. Ura zan sanidadea! Urratu ezindako osasuna. Ez du nai lukean guztiak ditxa zoragarri ori.

Dana dala, afalondo gozo artan kontu kontari ari giñanez, Paulo Txikiak onela dio:

–I ere sasoirik onenean pasata egongo aiz, ta laixter utzi bearko dek aizkora lana.

-Ez. Oraindik ongi negok eta beste apustu batzuk jokatuko dizkiat -erantzun zion Polipasok.

Arrazoi zeukan. Andik aurrerakoan egin zituela uste det markarik aundienak.

El Diario Vasco, 2000-01-13.



Manuel Lasarte bere seme-alabekin.

Keixetaren pasadizoak

Leengo aizkolari zaarretan onena Keixeta juzkatzen zuten, adibidez. Ipui celebre asko ere bazuela uste det berak. Izlari apartaren sona ematen zioten ezagutzera iritxi ziranak.

1936-an asi zitzaigun gerra zoritzarrekoaren ondorengo urte batzuetan, baserritarreri garia ta babarruna kentzen zizkioten erriko udaletxeak, kanpora bialtzeko, goiko agintarien eskariz.

Baiña beti ez dira labore onak izaten, eta Keixetaren etxean babarrunik ez urte artan, ala bearrez, ta entregatu gabe gelditu, ea ixillean pasatzen ote zuten.

Bai zera! Laixter bialdu omen zioten papera, munta zeukala ta udaletxera agertzeko leenbaileen. Alaxe, joan da ordaindu zuenean, segituan abiatu andik, eta takilleroak:

–Aizu: egon zaite pixka batean, erreziboa emango dizut eta.

–Ez det bearrik. Etzait ori aaztuko neri –esan da martxa Keixetak.

Beste batean, Urrustillen pestak, eta jarri dute bizikleta karrera. Errian bertakoentzat izango zan au. Dana dala, bere semeak parte artzen zuela jakinda, kamio baztarrean eseri ta zai Keixeta zer ikusteko, ta badatoz ziklistak. Leenengo bueltan etxekoa aurrena.

–Ori da, seme –deitzen dio–. Oso ederki zoaz, lagunak atzetik segitzen dizutela!

Urrustildik Nuarberako bidean ibiliko ziran. Gauzak ala du itxura. Ta bigarren bueltan badatozela konaturatu ta an dago Keixeta begira. Ziklistak parean pasa zaizkio mordoska, ta bere semerik ez du ikusi aien

artean. Baiña pixka bat atzeragotik badator bakar-bakarrik, eta onela dio Keixetak:

–Bejondaizula, seme! Artzai on bat bezelaxe zabil-tza, danak aurrean artuta.

Disimulo obean itzegiten ez da errez, nere ustez.

Egun batez, Bizkaitik etorri omen zitzaion mutil eldu samartua, ea aizkoran erakutsiko ote zion galdez-ka. Auzoko norbaitekin aserretu ta besteak desapiatu zuela ta arixe jokatu nai, noski. Baiña langintza ortan gutxi jarduna zegoen kontua esplikatu Keixetari. Onek orduan erabaki du mutilla probatzea, ta esan dio:

–Orain egurrak prestatu ditzagun bion artean, eta alkarrekin bazkaldu. Gero arratsaldean ebakiko ditugu.

Pozik bizkaitarra. Alaxe, maian eseri ta asi dira alimentatzen. Arrigarrizko jatuna, noski, mutilla. Aurrean jartzen zitzaizkion guztiak garbitzen omen zituen, eta Keixetak onela dio ixillean bere buruari:

–Onek gaurko lanak ementxe egingo dizkik dudarik batere gabe.

Arek antzeman, leen ere banaka batzuen berri jakingo baitzuen maixu zarrak. Ainbeste probatuko zituelakoan nago ni beintzat.

Diogun bazkalondo artan kontu kontari denboral-dia pasata, asi dira ba aizkoran. Baiña nola? Mutillak makal utsa izaki berez, ta golpe bat baiño bestea man-tsoago ematen, eta aginduta mugitzen ez.

Ala ere, noizbait bi edo iru enbor ebaki ta gustora, izugarrizko lana egin balu bezela, ta galdetzen dio Kei-xetari:

–Zer iduritzen zaizu? Ongi aritu al naiz?

Eta onela erantzun omen zion Keixetak:

–Bai. Oso kontuz. Aizkorari goitik beerakoan baiño indar geiago ematen diozu gora jasotzen dezunean. Nik ori leendik jakin baldin banu, egurrak goien jarriko

nizkizun, da azkarrago ebakiko zenituen. Baiña lurrean jarri dizkizut, eta ortxe deskuidatu izango naiz seguru asko.

Gogorkeri aundirik gabeko erabakia Keixetarena.

Ixtori auek Donostiako Bodegón Alejandro-ko nagusi Martin Berasategik kontatzen zituen dotore. Arengandik ikasi nituen nik. Urrustilgo Patxonea baserrian jaio ta azitako semea zan bera, ta arreba bat Keixetaren semearekin ezkondua zeukan. Beraz, famili arteko ziran.

Martin Berasategi buru argiko gizona genduen benetan. Edozein apustu noiz ta nortzuk jokatu zuten jakin nai izan ezker, ari galdetzea onena. Urtea, illa, eguna, orduan zer lan klase ta gauza danak izentatuko zizkizun zuzen asko. Amaika une gozo igaro genduen aren ondoran. Baiña il zan gizarajoa, ta bukatu zitzaizkigun danak.

Martin Patxonea baserrian jaio zala esan det leen, baiña agian oker egon ninteke. Ez baitakit ziur izen ori duenik baserriak. Bai, ordea, Patxotarrak deituraz ezagutu degula famili au. Senide talde dexente gaiñera. Oraindik batzuk bizi dira.

Beste pasadizo xelebrea adierazi bearrean aurkitzen naiz une ontan. Au nuarbetar batek kontatu zidan. Ez da atzo goizean gertatua, dirudienez. Gabon gauekoa. Lau edo bost mutil gaztek pentsatu dute:

–Gaur, bakoitzak geure etxean afaldu eta gero, pesta antolatu genezakek, atarian bertan dantzarako toki ona zeukagu oso ta. Keixetaren etxera joango gaituk. An baditek gramola edo tokadisko zaar bat, eta ura ekarriko diagu.

Gau pasa egiteko asmoan mutil gizarajoak sano asko, giro txarra etzan egongo eta.

Alaxe, joan dira. Atea jo ta bereala pasatzeko barrura. Auzokoak izanik, ezagunak eta konfiantza. Sukaldera sartu arazi beintzat etxeakoandreak. Eta goiko soiñu otsa entzun da onela dio mutilletako batek:

-Tokadiskoa martxan al daukazute?

-Bai, bai. Bost neska or dabilta dantzan ganbaran. Igo zaitezte zuek ere, nai badezute.

Keixeta bera sukaldean karta jokoan ari omen zan puntuan, denbora pasa, neskazaar batekin.

Alaxe, mutillak zuzenean gora pozez zorutzen, eta neska gazteak leenez gaiñera saltoka, aiek ikusi ordu-rako. Lagunak bazituztela ta izugarritzko pesta jarri andik aurrera. Jendeak anak astindu bear izan zituen goizaldera bitartean. Tokadisko edo gramola zaarrari autsak kenduko zizkioten gau artan.

Gabon arratsa gustora pasa zuten kontua entzun nion nuarbear adiskideari. Gazteak ala dabiltzanean, etxeko guraso adintsuak ere kontentu egoten dira jeneralean, da an orixe bera gertatuko zala esango nuke, batere zalantzarik gabe.

Leen aipatu dedan emakume ura bakardadean biziko zan, itxura danez. Neskazaar gelditua, baiña diruz aberatsa ta Keixetaren etxera sarritan joaten zana illunabarretan da orrela, denbora pasa karta jokoan egitearren eta abar. Beraz, etzitzaiion gaizki etorriko gau zoriontsu aren freskura gaixoari.

Baiña gerorako itxillu txarrak sortu arazi zizkion, ordea. Baillara txiki oietan, batek soiñua jotzen baldin badu, beste danak entzun oi dute, ta an ere gauza bera gertatu.

Apaizak jakin zuenean neska-mutillak Keixetaren etxean gau pasa nola egin zuten, oso serio artu. Errespetoaren falta zala idurituko zitzaion nunbait. Ordurako apaiza bera zaartua egon da bide estuak ikusten, eta gogor antzean jarri gizona.

Gazte aieri esan omen zioten elizara ez joateko. Baiña, ala ere, urrengo igandean beti bezela antxe meza entzuten gazteak. Apaizak beraiengana urbildu ta izen-apellidoak eskatu, ta idatzi paperean.

Andik laixter, muntak ordaindu omen zituzten neska-mutillak, bakoitzak ogei duro. Keixetak, berriz, bosteun pezeta. Eta neskazaarrak milla ta bosteun pezeta, aberatsa zalako. Ara zertan bukatu ziran Gabon pestak.

Nik bestek esanda bezela esplikatu ditut gauzak, ez gutxiago eta ez geiago.

El Diario Vasco, 2000-01-18.



Erramon Latasa, aizkolaria. **El Diario Vasco: Jesus Insausti.**

Erramon Latasa

Gero, alako batean, jakin genduen Luxiak eta Lata-sak jokoia egin omen zutela. Donostiako zezen plazan izan zan bien arteko neurketa, 1959-an oker ez banago, ta Latasak irabazi Luxiari.

Bildurgarrizko betekada artu zuen, noski, zezen plazak. Amazazpi milla pertsonatik gora bildu omen ziran apustu sonatu ura ikustera, Gartziarenak eta Luxiak jokatu zituzten bi joko aietan bezelaxe, adibidez.

Jendeak bazeuzkan, ilusio galanta eta gogoia ez-ezik, antsia ere, alkar-borroka gogor ura ikusteko garai artan, dirudienez.

Geroztik emen Latasa juzkatzen zuten aizkolaririk onena. Askoren iritzia orrelaxe zan. Artista amorratua iduritzen zitzaioten, gai ortan ulertzen zuten geientsue-nei. Ala izan ere. Bolada batean baztarrak astindu zituen.

Baiña gerora aizkolari gazteak oso onak agertu ziran, eta sortu zitzaizkion kontrarioak aukeran. Or ibili bear izan zuen batzuetan apustuak galdu ta besteetan irabazi, bidezkoa dan bezela. Goiko puntako sasoiak ez baidu beti irauten.

Prestatu ere ez dakit zenbateraino egin ote zan sarritan. Baso lanetan jarduten omen zan gogor samar, eta denbora geiegi etzuen edukiko agian. Komeni aiña gobernatu ere ez, seguru asko.

Ortik aparte, berriz, min artuta klinikan egon zala badakit, berak esan zidanez, luzaroan gaiñera. Une ontan ez naiz gogoratzen zein urtetan, baiña bere garairik onentxoenean beintzat.

Garbiro kontatu zizkigun orduko pasadizoak. Berrogei ta amar milla duro botata irten zala zion klinikatik

kanpora. Bada zerbait. Gaur zenbateko diru sorta ote litzake? Ta bitartean irabazi bear zituen txanponak bat egiñik, milloiak izango lirakela pentsatzen det.

Galera bildurgarrizkoa gizon pobrearentzat. Etzitzazkion aaztuko berealakoan Latasa ospetsuari orduko suprimentu mikatzak, eta sentimentuak ere. Ta gerorago segurantzia arrixkuan gaiñera, berari entzun genionez.

Orixe gertatzen da bein osasunez bigurritu ezkeru. Berriro osatzen asko kostatzen zaio pertsonari.

Langille ikaragarria omen zan Latasa. Alamoduzko otsak zituen Sunbilla aldean. Indartsua ta egokia, noski, batzuen ustez beintzat.

Basoetako zugaitzak bertan zutik zeudela erosi ta gero aiek ipurditik ebaki ta kendu, ortan jarduten zala entzundako errezeloa daukat.

Bere kontura ta laguntzaille gutxirekin edo askorekin, orixe da ez dakidana garbiro adierazteko, ala nai nukeen arren.

Baiña basoko langintza pobrea eta neketsua zan garai artan, nolabaiteko esku-erremintak izanik. Aizkora, trontza ta arpana bakarrik baiziran.

Zenbait erreka zulotan penagarri, zugaitz astunak toki txarretara erori ta aiek atera eziñez aztarrika, lertzeko zorian, lau baba ale jateko. Enpleo ederra gustorra bizi aal izateko.

Basoz baso urte batzuk pasa dituen gizonari antzematen zaio, pausajea ere, gorputza zigortu duela lanaren bidez.

Erramon Latasa aizkolari aundia orretzek menperatu zuen. Nekean azkeneko urteak penagarri igaro ondoren il zala ta kito. Bukaera.

El Diario Vasco, 2000-01-28.

Joanito Iturain

Orion pelotari ederrak ugari izan dirala esan oi dute, leengo zaarretan batez ere; ta ara emen, bat aipatzekotan, oraindik bizi dana. Joanito Iturain Larreategi, 1908-ko maiatzaren 14-an jaio omen zan.

Azaiña izugarriak egindako pelotaria dala bere garaian, erri ontako jende guztiak, edo ezagutu zutenak beintzat, ao batez aitortzen dute; ta beste tokietan ere jakiñean egongo dirala esango nuke gizon onen berri.

Nik neronek pelotan jokatzen sekulan ez det ikusi Joanito Iturain. Baiña bestelakoan berarekin pixka bat tratatua naizenez, oso irikia billatzen nuen. Oraingoz ez dakit nola dabillen, aspalditxoan ez baidegu alkarrekin itzegiteko modurik izan.

Orio, bere sorterrria zalako, maite zuen nunbait. Garai batean sarritan egin oi zion bixita, naiz eta Donostian zeukan eguneroko bizibidea.

Nik lau edo bost aldiz Joxe Azurmendi kontratistaren etxean afaldu nuen suertez Joanito Iturainen aldamenen; eta, pelotari buruz izketan asten zitzaigunengan, arreta aundiz entzuten genizkion esaten zizkigun kontuak, merezi zuten bezela, noski.

Gu, Uztapide zana ta biok, bertsoak kantatzera joaten giñan; eta, tarteka saio batzuek egin arren, kontu kontari jarduteko nai aiña denbora artzen genduen. Gustoko lagunartean errez pasatzen dira orduak. Konturatu gabe askotan. Eta geroko beranduko erretira segurua ortik dator.

Dana dala, itzuli nadin leengo arrastora, Nik entzuera dedanez, Joanito Iturain oso gazterik asi izango zan pelotan.

1925 eta 1926-an, bere aita lagun zuela, Gipuzkoa-ko kanpeonatu irabazi omen zuten eskuz, bi-bitara jokatuta. Gero berriro palazko txapelketa; eta Elizondorekin erremontean ere apizionatuetan garaile irten 1926-ko apirillaren 4-an.



Juanito Iturain, pelotaria. 1990.06.16.

El Diario Vasco: Usoz.

Españiako apizionatuen norgeiagokan Bilbaoko Euskalduna pelotalekuan Iturain aita- semeak txapel-
dun, Napparroako Gorospe ta Larregiren aurka. Ara
emen azken partiduko emaitza: 22-17.

Artean Joanitok amazpi urte omen zituen, eta
bere aitak berriz larogei ta bat.

1927-an debutatu edo pasa omen zan leenengo
maillara Joanito Iturain erremontean Donostian, nere
eskuetara iritxi dan paperak dionez, eta berealaxe
nabarmendu pelotari aundi bat zala, noski.

1933-ko otsaillaren 5-ean, Arano ta Zumeta bikote-
ari berak bakarrik jokatu omen zioten Joanitok, eta
irabazi gainera.

Urte berean Patxiku Kintana palista sonatuari aur-
pegi eman bear izan zion, palazko pelotak erabiltzeko-
tan, bi pelotari desberdiñak jokoan alkarren aurka: bat
palaz eta bestea erremontez. Polita izango zan ikuste-
ko. Baiña partidu ontan ere Joanito Iturain nagusi.

1934-an berriro torneo edo leiaketa Euskal Jai eta
Urumeako enpresak prestatua. Joanito lagun artuta
omen zan orduan, pelotaririk onenak bertan ziralarik;
eta ez dakit zertan bukatu zuten, garbi esan aal izate-
ko. Lastima!

Baiña ondoren artan segidan frantzes baten kontra
neurketa zelebrea, noski. Jean Urruti onek yoko garbian
jokatu bear, eta Joanito Iturainek, berriz, erremontez.
Diodan frantzesak yoko garbiko zestoa eta teknika era-
bili omen zituen. Ala ere, ordea, errez irabazi partidua
oriotar Iturainek, erremontezko jokabidez baliaturik.

Urrengo, berriz, 1946-garren urtean antolatu omen
zuten txapelketa Españian erremontistarik aundie-
nentzat; eta Iturain, Azpiroz lagun zuelarik, garaile
irten. Ez dakit zenbat bikote ziran parte artu zutenak
norgeiagoka artan. Bestela, pozik idatziko nukela segu-
ru egon.

Dana dala, goazen aurrera. 1945-ean ere Espainia-ko txapeldun Joanito Iturain gelditu zala dio nik daukadan paperak. Urtasun izan bear zuen lagun bikotea osatzeko.

Baiña ez det segurantzi osorik fetxari buruz alegia. Ezeren okerrik baldin balego, edo ankasartzerik egin badet, barkatzea naiko nuke, mesedez. Gauza auen berri Federazioan jakingo dute ongiena. Nik ezin nezazke nai bezela esplikatu, argibide osorik esku artean ez dedalako.

Baiña pelota eta pelotariak maite ditudanez, esker beroak eman naiean nengoen nola edo ala, ta zerbait idaztea pentsatu det. Ez al da iñor minduko, nere akatsen bat irakurri ondoren!

Emen Orion aspaldi samar ateratako egitaraua ikusi ta andik jasotakoak dira ematen ari naizen albiste auek. Baiña den-denak zuzen baliteke ez egotea, nik egindako idazlan ontan beintzat. Izan ere, ain da gauza zailla norberak ikusi gabeko partiduak nolakoak ziran esatea.

Urte mordoan mantendu zuen, dirudienez, Joanito Iturainek bere itza, eta auxe omen zan: prest zegoela edozein pelotariren kontra jokatzeko palaz, eskuz eta erremontez, iru aziotara alegia; baiña iñor atrebitu ez edo erantzunik jaso gabe gelditu beintzat.

Artean sasoi zeukala, 1957-ko San Joan illean erretiratua izan bear zuen, ogei ta amar urte pelotan pasata. Badala uste det zerbait.

Abregok eta biak ere partidu asko jokatu zituztela daukat entzuerara. Emen Orioko gizon zaar batek sarritan kontatu dizkit bi oien istoriak, Donostiako Urumea pelotalekuan ikusitakoak. Abrego pelotari ona zala, ta bai Iturain ere, esaten dute askok.

El Diario Vasco, 2000-02-03.

Erramon Iurrebaso

Esatera nijoan gertakizun au 1953-an zala uste det, segurantzi osorik ez badet ere.

Egun batez, Idiazabalen, Erramon Iurrebaso eta Luxiak neurtu zuten alkar aizkoran; ara zer lanetara: launa kana erdiko eta beste launa irurogei ontzako enbor nork leenago ebaki; ta Iurrebasok irabazi, jendek gutxiena espero zuen garaian eta Luxia sasoi betean egonik

Baiña ez dezagun pentsatu tankera ortako lanetan Iurrebasorekin giro zanik. «Aizkolari elektrikoa» deitzen zioten.

Udarako jaialdietan erriz erri sarritan ibiltzen giñan alkarrekin, aiek aizkoran eta gu bertsotan. Ainbat txalo bero entzundako Iurrebaso. Ixtimazio izugarria ikusten zitzaion urte aietan.

Bolada batean Goñi erabili zuen lagun. Oso aizkolari gozoa ta ederra zan Joanito Goñi. Uraxe ere naparra. Etxarri-Aranaztarra. Bikote bikaiña osatzen zuten pestari bizitasuna emateko ta jendearen egarria asetzeko.

Iurrebaso plazagizon osoa zala esango nuke nik, batere dudarik gabe. Gorputzez txiki antzekoa. Orixe zuela bere akats bakarra derizkiot.

Apustu batzuek irabazi ta besteak galdu egin zituen, gaiñontzeko aizkolari geientsuenak bezelaxe. Beti bera baiño gizon aundiagoen aurka nabaitzen genduen jokoan, eta orretzek jartzen estu gure mutilla.

Baiña ala ere etzion denbora pasa jarduteko astirik emango kontrarioari, ederki izerditu arazi baizik.

Iurrebasoren pisua auxe zan, gutxi gora-bera: irurogei ta emezortzi kilotik larogeira bitartekoa geienaz



Erramon Iurrebaso, aizkolaria. 1997.01.11.
El Diario Vasco: Aresti.

ere, ta gobernatzen gastu txikia. Noiznai prest jokorako. Berez naturaleza gogorrekoa izanik, errez moldatzen, zenbait aiña kosta gabe ta eguneroko lanari jarraituz sarritan.


Burutik anketara dena aizkolaria izan da Iurrebaso. Auskalo zenbat egur ebaki zuen urte mordoan, udara partean batez ere, erriz erri ibili zan garai aietan. Pestak antolatzerakoan billatuko zuten diodan aizkolari sonatu au.

Beingo batez gogoratzen naiz. Zumarragan, erriko plazan, gendukan jaialdia: Erramon Latasa eta Erramon Iurrebaso aizkoran. Gu, berriz, Uztapide ta biok, bertsotan. Latasa artean gutxi ezagutzen zuten emengo jendeak aizkolari gisara, ta gizon bezela ere bai.

Dana dala, ez dakit zenbana egur zituzten ebaki bearrak egun artan, seguru esan aal izateko. Baiña lan azi samarra zalakoan nago. Alaxe, ordua iritxi zitzaiontenean, ekin zioten jo ta jo nola batek ala besteak. Ura zan txikizioa! Jendeari begiak zabaldu arazi zizkioten. Gustora utzi ere bai. Ta azkenean Latasa nagusi, alde aundirik ez bazan ere.

Eguerdian bukatu genituen plazako zeregiñak aizkolari ta bertsolariak. Ondoren bazkari ederra eman ziguten, eta kontentu jardun giñan kantari, denbora pasa, illunabarrera bitartean, tarteka kontu kontari ta abar.

El Diario Vasco, 2000-02-24.



Mikel Mindegia, aizkolaria.

Mikel Mindegia

Mindegia degu Euskal Errian iñoiz aaztuko ez dan Moietakoa beste bat. Mikel Mindegia, naparra, juzkatzen dute kirol klase orren zale diranak ederrena.

Bederatzi edo amar txapela baditu irabazi ta bereganatuak. Marka galanta ortxe utziko du, iñork ondu nai baldin balu. Ez derizkiot erreza danik, baiña ezezkorik ezin esan. Gerokoa ikusi gabe baidago.

Mindegia Ezkurreko semea degu, aspalditxoan ezkondu ta Zubietan bizi dan arren. Baserri alde bikaiña daukala entzun det. Oso txukun eta egoki jarria, noski. Nik ez det bein ere ikusi etxe ura.

Ezkurrera bertsotara joandako batean kontu kontari ari giñala, ainbeste gauza aipatu genituen eta Mindegiaeren berri ongi zekien adiskide jator batek onela esan zidan:

–Nik gizon ori ezagutzen det, Lasarte, alkarren urrekoak gera ta. Oraindik bere abildadea gordeaz dabil. Duen guztia erakustera irixten baldin bada, marka bildurgarriak egin lezazke, ta ziri zorrotzak sartuko ditu baztarren batzuetan. Mindegia aizkolari izugarria da.

Nik neronek ere alaxe pentsatzen nuen nere ezjakiñean, eta biok berdintsu geundela iritziz iduritu zitzaidan. Badira urte mordoska diodan alkarrizketa au egin genduela, ta geroztik ikusi degu Mindegia zer maillatako aizkolaria izan dan: artista utsa, alperrikako lan narratsik ez duena, egoki amorratua.

Egurrak ebakitzerakoan epai estua erabiltzen daki, ongi zainduz; eta zalaparta gutxirekin egurrik gogorre-na ere, diximuloan alegia, golpe utsik gabe ta gozo.

Ortan nabaitzen omen zaio maixutasun izugarria, gizon jakintsuak aitortzen dutenez. Bi gauza egon litezke or oso garrantzitsuak; leenengo, berezko erreztasuna; ta, urrengo, opizioa ongi ikasia.

Zenbat metro kubiko egur ebaki ote dituzte Mindegia eta Arria bigarrenak, nola plazetan ala entrenamentuetan, beroien bizitzan, ainbeste urtetan etenik gabe langintza ortan jardunik?

Bolara luze bat izan zan bi aizkolari aundi auetaz jendeak asko itzegiten zuena. Batzuek Arria juzkatzen zuten onena; ta besteak, berriz, Mindegia ohea zala.

Orrelaxe sortu oi ziran disputak. Guk, erriz erri kantuan genbiltzala, entzuten genituen iritzi desberdiñak. Bakoitzak bere begiz ikusten du, ta danen gustokorik sekulan iñor etzan jaioko mundu ontara, seguru asko.

Ortik aparte, berriz, jende guztia baten alde jarri ezker, ez legoke apusturik. Beraz, bearrezko gauza dala pentsatzen det kontrario batzuk edukitzea dirua mugitu arazteko, ta apustu setatsuak jokatu aal izateko ere bai.

Dana dala, aipatu ditugun aizkolari ospetsu auek bikain apartak izan dira, bat bezela bestea, aldemenetik begira egoteko ta ikusleak gustora gelditzeko.

Leen bi edo iru tokitan moldatzen zituztela uste det apusturako aizkorak, nik dakidanez beintzat; Naparroako Leitzan Erbititarrak eta Gipuzkoako Errezillen Atxukarrok. Fama aundiko aizkolgille egokiak ziran biak ere, gure gazte denboran.

Baita Urnietan ere bada aizkolgille ona. Onek gaur oraindik jarraitzen omen du leengo martxan, adibidez.


Baiña Errezillen eta Leitzan ez det uste iñor jarduten danik aizkorak egiten. Edo, ni oker baldin banengo, barkatzea naiko nuke mesedez.

Emen leen burniz eta altzairuz moldatzen zituzten aizkorak. Baiña Australiakoak obeak agertu ziran

garaian, laixter aldatu zituzten plantillak aizkolgilleak, eta geroztik aien antzekoak egiten jarraitzen dute, apustularientzat batez ere.

Alde aundia omen dago leengo aizkora zaarretatik gaurkoetara. Ori ongi probatu ta gero esana izango du norbaitek. Erreminta onari errez antzematen zaiola badakigu lanean jardun geranak. Ala ta guztiz ere, gizon batetik bestera dagoen aldea ezin liteke berdindu. Orixe gertatzen da.

El Diario Vasco, 2000-03-07.



Miguel Berakoetxea, aizkolaria. **El Diario Vasco.**

Migel Berakoetxea

Beste bat aipatzea merezi duena Berakoetxea da, Napparroan Gorritiko semea.

Aizkolari bikaiña, garrote ikaragarrikoa. Biziegia zala esaten zutenak baziran tarteka. Arek, egur gainera igotzean, su artzen zuela zirudien. Alakoxe jokaera nabaitzen zitzaion. Nerbioso purrukatua izaki nunbait berez, eta indarra galanki gaiñera.

Joko irabaziak eta galduak zenbat zituen ez dakit. Baiña berdintsu izango da, noski.

Sarritan, apustua egiterakoan deskuidatzen dira gizonak. Norberak aukera artu bearrean, kontrarioari eman uste gabeen, eta gero txoriak eskutik aldegin. Orrelako jokabideak azkenean ez dute bukaera onik.

Aizkolari bakoitzak bere lan klasean erakusten ditu aalmenak; eta, egur gogorretan edo bigunetan alde aundia dagoenez, erdi aukeran antolatzen diran jokoak ziri zorrotzak sartzan badakitela gogoan eduki, bada ez bada ere.

Basoan ospelean azitako zugaitzak mardulak eta gozoagoak juzkatzen dituzte, egutera aldekoak baiño, jeneralean beintzat; eta pagoa da bereziki aizkolariak erabiltzen duten materiala.

Leentxeago esan dedan bezela, erdi aukerako apustu bat izentatzen danean, batek egur gogorak eraman lezazke plazara, eta besteak samurrak. Ortxe dago koska neurtzen zaila ta diru jokatzailleak asmatu eziñez ibiltzeko modua.

Nik neronek ez det eskarmenturik gai ortan. Baiña, askoren iritziak entzunda nagoenez, minutuetara egin-

dako trabesak arrixkutsuak ote diran sarritan iduritu izan zait.

Dana dala, Migel Berakoetxea zana aizkolari zoragarria genduen. Txapeldun gelditu zitzaigun beingo batez Donostian. Agian txapelketa geiago ere izan zezazkeen irabaziak, nik gogoan ez dauzkadanak,

Aren ondoan etzan giro boladatan, bakoitzari berea aitortu bear badiogu beintzat.

Gazterik il zan. Lastima! Artean berrogei ta zazpi urte omen zeuzkan. Beraz, sosoirik onentxoenean bezelatsu egon zitekeen gauza askotarako.

Arruako Urtain bozeolari zanaren arreba zuen andrea. Emakume pizkorra, bere senide guztien antzera. Ez dakit zer famili zuten. Zenbat seme-alaba zituzten, alegia.

Egun batez gogoratzen naiz, Idiazabalen, Zepai bertsolari zanak bere ostatuaren aurreko aldean kamionak eta kotxeak uzteko lekua prestatu zuela ta ilusioz beterik pesta bat antolatzea pentsatu ain zuzen, eta ara nolatsu: Luis Lopetegi, Agerre leenengoa, arri jasotzen; Azkoitiko Errekalde gaztea aizkoran -illa da ura ere, zoritxarrez-; eta gu, Uztapide ta Lasarte, giñan bertsotan.

Eguerdian bukatu genituen kanpoko lanak, eta ondoren bazkari ederra eman ziguten.

Lagunartean ainbat gauza berritzen dira-ta, kontu kontari ari giñanez, an ere bai.

Aurreko artan aizkol apustua jokatuak ziran Errekalde ta Berakoetxea, biak alkarren aurka, Tolosan. Orain ez daukat gogoan zer lanetara, baiña 1965-garren urtean zala uste det apustu ura, ni oker ez banago.

Egurak gogor bildurgarriak eramán omen zituzten plazara, ta gero ebakitzen kostá, ta erabat leertu gizonak.

Berakoetxea, denak erdibitu baiño leen, eziñak erasanda erori izan bear zuen egurraren gaiñetik; eta Errekaldek juxtuan bukatu bere lanak. Azkenean garaile irten suertez.

Alaxe, Idiazabalen galdetu zioten Errekalde zanari, bazkaltzeko garaian:

-Aizkolaririk onena nor ote da gaur edozer lan klasetan?

Eta auxe zan Errekalderen erantzuna:

-Ori erabakitzen oso zailla litzake probatu gabe. Baiña amasei kana erdikotatik ogeira bitarteko lanean Berakoetxea bezelakorik ez dago, nere gustora.


Ori entzunik, aldemenean zeukan lagun batek esan zion Errekalderi:

-Tolosan zuk irabazi zenion, ba, Berakoetxeari.

-Bai. Egun artan nik irabazi nion, baiña gaizki ibilita. Ura erori zanean, animatu nintzan pixka bat. Bestela, neronek erori bearko nuen berealaxe. Aiek ez bai ziran legezko egurrak eta gutxiagorik ere. Eskuak urratu ta odola zeriotea gelditu zitzaizkidan.

Auxe jakin genduen Errekalde gaztearengandik, Idiazabalko Zepai bertsolari zanaren ostatuan, egun zoriontsu artan.

El Diario Vasco, 2000-03-19.



Jose Mari Mendizabal, aizkolaria.
El Diario Vasco: Jesus Insausti.

Jose Mari Mendizabal

Aizkolari guztiak ez ditugu oso gazterik asiak. Jose Mari Mendizabal, adunatarra, leenengo urte bazuetan arri jasotzen ibili zala ongi dakigu. Endañeta sonatuarekin ere jokatu zituen apustu bat baiño geiago; ta, aietaz aparte, ez nezake esan nortzuk izan ziran bere kontrarioak langintza ortan.

Gero, arri jasotzeari utzi ta aizkora lanari ekin zion, gogotsu gaiñera. Bearbada berandu antzean, baiña berez saiakorra izaki ta opizio berria ongi ikasi ta menderatu zuelakoan nago. Egun aundietan batez ere, marka aundiak egitera iritxi da Mendizabal.

Kanako enborrak zitzaizkion gogozko, adibidez, apustu bat burutu nai zuen bakoitzean; eta beti lan luzearen billa ibili oi zan aizkolari aundi au. Zer adierazten digu orrek? Iraupen izugarria zeukala berekin, dudarik gabe.

Egur ebakitzaille txukuntzat edukitzen zuten askok. Korteak edo epaiak zuzen erabiltzen baizekien. Ortik kanpora, besoetan indarra bildurgarri. Gizon gogorra ta etsi zailla. Prestatzen ere zintzo aaleginduko ote zan daukat errezeloa.

Ala ere, apustuetan ez det uste suerte geiegirik izan duenik. Baiña sekulan ezagutu dan latzena Mendizabal onek eta Mindegiak jokatu zuten seguru samar. Tolosako zezen plazan, 1983-garren urteko ilbeltzaren 23-an, oker ez banago.

Sei enbor eun da amar ontzakoak eta berrogei ta amabi kana erdiko ebakitzea zan aizkolari bakoitzaren lana. Lau ordu ta geiago pasa omen zituzten aizkoran jo ta jo, ta azkenean Mendizabal nagusitu. Ori geiegiz-

koa iduritzen zitzaion jendeari. Begira egoteko ere ikuskizun luzetxoa, alegia.

Ez dakit beste apusturik irabazi dion Mendizabalek Mindegiari. Bai, ordea, Mindegiak joko sailla jan dizkio Mendizabaleri.

Orrelaxe oi dira euskaldunen alkar borroka ta neurketa zorrotzak. Lan aundiak artu ta bukatu geientsu-netan gaiñera, ezeren okerrik ez dala.

Joxe Mari Mendizabalek bete du bere tokia aizkolarien artean.

Aspaldiko urte auetan Leitzan bizi da. An dauka ostatua edo jatetxea, eguneroko ogibidea ematen diona familia mantentzeko.

El Diario Vasco, 2000-04-28.

Kandido Txurruka

Nor ote da, ba, beste ori? Kandido Txurruka zana. Mutrikuko seme pizkorra, ez gutxiago ta ez geiago. 1995-garren urtearen azken aldera il omen zan, baiña ez nuen jakin zein egunetan. Lastima! Kinto lagunak giñanez, maite genduen Kandido Txurruka.

Ogi biguna bezin gizon gozoa zan bere izatez, eta aizkolari bikaiña agertu zitzaigun egun batetik bestera.

Onek, agian, etzuen apizio geiegirik edukiko gazte-tandik aizkora lanerako. Baiña norbaitek berotu arazita, edo ez dakit nola, apusturen bat egin zuela ta ordutik asi, noski, prestatzen.

Or Zarautzen bazan Joxe Inazio Esnal Errotazar deitzen ziotena, gizon txiki kurioso bat. Uraxe zuen Txurrukak leenengo maixua, aizkoran erakutsi ziona.

Ain zuzen, ni garai artan Zarautzen ganadu perratzen jarduten nintzan; eta, diodan Errotazar edo Joxe Inazio ura laguna nuenez, nere lantokira sarritan joaten zitzaidan denbora pasa, ta galdetzen nion:

-Zer modutan dijoa Txurrukaren martxa? Ari al da ikasten?

-Bai. Mutil umil aparta dek. Arretaz entzuten dizkik esaten zaizkion denak; eta indarra, berriz, bildurgarri zeukak. Uste diat aizkolari aundi bat badegula, oraingo modura jarraitzen baldin badu beintzat.

Alaxe, apustu batzuk jokatzera iritxi zan Txurruka. Galdutakorik ez det uste bazuenik. Irabaziak bai. Zenbat ezin nezake garbiro esan. Aspaldiko kontu zaarrak diranez, aaztu samarturik dauzkat.

Ortik aparte, berriz, ni jokalarien gora-beretan ez naiz oso barrura bein ere sartu.

Kandido Txurrukak apusturik inportanteena Erramon Iurrebasorekin jokatu zuela esango nuke, bate-re dudarik jarri gabe gaiñera.

Biak adin berdiñekoak ziran. Urte berean jaiotako semeak, alegia, 1927-an. Ni neroni ere alaxe naiz. Beraz, kinto lagunak izan gera, ta beti alkar ixtimatu degunak.

Aipatu dedan apustu ospetsu ura zein urtetan burutu zuten eta zer lanetara ez naiz gogoratzen garbi-ro adierazteko, ta fetxarik ez det izentatuko.

Dakidan gauza bakarra auxe da: marka ikaragarria egin zutela, ta luzaroan irauñ zuela zutik. Agian azken bolada ontan norbaitek autsi zezakeen, aizkorak ere ordukoak baiño gaur daudenak askoz obeagoak dira ta.

Dana dala, argibide urri samarrak ematen ari naitzen arren, idaztea pentsatu det. Barkatu dezaidatela irakurle denak; eta bi aizkolari aundi oietan bat illa izanik ere, leen bizirik zegoen bitartean bezelaxe maite baidet, eta ez nuke iñor mindu arazi nai. Beraz, goazen aurrera.

Diodan apustu neurtu ura Azkoitin jokatu zuten, ni oso oker ez banago; ta Kandido Txurruka zanak irabazi, ederki kostata ordea.

Azkeneko enborra ebakitzen Erramon Iurrebaso asi omen zan aurretik, eta bukaeran galdu juxtu-juxtuan, bi golpez edo uskeri baten bidez. Orrenbeste alde bear luke, nere iritziz. Alkar ongi probatuta geldituko ziran, dudarik gabe.

Txurruka mutil aundia zan gorputzez. Luzea ta zabala. Pixuz ere eun bat kilo gutxi gora-bera, ta bizi amorratua gaiñera.

Iurrebaso, berriz, gorputz egokikoa, baiña askoz motzagoa; ta pixuan larogei kilo geienaz ere. Ortik gora ez omen zan igotzen edo pasatzen. Au berak esanda dakit nik.

Beraz, pentsatu besterik ez daukagu zertaraiñoko almenak zeuzkan beregan. Indartsu purrukatua izaki ta petxu onekoa.

Erakusle ta laguntzaille Agiñeta aizkolari zaar zana izan bear zuen Iurrebasok; eta Txurrukak, berriz, Keixeta, Bi maixu aundi aiek ere alegiñak egingo zituztelakoan nago, ez gera oraingoxe kontuak esaten ari ta.

Kandido Txurrukaren azkeneko apustua ura izan ote zan? Agian bai. Segurantzi osorik ez dedan arren, ala derizkiot.

Geroztik bein ikusi genduen Donostian txapelketa batean parte artzen, eta etzan lotsagarri gelditu.

Baiña ordurako aizkora lanari utzi samarturik zegoela zirudien, edo gutxi prestatua beintzat nabaitzen zitzaien.

Gizon bezela, gozoa, lasai ta atsegiña iduritu zitzaidan beti Kandido Txurruka. Lagunarterako asko balio zuena, Iurrebaso bezela. Neretzat biak izan dira onak.

Kinto lagunak giñanez, alkarren berri bagenekigun, gaztetan batez ere, gerora ez ainbeste. Nik jokoari ez baidiot urretik jarraitu sekulan.

Dana dala, ementxe bukatzen det iñoiz aaztuko etzaidan bikote bikain onen istoria, agur bero baten bidez, beste batekin asteko.

El Diario Vasco, 2000-05-03.



Iñaki Eizmendi, "Basarri", bertsolaria. 1991.12.04.

El Diario Vasco: Mikel.

Basarri zanaren adierazpenak

Gaurko nere atal onen bidez Basarri zanaren adierazpenak egin nai nituzke aal dedanik garbien. Deskuido santuz ni aurretik ilko baldin banintz, berak gauza berbera egingo baitzuen nere ongarrri, batere dudarik gabe: biok alkarri genion maitasun sutsua agertu eta Euskal Erri osoari erakutsi, diodan pasadizo au egunkarirako idazten zuen garaian izanik.

Batez ere azkenerako ezin zuela gelditu bazan ere, bere lan-partreak ondo egiñik utzi ta joana da lurralde ontatik betiko ezkutura Iñaki Eizmendi Manterola, Basarri nere bertsolari lagun ixtimatua nuena.

Ez det zurikeriz eta nere burua edertzearren itzegingo, irakurle. Baiña nik badaukat, beste denak bezelaxe, biotz sentikor bat, ordea; ta berak agindu oi dit nolatsuko jokabideak erabili bear ditudan, gizon bakoitzari merezi duen saria ematerakoan.

Emen pertsona askoren iritziak ibiliko ziran aidean, egan pasadan dijoazen uso ta txorien antzera. Baiña nik neronek beintzat bertsolari bezela oso ongi ezagutu nuen Basarri. Au benetan esaten det, alkarrekin ainbat bertso-saiotan parte artu genduelako, batez ere; ta, gustoko laguna nuenez, errez kantatzen genduelakoan, kontentu utzi oi genituen entzuleak ere bazirala ez dago ukatzerik.

Basarri bertsolari ederra zan. Petralkeri gutxikoa ta errespetoz itzegiten zekiena jendearen aurrean. Itzal aundiko gizona ere bai, denbora berean.

Ortik aparte, berriz, abots indartsua zuenez, urruti antzean zeudenak ere ederki entzun oi zuten aren bertsoa.

Leen gai librean kantari nola jarduten giñan, saioaren asierako agurra Basarrirena oitua zegoen erri askotako jendea, orretarako, iñori ezer galdetu gabe, bera aurreratatu oi zanez.

Guk aukera guztiak ematen genizkion, eta segi, arrazoi bakoitzari aal zanik egokiena erantzunez. Orixe da bearrezkoena, bertsolariak alkar ongi artu aal izateko, nere ustez.

Basarriren aurka nik ez nuke itzegin nai, sekulan ez baizidan minberatzeko moduko motiborik eman. Batek besteari errespeto izugarria genion bertsolaritzaren barruan. Baiña eguneroko bizitzan ez genduen ezeren traturik eduki bein ere.

Beraz, goazen, ba, dakiguna adierazten, asitako lantxo au osatu edo bukatu bitartean, gutxienez ere.

Basarririk osasun aberatsa izan zuela badakigu, ta oraindik bizirik egon balitz naiago nuen nik; baiña irixi zitzaizkion eguna eta ordua mundu ontako bizitzari agur esan da besterako bidea artzeko.

Ori guretzat ere badator. Ez dakigu noiz eta nola, baiña gutxiena usteko degun garaian, agian.

Basarriren illeta-elizkizunean Zarautzko parrokian antxe giñan, beste askorekin batera, 1999-garren urteko azaroko illaren 5-eko arratsalde. Erri-oparia eskeintzerakoan, bertso bana kantatu genizkion Egañak, Lazkanok, Joxe Lizasok, Azpillagak eta nik, Lasartek.

Basarri bizitza lasaia eramandako gizona omen zan. Alamoizko kontuak kontatu zizkidan egun batez:

-Nik osasun ona beti izan det, Lasarte, zuk ez daukazuna.

-Ori da penagarria, bai. Probatu ez duenak ez daki asko umorerik gabe kantatu bearra jendearen aurrean zer lan tristea dan -erantzun nion-. Arrazoi osoa dezu ortan. Bertsolaritza ez da ongieza sendatzeko botikarik

onena. Leen sano dabillena gaixotu arazteko bai ederra.

Auxe entzun nuen Basarriren aotik:

–Nik neronek, suertez, iñungo miñik ez det izan sekulan, esate baterako, ta poltxikoan milla peztaren faltarik ere ez, eta egun on asko kendu dizkiot mundu oni. Ez nago damaturik egoteko moduan orain arteko bizimoduz, Lasarte.

Olaxe zion Basarrik. Artean dotore baizebillen, eta kontentu.

–Bejondaizula, Iñaki! Segi orrelaxe urte askotan. Nik ere baditut egun politak paseak tarteka. Baiña txarrak eta dudakoak geiago. Osasunez gazterik bigurritu nintzanez, ikusi ditut nereak eta bi. Ta, beste gauza batzuk ere oker irten zaizkidanez, azkenerako bizkarra beteko pardela nereganatu det, Iñaki.


Ontantxe bukatu zan gure orduko alkarrizketa. Orain iñor gutxik jakin lezaken albiste bat eman bear det.

Emen bazan, Aginagan eta Orion, Gaztelu bertsolaria Basarriren gustokoa, izugarri maite zuena. Leengo bertsolari zaarretan, bat-bateko bertsogintzan onen-txoena juzkatzen zuen Basarrik Gaztelu zana.

Parrandero enteroa izanik, beti ostatuetan eta sagardotegietan sartu ta noiz irten ez zekiela egoten zan gizon-pusketa aundi bat.

Eta Basarri, mutil gaztea zala, Zarauztik Oriora Gaztelurengana bertsotan ikastera etortzen omen zan sarritan. Ez dago gaizki.

El Diario Vasco, 2000-05-25.



Patxi Astibia, aizkolaria. 1991.11.27.

El Diario Vasco: Usoz.

Patxi Astibia

Aizkolariak aipatzerakoan, Naparroako Leitzatik Asiko naiz, ta Patxi Astibiarengandik ain zuzen. Uste det mereziko duela zor zaion aitormena kirolari ospetsu onek.

Etxean senide talde ugaria izanik, nolabait mantendu bear derrigor eta oso gazterik irten omen zan eguneroko ogia irabaztera, eskolako ikasketak alde batera utzirik. Amalau urterekin nora joko ta baso lanera.

Garai artan ez baitzegoen Leitzako errian beste inun enpleatzeko modurik eta dirua eskuratzeko erreztasunik. Geroxeago Sarrió deitzen dioten papelera faubrika jarri zuten martxan, eta ordutik aldatu ziran gauzak. Famili askori emango zion ogibidea, dudarik gabe.

Patxi Astibiak onela dio:

–Oianean lanean ari nintzala jokatu nuen leenengo apustua. Gero, 1959-an, amasei urte nituelarik, gazte maillako norgeiagokan, Donostian, txapeldun gelditze-ko suertea izan nuen.

Baita ere 1963-garren urteko martxoaren 3-an jokatu zuen adibidez apustu ofiziala Sarratenen aurka Naparroako Donezteben, amasei kana erdiko enbor nork leenago ebaki, ta Astibiak irabazi zion apustua.

Ondoren beste zazpi apustu jokatu ta denetan nagusitu omen zan Patxi Astibia, nere eskuetara iritxi dan paperak dionez. Banan-banan idatziko ditut, bein ontaratu naizen ezkerro.

Bigarrengo apustua 1964-ko ekainaren 28-an, Zeberiorekin jokatua agertzen da, ta emen alde pixka bat badago. Zeberioek enbor baten bentaja eman baidion. Berak ogei ta bat kana erdiko ebaki bear; eta Asti-

biak, berriz, ogei. Tolosan ospatu omen zan diodan neurketa au, eta leitzatar Patxi garaile.

Urrengo, 1965-eko urri-illaren 17-garren egunean, artzen du parte leenengo aldiz txapelketa nagusian Donostian. Ogei ta bat urte zeuzkan artean; eta soldadutza betetzera joan gabe zegoelarik gertatu zitzaion au. Gaiñera, berak aitortzen duenez, adiñez gaztetxo bezela, baiña indarrez eta balorez ongi osaturik.

Ara nortzu ziran aizkolariak: Polipaso, Berakoetxea, Arretxea, Txurruka, Zeanuriko Txatoa eta Astibia. Lana auxe zuten: irurogei ontzako amabi enbor ebaki bear zituen aizkolari bakoitzak. Astibia irugarren gelditu zitzaigun, txapeldun Polipaso eta bigarren Berakoetxea.

1966-ko martxoaren 6-an, ogei ta iru urterekin joan zan Astibia berriro txapelketa jokatzera. Donostiako Belodromoan jarri zuten neurketa; eta Alberdi, Arretxea, Berakoetxea, Zeberio, Errekalde, Polipaso eta Patxiren artean zegoen auzia, onoko enbor auetan: irurogei ta amabi ontzako launa egur; beste launa irurogei ontzako, eta launa kana erdiko. Lan aundia burutu ondoren, bigarren gelditu zan Astibia gaztea.

Urrengo txapelketa au, irugarrena berak esaten duenez, Donostiako zezen plazan, 1967-ko maiatzaren 4-an, ogei ta lau urte zeuzkan garaian. Emen daude aizkolarien izenak: Berakoetxea, Latasa, Arria, Zeberio, Sestao eta Astibia.

Orduko aizkolari bakoitzaren lana auxe zala irakurri det paperean: berrogei ta amalau ontzako iru enbor; irurogei ta amabi ontzako iru; eta, azkenik, larogei ontzakoak beste iru ebaki edo erdibitzea.

Baiña Astibiari gauzak gaizki atera, ordea. Bukae-rako egurrean, iru golpe bakarrik falta zitzaizkiola, eguzkiaren beroak erasanda, bertan lurrera erori mutila. Penagarri da orixe benetan.

Gero, urte berean, San Fermiñetan, beste txapelketa bat. Onek Iruñen bearko zuen izan, Campeonato Vasco-Navarro izenekoa: Latasa, Arria, Zeberio eta Astibia omen ziran parte artu zutenak. Guztira amabi enbor ebakitzeko eginkizuna aizkolari bakoitzak: lau kana erdiko, lau irurogei ontzako eta beste lau irurogei ta amabi ontzakoren neurria ematen zutenak. Eta emen ere bigarren tokian gelditzen da Astibia.

Geroxeago, urte onen barruan, 1967-ko urri-illaren 22-an, Berakoetxea ta biak ditugu alkarren aurka jokoan: launa enbor larogaina ontzakoak eta amabina kana erdiko nork azkarrago ebaki. Apustu sonatu au ere Astibia irabazten du.

1968-ko martxoaren 31-garren egunez Latasari jokatzen dio, eun da zortzi ontzako launa enborretara, ta Astibia nagusi ontan ere.

1968-ko abenduaren 29-an, Espaiñiako txapelketa nagusia ospatzen da Donostian. Zutik jarritako enborrak neurri ontakoak ziran: zortzi kana erdiko eta beste zortzi berrogei ta bost ontzako aizkolari bakoitzak ebaki bearrekoak, ni oker ulertua ez banago beintzat. Berakoetxea, Latasa, Usategieta, Arria eta Astibia artu zuten parte. Egun artan bigarren tokian gelditu zala esaten digu leitzatar Astibia.

Segidako urtean, au da, 1969-ko uztaillaren 6-an, jarri omen zuten berriro Espaiñi izeneko txapelketa. Aizkolariak Latasa, Arria, Mindegia eta Astibia, Napparoako Iruñen. Lana: lau kana erdiko, lau irurogei ontzako, bi irurogei ta amabi ontzako eta beste bi larogei ontzako ebaki bear bakoitzak. Ontan ere Astibia txapeldun.

Ondoren, urte osoa plazaratu gabe pasata, alako batean egin omen zuen Arriarekin jokoa. Zer lanetara orain esango det: seinan enbor irurogei ta amabi ontzako eta beste zortzina kana erdiko bakoitzak ebakitze-

kotan. Tolosako zezen plazan izan zan, noski, diodan apustu sonatu au, ta Astibia irabazle.

Gero Campeonato Vasco-Navarro izeneko txapelketa dator 1971-n, Leitzako plazan ospatua, apirillaren 25-garren egunean. Lau aizkolarik probatu zituzten indarrak. Ara nortzuk: Mindegia, Arria, Usategia eta Astibia, lan klase ontara: lau kana erdiko, lau irurogei ontzako, bi irurogei ta amabi ontzako, eta beste bi larogei ontzako. Borroka bikaiña ta azkenean Patxi Astibia txapeldun.

Arriarekin, berriz, bigarren desapioko joko 1974-ko martxoaren 17-an jokatu omen zuen Donostian, Astibia irabazirik.

Azkeneko aldiz 1975-garren urtean Anoetako Belodromoan izan zan txapelketa aipatzen du, australianoak eta euskaldunak alkarren aurka jokatu zutenekoa, alegia. Egur batzuk zutik jarriak ziran eta besteak etzanda. Egun artan australiatarrak nagusitu zitzaizkien euskaldunei taldeka. Baiña, banaka neurtuta, Mindegia zala onena entzun genduen.

Australianoekin Donostian txapelketa jokatu ta bereala, edo andik laixter, basoan lanean ari zala, zugaitz batek azpian arrapatu omen zuen, noski, Patxi Astibia, ta bizkar-ezurra zauritu suerte txarrez; eta geroztik, ongi osatu ezin zalako, aizkora apustuak utzi egin bear derrigorrez sasoirik onenean, ogei ta zortzi urte zeuzkan garaian. Penagarria benetan.

1963-an, La unión hace la fuerza izeneko programa bat antolatu zuen Espaiñiako telebistak.

–Probintziak artzen zuten parte bertan modu askotara –dio Patxi Astibia–. Napparroatik ni eraman ninduten ordezkari bezela.

Jakintsu taldeak biltzen ziran. An egindako galdera bakoitzari erantzuna eman bear; eta, deskuidoren batez utsegiten bazuten, kirolak sartu tartean. Napa-

roaren izenean Astibiak oiñeko neurriko enbor bat ebaki bear derrigor. Baiña azkenera ta errezago, egur bakoitza segundo bat gutxiagoan erdibitzen zuela.

Jarri zanean, leenengo asieran baiña askoz ere lasaiago ta segurantzi geiago sentitzen bere baitan mutillak. Izugarri arrera ona izan omen zuen diogun egitarau edo programa arek nazio maillan.

Ondorenean, kontratu ugari eskeiñi zizkioten aibat erritan, esibizioak egin aal izateko. Ortik aparte, berriz, produktoren batzuk anuntziatzeko deitu zioten Patxi Astibiari, ongi ordaintzekotan gaiñera, berak aitortzen duenez.

Baiña sozio lagunei gustatu ez, noski. Gaizki artu nunbait, une artan euskal kirolak bere indarra galtzeko arrixkua ote zeukan edo orrelako zerbait idurituta. Motibo orren bidez dena bertan beera utzi omen zuen Astibiak, eta kito, beraz. Txanponak irabazteko aukera izanik, etzion zumurik atera. Lastima! Gaur oraindik pena ori barruan daukala antzematen zaio.

Ongi pentsatuko bagendu, oso pesta polita antolatzten zuten. Gu ere pozik egoten giñan garai artan telebistari begira, ta agian etzion aizkol kirolari kalterik egingo, atzerritarrei jakin arazi baizik aizkoraren berri. Baiña gauza guztiak ez dira batera gogoratzen, eta denbora joan da geroko damutasunak ez du ezertarako balio.

Astibia gizon indartsua zan berez, ta petxu onekoa. Aizkora lanean jotzaille gogorra, iraupen aundikoa ta etsi-zailla. Ori entzuten zitzaioten askori.

Txikitandik zetorkion ortarako apizioa, dudarik gabe. Oso gazterik asi omen zan egurrari joka. Pasadizo bat kontatu zidan.

Leitzan, goiko errotako zubiaren gaiñean jostatzen zebiltzala lau mutil kozkor, disputan asi ta aserretu, noski, burrukatzeraiño, ta Astibiak bat zubitik beera

errekara bultza ta bota. Elurra lodi samar omen zegoen, negua izanik. Bustialdi arek on egingo zion leenez gaiñera. Geiago bigurritzeko moduan jarri ta bi-bitara jokoia egitera iritxi alkar neurtzeko.

Egueredian orrela ta arratsaldean apustua beroan. Baiña duro bana jokatzea erabaki ta Astibiak eduki ez, ta etxean eskatzen atrebitu ezin. Ortik aparte, egun ura igandea nola zan, arratsaldean elizara bezperak entzutera bialduko zuten bildurra gurasoak.

Alaxe, buruaustez beterik etxeratu da mutilla, eta aitari esplikatu dio gertakizun dena. Orduan aitagirriko zion semeari etzebillela gezurretan, eta berak eman duro bat jokorako, esanez bezperak entzutea egokiagoa zala, baiña beingoagatik barkatzen ziola ta joateko asmoa zeukan tokira.

Bazkaldu ta aizkora artu ta an dijoa pozik, eta bildu dira lau mutil kozkorak. Jo dute basora, ta pago zugaitza ipurditik ebaki ta bota leenengo, gero korteak emateko. Elurra azi samarra egokitu ta ura ere kendu bear, noski, aizkoran egingo bazan, eta gaizki ibili zira-la zion Astibiak. Jakin nai nuke arratsalde artan nolako aztarrika erabili zuten diogun laukote onek. Apustua jokatu ta golpe batez galdu omen zuten Astibiak eta bere lagunak.

Amabi urte edo orrela zituenekeo kontua zala ori zion Patxik. Besteak ere adin berdintsua edukiko zutela derizkiot.

Dana dala, aizkolari aundia sortu zitzaigun Leitza-ko Astibia.

El Diario Vasco, 2000-05-26.



Manuel Matxain, bolari eta bertsolaria. 1990.06.01.
El Diario Vasco: Usoz.

Manuel Matxain

Gure garai bateko gizon ospetsu asko dijoazte mundu ontatik bestera. El Diario Vasco egunkarian eskela pranko agertzen da, ta ez gezurraz jarriak, egizkoak baizik. Aurtengo negu zitalak ainbat naigabe triste eman duela ez dago ukatzerik iñolaz ere.

Orain aipatzera ni Joan gizon ospetsuetako bat auxeda: Manuel Matxain, Donostian bizi zana, Aieteko inguruko seme jatorra bere izatez. Nik neronek dexente tratatu nuen eta izugarri gustatzen zitzaidan lagunarterako aren irikitasuna.

Basarri bertsolari zanarekin zuen konfiantza aundia Manuel Matxain gure adiskide zintzo ta leialak, biak adiñez berdintsuak izanik; eta gaitz klase berberak menperatu omen zituen azkenean: perlesi edo trombosis esaten zaion erregalo eder orretzek, ni oso oker ez banago beintzat.

Basarri il zan leenengo, eta andik laixter Matxain. Baiña egun gutxiren barruan ezkutatu zitzaizkigun bi gizon garrantzitsu, euskeraren maitale amorratu utsak.

Manuel Matxain tokalari sonatua zan. Zenbat sariketa irabazi ote zituen batean eta bestean? Ortantxe ibili oi zan eten gabe erriz erri. Nik neronek sarritan ikusi nuen zorionez tokan jokutzen. Pultsu ona, bista argia eta beso zuzena aretxek zeuzkala iduritzen zitzaidan beti.

Au ez det esaten nere kasa gauzak neurtuta baka-rrik, jende jakintsu askoren aotik entzunda baizik.

Leen, pestak antolatzerakoan, erri txikietan batez ere, toka eta bola-jokoak ez zituzten aaztuta baztarrean utziko deskuido ez ere.

Diodan Manuel Matxain au bolan ere oso ederra omen zan. Nik neronek bein edo bitan ikusiko nuen geienaz ere; baiña jendeak famatzen zuela badakit.

Guk artista asko ezagutu genituen suertez, eta ainbat modutakoak, urte aietan Euskal Errian alde batetik bestera bertsoan genbiltzala; ta eskerrak eman bearrean aurkitzen naiz bertsoaritzari. Bestela, balore aundiko gizon oien berri jakiteraiño ez baigiñan sekulan iritxiko.

Ta beste arrazoi bat ere badago tarte ontan, aipatzea merezi duena: pertsona inportanteak ongi ezagutu aal izateko, beraien inguruan ibili ta bertatik bertara tratatzea dala onena esango nuke nik, batere dudarik gabe; ta guri aukera zoragarri orixe etorri zitzaigun eskuetara, nundik zetorren ez genekigula, gaiñera,

Manuel Matxain zanaren aldemenean bazkaldu edo afaldu prankotan egiña naiz ni, gustora asko. Uraxe zan gizon gozua ta izlari atsegiña, neretzat beintzat. Arrokeriz ez zuen iñor aspertu araziko berealakoan.

Egun batez kontatu zidan pasadizo polita, erriren batean gertatua, noski; baiña ez dakit nun eta noiz. Dana dala, berdintsu da kasorako.

Diodan erri artan, bai omen zan gizon aberatsen bat, jan, edan eta paseatu besterik egin gabe bizi zana; ta, eguraldi ederra ikusirik, esan du:

–Gaur mendi aldera jo bear diat, urruti antzeko baserrietara begiratzuz, ea nolako itxura daukaten.

Alaxe, badijoa esku batean bastoia eta bestean txapela artuta, kamioan gora taka-taka, ta entzun du negar otsa.

–Nor ote da emen supritzen dagoena? Ikusi bearko diat, bada ez bada ere.

Ta an billatzen du gizon burutxuri txiki bat, kamio baztarrean negarrez, eta galdetu dio:

–Zer pasa zaizu, gizona? Min artu edo bestelako zerbait?

-Ez det miñik artu kanpoan, baiña etxean bai, nere aitak jo nau ta.

-Bueno! Zergatik jo zaitu, ba, aitak? Zenbat urte dauzkazu?

-Irurogei ta bost.

-Nun da orain aita ori?

-Ortxe etxe atarian ari da egur txikitzen sutarako.

-Ezagutu bear det -esan da badijoakio beragana; ta onela asi da izketan kaletar gizon aberatsa:

-Zuri galdera bat egingo nizuke pozik, erantzun nai bazenida, nagusi jauna. Or, kamio ertzean, gizonezko bat negarrez dagoela ikusi det; eta, zer pasa zaion galdetu diodanean, aitak jo duela esan dit. Zu al zera bere aita?

-Bai. Ni naiz.

-Bapo! Zergatik jo dezu, ba, adin modu ortako semea?

-Bere aitonari obeditu ez diolako.

-Bueno, bueno! Orrela baldin baziran gauzak, or konpon eta agur!

Ori esan da aldegin omen zion kaletar jauntxoak. Emen burua nekatu arazi lezakeena arrazoi bakarra dago: irurogei ta bost urte zeuzkan billobaren aitonak, zer adin ote zeukan ordurako?

Gure lagun Matxaiñek kontatu zidan pasadizo zelebre au.

Gizon alaia ta prestu utsa zan bere izakeraz Manuel Matxain, eta bertso-jartzaille ederra ere bai, nere gus-torako. Berandu asi omen zan paperean bertsoak idazten; baiña kendu zion zumua langintza orri ere.

Buru argia duena alde askotara irixten dala ez da gezurra, ta ez legoke nik esan bearrik ere.

Baiña Euskal Erriak gizon garrantzitsu ta artista aundi bat galdu zuela esan genezake, Manuel Matxain

il zitzaigun egun triste artan: tokan maixu izandakoa ainbat urtetan, ta bolan ere onenetakoa. Jakin nai nuke zenbat kopa ta sari dauden aren etxean oroigarritzat jaso ta gordean.

Nik eskertzen dizkiot den-denak Manuel Matxain zanari.

El Diario Vasco, 2000-05-27.

Manuel Matxainen bertso-bilduma:

Uste gabean izeneko liburuan, Auspoa 277, 2002.



Segundo Kalonje bertsolaria (1910-1986).

Segundo Kalonje

Aspaldi samar gure begien bistatik ezkutatu zan lagun ixtimatu bat datorkit gogora, ain zuzen ere; ta berari buruzko albiste batzuk ematea egokia bezin bidezkoa ote dan iduritu zaidanez, ortaraxe nijoakizu, irakurle.

Agian, baliteke zure gustoko zerbait idaztea ataltxo ontan, eta naiago nuke asmatuko baldin banu erdiz erdi, zuk eskuetan artuko dezunean erabili dezazun maitasunik gozoenean.

Asieran aipatzen dedan gizon zoragarri au Segundo Kalonje da, donostiarra berez. Baiña urte mordoska joan dira bera il zanetik gaurdaino bitartean.

Nik urteak ez dauzkat gogoan. Bai, ordea, Segundo Kalonje zana izlari xuabea eta egoki utsa izanik, oso ongi konpontzen zituela esaera ta arrazoiak. Buruz jantzia bear du ortarako; arinkeri gutxikoa, alegia.

Bertsozale purrukatua zalako egin giñan biok alkarren lagun, eta neretzat gizon sentimentala billatzen nuen beti.

Donostiako Ospitaletik bi pausotara bezelatsu zuen baserri eder bat Segundok. Nik badakit nontsu zan etxe ura, bertara joan da ikusi bainuen zorionez. Baiña kontu zaarrak ari naiz esaten, oraingo berririk ez baidakit.

Ni bixitatzen ninduen tarteka Segundo Kalonjek. Egun batez, etxetik irten da kale aldera denbora pasa nijoala, topo egin nuen berarekin, eta galdetu nion:

-Zer zabilta, Segundo? Ez det asko pentsatu gaur zu Orion ikusi bear zaitudanik ordu auetan.

-Ba, zuregana etorri naiz, Lasarte. Leenengo, Loretxu jatetxean galdetu det nundik nora ibili ote zindez-

ken; eta eguerdia baiño leen ara agertuko zerala esan didate. Bazkari goxo antzeko bat egingo genduke biok ederki, kontu zaarrak berrituz. Ni Donostiatik zu konbidatzera etorri naiz, Lasarte, beste zer egiñik gabe.

–Kontxo! Ori orrela izanik, ixtimatzea merezi du ta pozik lagunduko dizut, Segundo –erantzun nion.

Gustora jarri zan gizona.

Baiña ordurako bazeukan beretzat aiña lan. Gota deitzen dioten gaitz aspergarri ori sortu omen zitzaion, eta anka bateko beatza, edo beatzak, ez dakit zenbat garbiro esan aal izateko, moztu zizkiotela ta erren dexte-tea egiñez nekoso antzean zebillen gizarajo ura. Bastoi txukun bat zerabilkien lagungarritzat, eta onela zion:

–Medikuak ongi jarriko naizela esaten didaten arren, nik ezin det sinistu, Lasarte, iñolaz ere; ta gaitxotasun onek eramango nauela uste det mundu ontatik bestera, leentxeago edo geroxeago.

–Ez bildurtu, Segundo, orrenbestera iño –esan nion nik.

Eta:

–Zuk ala diozu, Lasarte, nere on bearrez. Baiña gizonari etsi arazten diona miña edo oiñazea da, ta nik ori sentitzen det geiegi –erantzun zidan.

Orduan igarri nion suprimentuak menperatua zeukala, ta gaixo-kontu denak bere artan utzi genituen, eta bertsolaritzari astindu luze bat eman genion. Azkenik edo muga jakiñik ez duen gaien sartu giñan, baiña ongi ezagaturik gendukan saillean.

Segundo Kalonje bertso-jartzaille dotorea zalakoan egoten naiz ni neroni.

Ta Basarri bertsolariak ere iritzi berbera zuen. Bein baiño sarriagotan entzun nuen aren aotik Segundo Kalonjek bertsoak ongi idazten zituela, leengo oitura zaarrean. Jakiñaren gaiñean zegoen ura, Kalonjek bialdutako bertso-sorta ugariak berak argitaratzen baiziz-

kigun El Diario Vasco egunkarian, Nere Bordatxotik ize-
neko saillean.

Dana dala, Segundo Kalonje onek gaztetatik omen
zuen bertsoarako griña izugarrizkoa. Ostegunetan
Ernaniko perira nola eta zergatik joaten zan berak
esplikatu zidalako dakit. Nik bestela sekulan ez nuen
iñundik ezer jakingo. Baiña arreta osoa jarri nion
Kalonjeri, Ernaniko pasadizoak esplikatzan asi zitzai-
dan garaian.

Txirrita bertsolaria ezagutu izan bear zuen leentxe-
agotik, baiña urruti samarrera; ta, Ernanin ikusiko
zuen esperantzan, araiño joan ostegun-arratsalde
batez Segundo Kalonje, mutil gaztea artean. Ikusi du
Txirrita baztarreko maian bakarrik dagoela, ta bertara-
tu zaio ta onela asi da izketan:

–Arratsalde on, Joxe Manuel. Exeri aal niteke zure
ondoan?

–Bai, gazte. Emen badago zuretzat aiña toki, ta exeri
lasai nai dezun lekuan. Neri mutil jatorrak gustatzen
zaizkit; eta, zuk ere alakoxe itxura daukazunez, ez gera
gaizki konponduko.

Ara Txirrita zaarraren erantzun umilla, Kalonje
asko poztu zuena; ta, arrazoi ura entzunik, berriro gal-
detzen dio gazte onek:

–Joxe Manuel, galleta batzuk ekarriko al ditut, boti-
llatxo bat ardo edanez biok jan ditzagun, denbora
pasa?

–Bueno, ori ere egin genezake, kontuak esanez. Nik,
eskeintzen didazun dena ixtimatuko dizut zuri, boron-
date onezkoa dala badakit eta.

Txirritaren erabaki prestua onela omen zan, noski,
ta maian Segundo Kalonjek gozatu-aldi ederra artu
izan bear zuen arratsalde zoragarri artan.


Ara zer ilusio zeukan mutil gazte bertsozale purru-
katuak, nunbaitetik zetorkiona.

Nik atal onen bidez adierazten dizkizut gauzak, irakurle, berak kontatu zizkidan bezelaxe, ez geiago ta ez gutxiago. Beraz, urrengora arte.

El Diario Vasco, 2000-06-22.

Segundo Kalonjeren bertso-bilduma:

Loreak udan intza bezela liburuan, Auspoa 255, 1998.



Manuel Lasarte, Martin Berasategi zanarekin. Foto: Arturo.

1 as paedi samangure begiem bixtatik ezkutatu xam ea ①
 gum ixli matu bat datur kit gogo ra aim zu xem ete tu
 bepari bu nu ko aae bixte ba duk emate a egokia be nim
 bidei ko aote dam iduni tu xai damez on taha xe mi xoa ki
 xui ta kure e a giam ba e ite ke xure gus to ko zen bait ida x
 tea a ta e do om tam eta mai ago mi ke as ma tu ko ba e dim
 bam uendi x er di xuk es kue tam ar tu ko de xume am era bi ei
 de za xum mai ta xum mik go x o me am asi er tam ai x u x em
 dedam gi xom xona ganni au segum do ka lom je du fo do vs ti
 ta nna belex bai ma urte mon do ska xom di na be ai e x a me
 tik gaun dai mo bita x tam mik urte ak ex dau kat gogo am
 bai on de a segum do ka lom je za ma ix xani xa ba ea etu ego
 ki u xai xam i ko so om gi kom rom ben xi tu em sa era ta ana
 xoi ak bu nu x iam dia be an du on taha ko ar im ke ri gudiko
 aale gi a nrem e agum eta mene bat gi xom sem ti mem tu ea bi
 ee a x em mu em beti fo mo s ti ko os pi ta ee tik bi pa us o lu na be
 x e ea tu x u em ba se n ni eden bat segum dok mik bada kit
 nom tu za me de u na be ta na x o am dai ku si bai mu em xoni
 om ex bai ma kom tu x a a n n a k a ri mai x e sa tem on a im go be n ni
 xi ke x ba da kit mi bixi tu be m m i mu em ta r te ka segum do ka lom
 je ke gum ba te x e che tik in tem du ka ee aal de ma dem bo na pa za
 mi x a va to ro egim mu em be na ne ki me ta ga e de tu mi om xen x u
 bi e ta segum do ex x de ta s ko rem ts a tu gaun x u on i om i ku si be
 ar x ai tu dam ik on du a u e tam ba x u re ga ma e to n ni mai x fa
 sa n te ee mem go lo ne du x a te che am ga e de tu det mu m di k mo na
 i bi ei o te x i m de x ke me tu e gu en dia bai mo ee m ana a ge n
 tu ko x en a ea es am du da te ba x ka ri go x o am ke ko ba te egim go
 gem du ke bi g ede x ki kom tu x a a n n a k be n ni tu x mi fo mo ti x
 x u ko m bi da x e na e to n ni mai x fa sa n te be ste x e r egim i k ga be
 kom do on i on x e la i x a mi k ix ti ma x e me re xi du ta po x i k
 e agum du ko di x ut segum do e ra m tu m mi om eta gus to ra
 x a n ni x a m gi x o ma bai ma on du na ko ba x e u ka m be ne bat
 ai ma e am go ta dei x em di o tem ga i x a s pen ga n ni on i so n
 tu om em xi x ai om eta am ka ba te ko be a ta e do be a x a k
 ex da kit x e m bat ga n bi no es a ma a e i x a te ko bai ma mo x
 tu xi x ki o te ea ta er nem dex em te a e gi me x me ko so am be
 am x e bi ee em gi x a na x o u na ba sto i x u kum bat x e na bi e
 ki em e agum ga n ni bat eta om ea x i om me di ku ak om gi
 ja n ni ko nai x e la e sa tem di da tem a n n em mik ex im det
 si mi s tu fa sa n te i mo ea x e ne ta ga i x o ta x um om e ke ra ma m
 go ma go e la u ste det mu m om ta tik be ste na ee m che a go
 e do ge no x e a go ex bi e du n tu segum do on nem be ste nai mo
 es am mi om mik eta x u ka a ea di o x u fa sa n te mene om be
 a n n e x bai ma gi x o ma ni e tu a n a x tem di om a mi ma e do

2 oi māre ad a t a m i k o n i s e m t i k e m d e t g e i e g i e r a m t u m h i
 d a m e a m i g a n n i m i o m s u p n i m t o k m e n t u a k m e m p r a t i a
 h e u k a e a t a g a i x o k o m t u d e m a k b e l e a n t u m u h i g e m i t e m e k u
 b e r t o l a n i h a n i a s t i m d r u l e r b a t e m m a m g e m i o m a r k e m i k
 e d o m u g a j a k i m i k e z d u e m g a i a m s a n t u g u m a m b a i m a o m g i
 e r a g u t u n i k g e m d u k a m s a i e e e a m s e g u m d o k a e o m h e b e r t o
 j a n h a i e e e d o t o n e a h a e a k o a m e g o t e m m a i x m i m e n o m i
 t a b a s a n n i b e r t o l a n i a k e t e i n i t i b e r b e r a h u e m b e i m i
 b a i m o s a n n i a g o t a m e m k u m n u e m b a s a n n i b e r t o l a n i h a m a
 n e m a o t i k s e g u m d o k a l o m j e k b e r t o a k o m g i i d a x t e m h i t u e
 e a l e e m g o o s i t u n a h a a n n e a m h a k i m a n e m g a i m e a m h e g o e m
 u n a k a e o m j e k b i a l d u t a k o b e r t o s o n t u g a n i a k b e r a k a n
 g i t a n a h e m b a i x i x k i g u m e e p r i a n i o b a s k o e g u m k a n i a m m e
 n e b o n d a c h o t i k i z e m e k o s a i e e e a m d a m a d a l a s e g u m d o
 k a e o m j e o m e k g a x t e t a t i k o m e m h u e m b e r t o t a n a k o g n i
 m a i x u g a n n i x k o a o s t e g u m e t a m e r m a m i k o p e r i n a m o e a
 e t a n e n g a t i k j o a t e m h a m b e r a k e s p r e i t u h i d u l a k o d a k i t
 n i k b e s t e e a s e k u e a m e x m u e m i m u d i k e x e r j a k i m g o b a l
 m a a n n e t a o s o a h a n n i m i o m k a e o m j e n i e r m a m i k o p a s a
 d i x o a k e s p r e i k a h e m a s i h i b a i d a m g a n a i a m d i n n i t a
 b e r t o l a n i a e r a g u t u i x a m b e a n h u e m e e e m d e a g o l i k k a
 b a i m a u n n i t a m a n n e n a t a e r m a m i m i k u s i k o z u e m e s
 p e r a m h a m a n a i m o j o a m o s t e g u m a n n a b a e d e b a t e z s e
 g u m d o k a e o m j e m u t e e g a n t e a a r t e a m a m a x o r t i u n t e b e s
 t e n i k e x h i t u e l a e t a s a n t u d a o s t a t u b a t e a m i k u s i d u d i n n i t a
 b a x t a n n e k o m a i a m b a k a n n i k d a g o e e a t a b e r t a n a t u x a i o
 t a o m e e a s i d a i x k e t a m a n n a b a e d e o m j o x e m a m u e e e x e
 n i a e m i t e k e z u n e o m d a m b a i g a x t e e m e m b a d a g o z u n e t a t
 a i m a t o k i t a x e n i e a s a i m a i d e r u m e e k u a m m e n i m u t i e
 j a t o n a k g u s t a h e m h a i x k i t e t a h u k e n e a b a k o x e i d u n a
 d a u k a h u e m e x e x g e n a g a i x k i k o m p o n d u k o a n a d i n n i t a
 h a a n n a n e m e r a m k u m u m i e e a k a l o m j e a s k o p o r t u h u e m a
 t a a n n a h o i u n a e m h u m i k b e r n i n o g a e d e t e m d i o g a x t e o
 m e k j o x e m a m u e e g a l e e t a b a t u k e k a n n i k o a e d i t u t
 b o t i e e a c h o b a t a n d o e d a m e x b i o k j a m d i t a g u m d e m b o n a
 p a s a b u e m o b a o n i e n e e g i m g e m e h a k e k o m t u a k e s a m e r
 n i k e s k e i m h e m d i d a x u m d e m a i x t i m a t u k o d i x u t z u
 n i b o r o m d a t e o m e x k o a d a e a b a d a k i t e t a d i n n i t a n e m
 e r a b a k i p r e s t u a o m e a o m e m h a m m o s k i t a m a i a m
 s e g u m d o k a e o m j e k g o n a t u a e d i e d e r n a n t u i x a m b e o
 u n h u e m a n n a b a e d e h o n a g a n n i a n t a m a n a h e r i e u s i o
 h e u k a m m u t i e g a x t e b e r t o h a e e p u n n i k a t u a k m u m
 b a i t e t i k h e t o n k i o m a n i k a t a e o m e m b i d e x a d i e r a x
 t e m d i x k i z u t g a u z a k i n a k u n e b e r a k k o m t a t u h i k i d a m
 b e r e l a x e e z g e u a g o t a e x g u c h i a g o b e r a x u n n e m g o n a n t e

Manuel Lasarteren esku-idatzi bat.

Bautista Kortajarena "Ondartza"

Gaurko nere ataltxo au osatu aal izateko, Asteasutik bueltan ibili nai nuke, irakurle. Ez dakit zuri zer idurituko zaizun; baiña nik Asteasun lagun ixtimatu asko nituen leen, eta oraindik ere billatu nezazkelakotan nago, bizirik irauten dutenetan, alegia. Ta il ziran aietaz ere ez naiz nolanai aaztuko.

Bat izentatzekotan, Bautista Kortajarena Elizegi; au da, Ondartza bertsolaria, Pello Errota bertsolari famatuaren billoba, eta Mikela zanaren semerik zaarrena, nik entzuera dedanez.

Mikela, Pello Errota zanaren alaba zan, emakume argi askoa. Eun urte bizirik arrapatuko zituela uste bazuen ere, pixka bat leentxeago il bearra gertatu zitzaion gaixoari, ta kito! Ez zuen bere ametsik gozoena bete azkenean. Lastima!

Orrelaxe dira mundu ontako kontuak. Gure desioak edo naiak ez du azkenik; baiña ez gera gai ilusio denak ongi bete aal izateko. Zer adierazten digu orrek? Badaukagula norbait neurri sendo ta zuzenak artuko dizkiguna, garaia datorrenean. Orixe, nere ustez.

Dana dala, nik Bautista Kortajarenari buruzko albiste polit batzuk badauzkat, irakurle, zuri emateko. Baiña geroxeago idatziko ditut atal ontan bertan. Aiek gogoan artzea merezi baidute.

Orain asteasutarrez mintzatu bear det, legezkoa dan bezela. Asteasu erri euskaldun txukun dotore bat dala badakigu leendik ezagutzen degunok, nola kalez eta ala baserriz, nere begien bidez ikusita beintzat.

San Pedrotan ospatzen dituzte erriko pestak edo urteko jai nagusiak. Ainbat biderrez bertsotan jardur-

nak gera Asteasun udaletxeko balkoitik, entzule-sail galantak aurrean genituela.

Bautista Kortajarenak ere urtero kantatzen zuen gurekin batera, San Pedro pestetan, bere erritarren pozgarri ta xentimorik kobratu gabe gaiñera. Debalde, adibidez. Ez da gutxi. Eskerrak merezi zituen arek zeukan borondate onak; eta emango zizkioten batek baiño geiagok, seguru asko. Nik ala pentsatzen det.

Asteasun askok maiteko zuten errezelotan nago. Gaur oraindik ere, Bautista Kortajarena, gure lagun jatorra, jenioz bizi antzekoa zala entzun gabeak ez gera; ta nik sinisten det ori, berak aitortzen zidan bezela.

Baiña gizona edo pertsona sustraitik ezagutzeko, motibo bereziak bear dira, eta nik izan nituen baldintza oiek denak, ez arremian partikularrik eduki genduelako alkarren artean sekulan ere; baiña bai, ordea, konfiantza osoa batek besteari artu geniolako.

Azkeneko aldiz, Asteasun lagunarteko bazkari bat antolatu nai zutela-ta, neri deitu zidaten, ea bertso batzuk kantatzera joango ote nintzan, ongi zetorkidan egun batez. Neronek aukeratzeko noiz. Aientzat berdin zala, astez izanik ere.

Alaxe, erabaki nioten zein egun neukan libre, ta Lamitegiko baserriko nagusia etorri zitzaidan billa Oriora kotxearekin, eta arek eramian ninduen Asteasura; ta Agerreren jatexean zeukaten bazkari ederra prestatua, ustez. Baiña Ondartza bertsolaria antxe ikusi nuen mokadurik jan eziñez, triste ta buru-makur.

Nik banekien aspalditxotik nolabait zebilela, ta an jakin nuen zergatik. Asteasun ostatu batean apupillo egon oi zan diodan Bautista Kortajarena zana. Ta ostatu artako semeari maitasun geiegi artu nunbait, eta gero komeri latzak bereganatu omen zitzaizkion.

Nik ezagutu nuen mutil gazte dotore zoragarri ura. Bautistak bere aldemenean erabiltzen zuen, umetan bezela, azi ta geroago ere; ta segi pozik.

Baiña alpertsurik, ordea. Txofertzarako karneta atera, kotxe berria erosi ta kamioan ixtripuz il mutilla. Ta Bautista, sentimentuz betiko galdu.

Asteasun kontatu zizkigun bere pena ta suprimentu denak nundik zetozkion.

Ala ere, bazkalondoan nerekin batera bertso-saio dexenteak egin zituen, eta arratsaldea uste baiño azkarrago pasa ondoren, nik etxerako martxa artzerakoan, itz auetxekin despeditu ninduen:

–Ondo izan, Lasarte. Zu nere inguruan exerita ego-teak piztu egin dit biotza; ta, ikusi zaitudanean, izugarrizko poza artu det. Orain, berriz, alkar utzi bear degulako, pena.

Ontantxe bukatzen dira kontu serioak. Alaietara aldatu gaitezen.

Egun batez, Napar aldeko erriren batera joan dira bertso-tara Bautista Kortajarena au eta Zepai zana. Biak an ostatuan sartu orduko, galdetu du Bautistak komona nun dagoen; eta mostradorean presaka lanean ari zanak esan dio:

–Joan zaitez ortxe pasilloan aurrera, ta billatuko dezu.

Alaxe, ate batek zirrikitua zeukala ikusita, bultza ta sartu da barrura. Baiña jeiki zaio emakume zaarren bat oetik:

–Zer bear dek emen? Aldegin zak segituan! –esanez, oiuka asi zaio.

Ta Bautistaren erantzun egokia onela omen zan:

–Komona bear diñat nik! Ez i bezelakorik! Muturra ta mingaiña txukunak dauzkan! Oiek garbitzen baze-gon pixka bateko lana, nazkagarri arraioa!

Suerte txarra Bautista gizarajoak.

Beste arratsalde batez, denbora pasa etorri omen ziran Asteasutik, Aiako San Pedro baillaran afaritxoren

bat egin asmoz; eta ez dakit Ariztarrasu jatetxean edo Olaetxe jatetxean ziran. Bietakoren batean beintzat.

Sukaldean maian exerita afaltzen ari dirala, goiko tetxoan gantxo batzueri katiatuta urdai-azpiko aundiak omen zeuden, noski; ta aietako batek lokarria eten da beera erori ta jo du Bautista buruaren gainean. Ura omen zan zartada eman ziona!

-Gizonak suertea bear dik, eta nik danetan txarra -esan da kito.

El Diario Vasco, 2000-06-24.



Jose Mari Rekondo, toreatzailea. 2000.08.12. **EFE.**

Joxe Mari Rekondo, torero euskalduna

Beti bezela, kontu kontari asiko naiz ataltxo au bete bitartean aal dedanik egokiena, ta biotzez maite dedan lagun jator bat zoriontzeko asmoz.

–Nor ote da, ba, Manuel Lasartek ainbesteraíño naidion pertsona berezi ori?

–Auxe, irakurle, jakin nai badezu: Joxe Mari Rekondo, torero euskalduna ta Igeldo parteko seme ixtimagarria.

Ez ziran torero asko sortuko Euskal Errian orain artekoan, guk dakigunez beintzat. Aurrerantzean ez dakit zer jokabide artu lezakeen gazte jende berri onek.

Donostian leengo zezen-plaza kendu zuten aspalditxo; baiña bai aren ordezeko dotorea egin ere beste toki batean, erriaren serbitzurako.

Udaran, abuztuko Aste Nagusian batez ere, korrida edo zezen-pesta ederrak jartzen omen dituzte Donosti alde ortan, adibidez; eta guk geronek ere ikusten ditugu batzuetan, telebistatik irudiak erakusten dizkigutetan.

Bizitasun izugarritzko boladak izan oi dira jendearentzat, zezenak eta toreroak alkarrekin berotu ta borrokan dabiltzan garaian, naiz eta arrixkutsua dan arren bertatik bertarako ibillera ura, toreroentzat batez ere.

Artzen dituzten adarkada zorrotzak tarteka deskuido txikien truke. Baiña segi aurrera, ala ere; ta sarreak ordainduta ikustera dijoazen apizionatuak gustora utzi nai baldin baditu, izerdiz busti bearra dauka torero bakoitzak, beti edo geientsuenetan beintzat. Bestela,

ez du fama aundirik jasoko, ta diru askorik ere ez, langintza ortatik. Beraz, eginkizun estua dala sinistu genezake diogun ori.

Zezenetan ere alde dexentea billatu liteke batzuetatik besteetara, nere ustez. Ukuillutik plazara bialtzera-koan, bizkar gaiñetik beera sartzen dioten sarde ura ez da alimentu ederra izango. Zearo zoraturik bezela, korrika laukoan asten da zezen-plazaren barruan, zaldien antzera.

Nundik atera dan jakiten du gutxi gora-beera, ta aldegingo lukenean ukuillu aldera begira jartzen da; baiña, ateak itxita ikustean, etsi ta akabo.

Baztar guztiak txikitu bearrean dabillela, agertuko zaio ezkutuan zegoen toreroren bat kapa gorriarekin, eta orduantxe giro!

Gizonari ez dio gorrotorik zezenak; baiña bai, ordea, diogun kaparen gorritasunari. Begien bista lausotu ta galtzen daki nunbait tela-klase orrek, eta leenengo asieran golpe ikaragarrizkoak izan oi dira zezenak jotzen dituenak.

Baiña gerora, bere burua nekatzen dijoakiola sentitzen duen garaian, makaltzen joaten da pixkanaka. Mingaiña aotik kanpora atera ta arnasik artu eziñik gelditzen danean, toreroak laixter sartuko dio soingurutzetik beera ezpata luze zorrotza, ta kito! Egin du arenak.

Zaldi-gaiñetatik piketelari artistak ere asko mantso-tu arazten dute zezena. Puntillazo gogorren bidez, aurreko besoetako indarrak kenduta utzi.

Baiña batzuetan ixtilu txarrak erabiltzen badakite piketelariak ere. Zezenak petxu aldetik eldu ta zaldia ankaz gora botatzen baldin badu, an ibili oi dira larri zaldiaren azpitik irten eziñez.

Iñoiz ikusi ditugu orrelako kaso zelebreak, eta albo-tik begira dagoenaren gozagarri utsak une aiek juzka-

tu litezkelakoan egoten naiz ni neroni, nere ezjakintasuna gogoan dedala noski.

Baiña esaten ari naizen gertakari auetan egizko itzak billatu zenezazke, irakurle zeran adiskide jator orrek, zezenaren jokabidez jabetzen baldin bazera beintzat.

Nik pena aundi bat daukat neregan, une ontan batez ere, nai bezela idatzi aal izateko: Joxe Mari Rekondo jauna bein ere ez dedala ikusi zezenik toreatzen.

Gure gazte denboran, pertsona askok aipatzen zuten Joxe Mari Rekondo; baiña nere bizitza bi modutan mugaturik zegoen urte aietan: lana alde batetik eta bertsoaritzza bestetik. Bi opizio ez al ditu aski gizonak? Pobre bizitzeko bai, noski.

Bueno, ba, goazen aurrera poliki ta kontuz, ankasartzerik egin ez dezagun.

Nik, leenengo, Joxe Mari Rekondo torero famatu onen aita zana ezagutu nuen, eta oso onak izan ziran bion arteko artu-emanak edo tratuak. Nai dezun bezela ulertu ori; aukera denak eskuetan jartzen dizkizut.

Azkeneko aldiz, Igeldoko Pakoren sagardotegian bildu giñan, eta antxe afaldu genduen lagunarte ederrean. Gu koadrilla batek deitu ta bertsoara joanak baigeunden Uztapide zana ta biok. Eta Joxe Mari onen aita zana, nola ez zan, ba, bilduko, ain bertsozale purrukatua izanik?

Uraxe baiño pertsona jantziagoak ez ditut asko ezagutu alkarrizketarako: edukatua eta gozo utsa, nereztat beintzat.

Joxe Mari Rekondo torero izandako onek ere badu bere aitaren antza, ta nik ezagutzen ditudan bi anaietan ere badagoela esango nuke ixpiritu berdintsua. Bakoitzaren izenak ez dauzkat gogoan oraingoz; baiña bat Berastegin guri bertsoarako gaiak jartzen jarduna

zan bein baiño geiagotan; eta bestea, berriz, bere etxean lanean.

Dana dala, badira urte-mordoska, Joxe Mari Rekondo illunabar batez Oriora bixitatzera etorri zitzaidala; ta emen, Orion, Joxe Mari izeneko jatetxean afaldu genuen.

Nik poz ikaragarria artu nuen gau artan gizon atsegin ura ikusi utsez, eta berak ere bai seguru asko. Ala zirudien gure arteko giro paregabeak eta izketarako modu egokiak. Malagan bizi dan arren, euskera maite du benetan.

Segi orrela, Joxe Mari! Besarkada bat Lasartek!

El Diario Vasco, 2000-07-06.

Ijito baten konpesioa

Idazlanerako materiala ain bearrezkoa dala jakiñik, beraren billa ibiltzen gera, irakurleari zerbait berezia eman nai diogunean batez ere, ta kostatzen da aukera-koak aurkitzen, sarritan beintzat.

Leen, buruan argitasuna zegoen garaian, ez genduen idazteko astirik eta pentsamenturik eduki; ta orain, berandutu zaigunez, gauza aundirik ezin egin. Baiña lepoaren gaiñean daukagun kalabaza au ez dedi-lla egun batetik bestera azirik gabe zearo usturik gelditu. Eta or nonbait konponduko gerala derizkiot, eta goazen aurrera, gozo-gozo itzegiñez.

Atal onen gai nagusia ijito baten konpesioa izango da. Baiña ori geroxeago kontatuko det. Aurretik badaude gertakari politak, umorezkoak eta serio samarrak ere bai, irakurtzeko zaletasuna duenarentzat.

Ijitoa mendiko azariaren pare juzkatzen det nik. Biak baidute alkarren antza izugarria. Bista luzeko bitxo azkarrak dirala badakigu, oiek ezagutzera iritxi giñanak.

Leen baserrietan, gure gazte denboran, bildurrez aidean egoten zan jenderik geientsuena, etxe inguruan ijito-koadrillen bat noiz ikusiko.

Oillo zaar gizendurik kanpo librean baldin bazebi-llen, leenengo bixitan etzuten eramango, agian. Baiña bigarrengoan, seguru; ta bakarra baiño bi naiago.

Saski berriak egin eskuz dotore asko, ta aiek saltze-ko aitzakitzat arturik ibili oi ziran baserriz baserri txandaka, batzuk eskean eta besteak lapurretan, egun argitan bezela gau illunean. Betaurrekorik ez dute era-biltzen ezertarako.

Aterkiñak edo goardasolak konpontzen jarduten ziran leen. Eltze lurrezkoak ere bai, erori ta bi puska edo lau oso errez egiten baiziran; eta gure ama zanak onela esan oi zuen, bakarren batek eskutik aldegin da austen zitzaion bakoitzean:

–Orra: nere lapiko lurrezko ederra demonioak kendu zidak. Tentazio txarrak emateko asmoan egongo dek nunbait. Nik, ordea, armarioko apalean jasota jarriko diat, ijitoak etorri arte, aieri konpondu arazteko. Lastimagarria uke au alperrik galtzea. Jateko gozo pranko atera duen lapikoa izan dek, eta mereziko duela uste diat ongi tratatzea.

Alaxe, egun gutxiren barruan joango zitzaion ijito-ren bat ate joka:

–Egun on –esanez–. Bai al daukazu guretzat lanik, etxeakoandre?

–Bai. Lurrezko eltzea daukat autsita.

–Ekarri, ba, laixter osatuko dizugu ta –erantzuna.

Eltze edo lapiko lurrezkoak dotore konpontzen baze-kiten ijitoak. Gaiñetik alanbrezko lotura egin oi zioten kategorizkoa, ta iñundik ura ixurtzeko arrixkurik ez zute-la utzi gaiñera denboraldi luze samarrerako. Alperraren xixtimak dira orrelakoak, baiña egokiak era beretsuan.

Baserritar ezagun bati entzun nion pasadizo zele-brea. Beingo batez, oillo-mordoska kanpoan omen zebiltzan lur-azalean arrapatzen zituzten txixareak eta zomorroak janez, gustora noski; ta ijito atso aundi bat ikusi du oilloa arrapatu, lepoa bigurritu ta bere gona azpian gordetzen etxeke mutil koskorrrak; eta korrika joan da esan dio aitari ijito atsoak zer egin duen.

–Ori ere libre al da? Laixter jakingo diagu egia edo gezurra dan.

Irten etxeke ukuilluko atetik disimuloan, eta an dijoakio aita ijito atsoari kargu artzera. Esan dio:

–Nun gorde den gure oilloa?

Bai zera! Asma-aalak mingaiñez zituela, bera arroago:

-Nik ez diat zuen oillorik artu!

-Ez, e?

Eldu besoetatik gogor eta jo du ipurdian ostikoz atsoa; ta, blast!, oilloa gona azpitik lurrera.

-Ik ez denala oillorik arrapatu? Emen erorrek egiten al ditun, ba, oilloak edo zer den ori?

Ixil arraio aldegiña izan bear zuen etxe inguru artatik bere lagunetara, atzera begiratzeko astirik gabe, presaka.

Baserritar jator arek, diodan gertakari au ez dakit nun kontatu zuen; baiña, nere belarrietara iritxi zanean, gustora entzun nuela ez daukat ukatzerik sekulan.

Gozo-usai ederra egongo zala uste det ijito-atso zaar aren ondoan, ipurdiko miñez zegoen bitartean, batez ere.

Kasta gaiztoko etorkin bildurgarritzat eduki oi zuten jende-klase ori gure aurreko baserritar geientsuenak, zerbaiten motiboz, noski. Baiña den-denak berdin ezin genezazke juzkatu. Oietan ere egongo baita aldea bartzuetatik bestetara. Batere dudarik ez nuke jarriko ortan.

Emen dijoakizu argibide bat, irakurle, konturatu zaitezen, leendik ez badakizu beintzat: ijito baten konpesio zelebrea, ataltxo onen asieratik bereala geroxeago idaztekotan utzi dedana. Oraintxe bukatuko det.

Beingo batez, ijito nagusi edo buru samar egiten zuen gizonezkoren bat joan da elizara konpesatzeko asmoz, eta urreratu ere bai konpesatu bear zan tokira. Baiña jende-mordoska ikusita, galdetu zion an zegonetako bati:

-Zuek denok zai al zaudete?

-Bai, emen txanda zaindu bear izaten da ta. Zuri azkena tokatzen zaizu, baiña laixter pasako gaitu.

-Ederki! -esanda, exeri da ijitoa, ta uste baiño leen bere garaia iritxi; ta joan da apaizarengana, asi dira batek galdetu ta besteak erantzun, egin dute konpesio-lana, ta bukaeran esaten du apaizak:

-Gora Jesus!

Baita ijitoak ere:

-Gora Jesus!

Apaizak berriro:

-Beera etsaiak!

-Ez! Ori ez! Gero ez dakit nork lagunduko didan, eta nik denekin ongi nai det -ijitoaren erantzuna.

El Diario Vasco, 2000-07-06.

Nere sorterrria ezin nezake aaztu

Nundik eta nola bialdu nezaizkioke leitzatar famili bakoitzari goraintziak Plazaola errebistaren bidez? Au artzen ez dutenak oso gutxi egongo baitira Leitzan, zorionez.

Beraz, jakin dezatela Manuel Lasarte zaarra sekulan, edo bizirik dagoen bitartean, ezin leikela aaztu Leitzako erri politez eta Franki baserriz. Antxe ekarri ninduten mundu ontara nere gurasoak, eta azi ere bai, aal zuten modurik egokienean.

Ni nintzan senideetan gazteena, ta mimatuena, dudarik gabe, amaren magalean. Aurtzaroko urte zoragarri aiek gozo pasatzeko suertea izan nuenetako bat, eta aitaren aotik arrazoi txarrik jaso ez nuena bein ere. Orixe da neri gurasoak eman zidaten tratamentu maitasuntsua.

Nik Leitzan udaletxeko balkoitik leenengo bertso-saioa egin nuenean, emezortzi urte nituen. Baiña ango jendeak ez zion begiratzen neukan adiñari. Erriko seme bat bertsolaria izateak poztu zituen ainbesteraíño, ta jan bearrean erabili ninduten, denak musuka, esate baterako. Alaxe egun osoa, ta gaua bertan pasa lasai.

Biaramon-goizean etorri nintzan Aiara, bezperan nerekin eraman nuen bizikleta baldar baten gaiñean, lore tartean erlea ibili oi dan bezin kontentu, egizko aitormena egin bear baldin badet.

Gure aita zana zai neukan Aian. Bere etxean ikusi ninduen orduko, onela galdetu zidan:

–Etorri al aiz, ba, Manuel? Zer berri zegok Leitzan? Jendea gustora utzi al dek? Edo nola portatu aiz?

-Nik nere lanak bete ditut, ustez beintzat, aita, eta iñor ez dedala triste egoteko moduko bidera sartu arazi ere badakit. Ango zaar batzuekin itzegin nuen atzo, ta aiek zutaz gogoratzen dira, gizonezkoak beintzat. Eta emakumezkoak, berriz, ama zer modutan dabillen galdetzen zidatenez, biontzat goraintzi ugari ta maitasuntsuak ekarri dizkizutet Leitzako zuen ezagun zaarren partetik. Gutxi iduritzen al zaizu, ama?

Ori galdetu nionean:

-Ez, seme. Ez dek ori gutxi.

Erantzun auxe eman zidan gure ama zanak, eta begiak negar-malkoz busti zitzaizkion pozaren bidez. Biotza ukitu nunbait. Eta aita zanari ere gauza berbera gertatu zitzaion.

Gu aurreko zaarretatik baigera leitzatar benetakoak, adibidez; eta nola ez gogoratu norbera jaio zan erriz?

Emen bakoitzak bere lurra ixtimatzen duela leenengo agirian dago, ta zaartzera geiago gaiñera, gartzetan baiño. Pertsonaren izakera orrelaxe juzkatzen det nik nere ezjakiñean, eta kito.

Bi millagarren urteko Aste Santuko jaietan lau neskatxa gazte eta beste lau mutil Orioko kanpiñean egonak omen dira egunen batzuetan, denbora pasa etorritan, noski, ta denak Leitzako seme-alabak.

Orion bada ostatu sonatu bat guk asko tratatu izan deguna: Loretxu jatetxea, ain zuzen ere. Ni sarritan bertan egoten naizenez, illunabar batez bixita zoriontsua egin zidaten.

Ostatuan barrura sartu orduko, onela asi zitzaizkidan izketan:

-Kaixo, Lasarte! Ongi al zera? Gu ez gaituzu ezagutuko zuk; baiña guk bai, ordea, zu.

-Kontxo! Nungotarrak zerate, ba? -galdetu nioten.

-Leitzakoak -erantzun zidan beraietako batek.

Ortik ekin genion alkarrizketa goxoari. Esker beroak merezi dituzte orrela portatzen diran gazte leialak. Nik asko ixtimatu nioten borondate on ura ta erakutsi zuten umiltasun paregabea. Ortaz jabetu nintzan geienbat. Gerorako zer pentsatua ematen du benetako konfiantzak.

Leitzatarrak ugari antzean eta maiz ikusten ditut Orio alde ontan, udara partean batez ere; ta artzen dedan poza nolakoa dan esprikatu aal izateko ez det aukerako itzik billatzen.

Ametsetan ere, Leitza gogoan eta begien bixtan. Sarritan beintzat au da neri gertatzen zaidana.

Ez Orion gaizki bizi naizelako. Ementxe daukat nere familia, laguntza bear dedanean ukatuko ez didana. Baiña nere sorterrria ezin nezake aaztu.

Beraz, agur, leitzatarrak! Pake ederrean eta zoriontsu pasa denok erriko pestak!

Nun-nai dauzkat lagunak
ta adiskideak,
orrek ematen dizkit
neri izpideak.
Aurten Leitzara joateko
banitun ideak,
erri artan baidaude
gure senideak.

San Tiburtzio pestak
Leitzan ditugunez,
denak agurtzen ditut
nik biotz bigunez.
Atek jarriko lirake
kopeta illunez,
nik egingo banuke
agindu ta jun ez.

Leitza, Anuario Municipal, 2000.



Ion Lopategi, bertsolaria. 1989.12.17.
El Diario Vasco: Usoz.

Ion Lopategi

Gaurko nere ataltxo au osatuko aal izateko, Bizkai Galdera joko det nik, maite dedan lagun zaar bat gaitzat arturik.

Leendik zorretan nengoen berarekin, eta ea ordaintzen diodan kezka ematen didan zor ori noizbait. Ortarako bein ere ez omen da berandu, aspaldiko esaerak dionez; eta iritxi da garaia, alako egun berezi batez, nere onginaia agertzeko ta lasaitasun osoan geratzeko.

Nor ote da, bada, Lasarteren lagun aipagarria? Berealaxe jakingo dezu, irakurle zaitugun euskaldun jatorra zeran orrek: Ion Lopategi bertsolariari buruz ari naiz idazten.

1999-ko abenduaren 6-garren egunez omenaldi eder zoragarri bat antolatu zuten Durangon Ion Lopategirentzat, ongi merezitakoa gaiñera, nere ustez. Gizon onek asko lagundu diola bertsolaritzari dudarik ez dago.

Bizkaian ez dakit zenbat erritan ibiliko zan, ikastoletan gaztetxoeri bertsotan erakusten; baiña lan aberatsa egin duelakoan nago. Diodan kargu ori artu omen zuen gure Lopategi ospetsuak, eta bai erantzun ona eman ere, itxurak diranez.

Leen, gure gazte denboran, bertsolari kontatu errezak ziran Bizkaian; eta oraingoz, berriz, basoetan perretxikoak bezin ugari daude. Orrek erakusten du garbiro maixu jator baten lezio bikaiñez jantzi dirala Bizkai aldeko bertsolari gazteak.

Amazazpi urtetan eduki omen du eginkizun ori bere gain Ion Lopategik. Ez da txantxetan artzeko moduko nekea erabili duena. Baiña erriaren esker ona ere Durangon jaso duela badakigu, omenaldi gozo baten

bidez, zaartzaroko erretiroarekin batera. Beraz, egon liteke gustora ta lasai.

Neri egun batzuk aurretik deitu zidaten jai-eratzailleak, zer asmo zeukaten eta ea Durangoraiño joateko moduan aal nengoen, Lopategi bertsolariaren omenaldira.

Baiezko erantzuna eman nioten. Nola ez, Lopategi Lasarteren omenaldi prankotan kantatutako gizona izanik?

Alaxe joan nintzan, eta ango jendetza ugari ta pres-tu ura ikusteak poztu ninduen benetan. Baiña pena ere sentitzen nuela ez det gordean edukiko. Esan nion Ion Lopategi berari:

–Nik gaur ik merezi bezelako bertso bat edo bi gustora kantatuko nizkian, gauza izan baldin banintz. Baiña katarro txar baten bidez eztarria itxi samarturik zeukat, eta barkatu bearko didak beingoarengatik.

Ori esan nion orduko:

–Bai, Lasarte. Barkatua zegok dena. Guk i emen ikustea nai genian. Etorri aiz eta asko ixtimatu diagu –erantzun leial au jaso nuen Ion Lopategiren aotik.

Oso kontentu billatu nuen gure bertsolari bizkaitar jatorra, eta ez det pentsatzen gutxiagotarako zanik, egun artako jendearen pozezko batasunez konturatzen bagera.

Lopategi zaarra ez daukate saltzeko bizkaitar bere lagunak. Ez orixe! Gizon eskolatua, asko ikasia eta ongi jantzia da. Karrera ere badu ta orrekin dena esana dagoela uste det.

Gu alkarrekin kantari erriz erri asko ibiliak gera, ta neretzat oso gustoko laguna izan da Lopategi. Berrieketa bigurri gutxikoa ta bertsolari osatua; buruz argia eta talentu aundikoa; plaza-gizon serioa, gaiñera, era berean; jendearen aurrean errespetoz ibiltzen jakin duena, nere iritziz beintzat.

Eta orixe da gauzarik garrantzitsuenetako bat: leenengo, erria errespetatu bear du bertsolariak legez, gero erriak bera errespetatzea nai baldin badu.

Ion Lopategik jokabide ori erabili duela badakit, nere ondoan bertsoan jardun danetan, naiz eta beste bertsolari batzuekin moldez aldatzen ikusi dedan arren.

Entzule batzuk bertsoaz beraien gustoko gauzak esatea nai izaten dutela ere egia da, ta den-denekin asmatzea zailla. Garai batean, Lopategik eta Azpillagak bikote dotorea osatu oi zuten, politika naastuko gaietan batez ere.

Baiña guk, Uztapide zanak eta nik, Lasartek, ez genioten laguntzen saltsa ortan. Ez baigiñan sartzen, ezer gutxi ulertzen genduenez. Eta, ortik aparte, erriak ez zigun eskatu ere egiten. Guretzat bestelako gaiak obeak zirala jakiñaren gaiñean baizeuden jaialdiak antolatzen zituzten geientsuenak.

Baiña bertso-kontu ortan ez dira esaera denak aintzat artu bear. Pesta-giroan umorea nai izaten baitu entzuten dagoen jendeak, eta pentsamentu txarrik gabe ta iñori gaitzik opa ez diola, sanidade osoan kantatzen duela esango nuke bertsolariak. Nere ulertzeko moduz diot au, ta eskarmentuz janzteko aiña gorabeera ikusita nago gai ortan.

Egun batez onela zion, gure bertso-saioa entzun ondoren, zaletasun izugarritz jarraitzen zigun lagun jator batek:

–Zenbat gezur asmatu ote dezute gaur ere, Lasarte?

–Galdera orrentzat badet erantzun egokia. Zuri kalterik egingo dizun gezurrik entzun al diguzu? –esan nion.

–Ez, Lasarte. Parrez gozatu arazi gaituzute ederki, ta gustoko bertso-saio bat entzun degula aitortzen dizut benetan.

Auxe erantzun zidan gure gure lagun ixtimagarri arek.

Beraz, Ion Lopategirengana itzuli nadin. Durangon bezela, beste erri askotan ere aipamen aundiko bertsolari trebea izan da diodan gizon au.

Neri ez dit sekulan gaitzik egin, eta nik ere ez bera-ri, nere ustez beintzat. Agur eta nai dezun arte, Lopa-tegi! Besarkada bat!

El Diario Vasco, 2000-08-06.



Jose Mari Salsamendi, pelotaria. 1991.09.01.
El Diario Vasco: Juanjo Agyüés.

Joxe Mari Salsamendi

Joxe Mari Salsamendi datorrit gogora zerbait idatzi bear dedan une ontan. 1925-garren urteko urrillaren 8-an Orion jaio zan, ain zuzen, diodan seme pizkor au; eta, artean oso gazte zalarik, bere aita Bixente aolkulari zuela, asi omen zan pelotan ikasten, erremontean.

Ori gustatuko zitzaion geiena; baiña palaz eta eskuz ere jardun izan bear zuen entrenatzen tarteka. Ez dakit aipatu ditudan bi auetan iñoiz partidu inportanterik jokatua dan edo ez.

Erremontean egin ditu lan ikaragarriak. Ala aitor-tzen dute bere berri dakitenak.

Salsamendi III izenez agertzen da pelotarien istorian gizon ospetsu au, Enrike Abril-ek bere Dos siglos de pelota vasca liburuan esaten duen bezela. Goreneko maillakotzat juzkatzen du; Joxe Mari Irigoien eta Abregoren parekoa, beraz.

Punta-puntako pelotaria izan da Joxe Mari Salsamendi oriotarra. Komeniko dala derizkiot, eta aaleginduko naiz, bere garaiko emaitza batzuk argitaratzen.

Donostiako Urumea pelotalekuan debutatu zuela dio liburuak, 1942-ko urrillaren 26-an. Berez pelotarako doai bereziak izanik, berealaxe igo omen zan onenen parera.

Gorputz bikaiña bezin egokia eta indarrez ongi ornitua. Sakean zorrotza ta gogorra. Errestoan, berriz, errebotera zijoazen pelotak jasotzen artista amorratua, noski. Ortan zeukan, batez ere, erreztasun aparta.

Askoren iritziz, kontrarioak pelota jotzeko besoa luzatu orduko artzen omen zuen frontoian tokia ari erantzuteko, pauso baten okerrik gabe adibidez,

geientsuenetan beintzat, beti asmatzen etzan errez izango baiña.

Ikusten degunez, ez dira nolanaiko baldintzak Salsamendik bere baitan zeuzkanak. Itzez adierazi eziñezkoak.

1943-ko iraillaren 10-ean, Unzue garai artako pelotaririk onenetakoaren aurka bakarkako neurketa jarri omen zioten, eta errez irabazi. Amazazpi urte besterik etzituen artean Salsamendik.

Urrengo urtean berriro, 1944-an, ofizialki leenengo aldiz antolatu zuten erremonte pelotan bakarkako leiaketa, eta sei pelotari onenak aukeraturik taldea osatzeko.

Au Iruñeko Euskal Jai, Madrilko Recoletos eta Donostiako Urumea frontoietako pelotaririk aundienak parte artzen zutelarik. Baiña ala ta guztiz ere garaile irten omen zan denen gaiñetik Joxe Mari Salsamendi.

Andik laixter, Abrego sonatuari eman bear izan zion aurpegi Joxe Marik emezortzi urterekin. Norgeiagoka au 1944-ko iraillaren 28-an jokatua zan Donostiako Urumea frontoian, eta Abrego nagusitu. Baiña galtzak bete lan erabilia, iru tantoren alde bakarrik kendu gazteari. Ortik pentsatu leike zer estuasun pasako zituen Abregok ere.

Urrengo urtean. 1945-ean, beste leiaketa bat irabazi zuen Joxe Mari Salsamendik Urumean bertan, Iri-goien II lagun zuela, bi-bitara.

1954-garren urtean, berriro Iruña, Donosti ta Madrilko pelotariz osatutako talde batean ere irabazle izana da, noski; ta gero beste torneo batean artzen du parte, Unzuek laguntzen diola, binakako partiduan jakiña, eta au ere irabazi.

Orrela, 1967-an pelotan jokatzeari utzi zion gure Joxe Marik, ogei ta bost urte goreneko maillan pasa ondoren. Badala uste det zerbait.

Ortik aparte, bere gizatasuna, bai frontoi barruan naiz lagunartean edo kalean, oso ezaguna izan dala daukat entzuer. Argatik eskuratuko zituen ainbat sari eder, guztiz aipagarri diranak.

Domina bat Junta Provincial de Educación Física y Deportes de Madrid-engandik, 1967-ko otsaillaren 26-an.

Zillarrezko domina, bestea, bere kirol merezimentuengatik Delegación Nacional de Educación Física y Deportes-engandik, 1968-garren urtean.

Placa al Caballero del Deporte, Naparroako kirol ordezkartzak 1970-ean eman ziona.

Ara zenbat opari jaso dituen bere lanaren merituz. Auek erakusten digute garbiro Joxe Mari Salsamendiren aunditasuna. Eta aukera onik jarri izan balitzaio, askoz geiago bereganatuko zituelakoan nago. Baiña garai artan neurketak gutxitan antolatzen, ordea.

Gaur egun erretiraturik dagoela uste det. Baiña pelotarako sasoi betean zegoen bitartean, Madrillen pasa omen zituen urte mordoska jokatz. Antxe ibiliko zan frontoi batetik bestera, bere soldata irabazi naiean, aspertu arte. Madril aldean zenbat pelotalekutan jokatuko zuen ez dakit; baiña bere bizitzaren zati aundi bat an emana dala bai.

Noizean bein bixitak egiten zizkigun alde ontara, Oriora alegia, libre antzean aurkitzean edo denbora zeukanetan.

Umetatik, beste askoren gisara, kanturako apizio izugarria sentitzen omen zuen; eta Orion, parroko organista Santiago zanaren aldemenean asi zan adibidez ikasten poliki-poliki, sei urte zeuzkanerako. Beraz, garaiz esnatu zitzaigun gure Joxe Mari, ta bere balorea ongi erakutsi gaiñera.

Oraindik ez du galdu kanturako griñik eta musikaren zaletasunik. Denetan gustokoena orixe duala aitor-

tu zidan beingo batez, kontu kontari biok ari giñala, ta nik sinistu nion. Pertsona bakoitzaren izakera orrelaxe baita.

Dana dala, leengo bidera itzuliko naiz berriro ere. Madriltik, pelota eta bestelako eginkizunak utzita Oriora etorri zan garai berean, Galarreta pelotalekuan billatu zuen lanerako toki egokia.

Seguru esateko moduan ez nago, baiña or pasa dituela uste det ogei ta bost edo sei urte, zerbaiten kargu garrantzitsua bere gain artuta; eta gero erretiroarekin batera omenaldia egin zioten gaiñera, eskerrak emateko, Joxe Mari Salsamendi pelotari aundia izandakoari.

1995-garren urteko kontuak dira esaten ari naizen auek, gutxi gora-bera. Baiña ezeren okerrik balego, barkatu mesedez.

Madril aldean etzan gaizki ibiliko, an bertan jarraitu nai izan balu ere. Baiña iñoiz ezin aaztu, ordea, Orioko erriaz, bere gurasoez, jaiotako lurrez eta beste ainbat gauzataz. Ortik aparte, berriz, gazte denborako lagunak ere gogoratuko zitzaizkion seguru asko, ta azkenean onuntza etortzea erabakiko zuela pentsatzen det nik, arritzekoa ez danez; eta geroztik emen ikusten degu gizon apala bezin jatorra, bere emaztearekin.

Seme bat ekarri zuten mundura, eta ura ere ezkondu ta familia azitzen ari omen da. Etzait batere gaizki iduritzen.

Dana dala, urte askotan zoriontsu bizi ditezela, maitasunik beroenean alkaturik. Orixe opa diotet benetan.

Joxe Marik ez du ostatu bazterretan traba aundirik emango. Zintzo amorratua da nere ustez gizon ori. Osasuna ongi zaintzen duena, alegia.

Eguneroko martxari zuzen jarraitzen diona. Goizetik, oetik jeiki ondoren, ez dakit baraurik edo gosaldurik

ta, baiña kanpoko aize sana artzea gustatzen zaio. Izugarritzko zira jantzita ibiltzen da, izerdiz bustirik.

Sarritan ikusi det nik itxas aldera dijoala, edo andik buelta eginda etxera datorrela. Mendian ere pozik paseatzen omen du. Ortarako aukera ederra dauka Orion, iñun izatekotan. Txakur txiki bat erabiltzen du lagungarri bezela, atzetik segika.

Arrantzarako apiziorik ez dakit iñoiz izan duen Joxe Mari. Agian baliteke, nik jakin ez arren. Kaiñaz asko ibiltzen baitira Orioko errio zabalean.

Janarrietan gustokoenak arrai freskoa eta berdura dituela esan zidan berak orain aurreko egun batean. Ez det uste deskuido aundirik eduki lezakenik gai ortan.

Barazki onak batetik alimentu izugarria duela badakigu; eta beste aldetik, berriz, ao sapaia gozatzen daki dotore asko. Eta arraia ere gauza zoragarria da pertsonaren osasunerako, guk sarritan merezi duen ixtimaziorik ematen ez badiogu ere. Jokoan dabiltzan plazagizonak maite dituzte arraia eta berdura.

Dana dala, ontaratu naizen ezkerro, beste au ere adierazi nai nuke. Sukaldaritzan ongi moldatzen dala Joxe Mari Salsamendi. Aspaldiko kontua da, baiña nik gogoan daukat egun batez nolako bazkaria prestatu zigun koadrillan edo lagunartean jateko.

Leenengo, legatza xaltxan jarrita, ezta bezin gozoa; eta gero oillasko errea. Baiña nolakoa ordea! Batere gogorik gabe jateko modukoa. Zoragarri utsa. Beatz muturrak ederki txupatu genituen. Nik galdetu nion:

-Zuk sukaldaritzan nun ikasi dezu, Joxe Mari?

-Nik Madrillen pixka bat -erantzun zidan, arrokeri askorik eta zalapartarik ez duen pelotari ospetsu onek.

El Diario Vasco, 2000-08-09.



Arria II, Mikel Mindegia eta Arria III aizkolariak.

Arria II eta III

Arria bigarrena eta irugarrenarengana pasako naiz Oraingo. Aizkolari aukera izugarria ezagutu genduen leen, bolada batean, Gipuzkoan eta Nafarroan batez ere.

Azpeitin bertan Arritar bi anai batera ortxe ikusten ziran plazarik plaza zebiltzala sasoi ikaragarrian. Baiña, bat izentatzekotan, Arria bigarrena aurreko puntan jartzen zuen jendeak, irugarrenari ezer kendu gabe, noski.

Izan ere, ain zan egokia ta dotorea, Gaiñetik begira egoteko, zoragarri utsa. Zenbat erritako pestetan jarduna ote da aizkoran, urte mordoan gaiñera, Arria bigarrena? Gorputzez ongi osatutako gizona izan da langintza ortarako; luzea, zabala ta lerdena bezin txukuna. Pixu aundikoa ere bai. Denetatik ornitua beetik goraiño.

Egurrari azalak laixter urratzen zizkion, ezpal mardulak kenduz. Berari zegokion lan klasean etzan aren ondoan giro izaten.

Bueno, geroxeago jarraituko diogu gai oni, ta ekin dezaiodan eguneroko martxari.

Arria bigarrenak andrea Errezilkoa omen du, ta an bizi dala uste det bere familiarekin, baserri eder batean. Ez dakit zenbat seme-alaba dituzten.

Dana dala, basoetan garbiketak egin da piñu landare berria sartu, ortan sarritan jarduten omen zan leen. Oraingo ez dakit zertara jotzen duen.

Baiña ez da zearo geldirik egongo. Langille izugarria izan bear du Arria bigarrenak, ugarria eta egokia, nik entzuera dedanez beintzat.

Nere adiskide batekin aspalditxo itzegin nuen bein gai auetaz. Ura ere baso lanetan ibili oi zan beti, ta onela zion:

-Ez dek nere ondoan sekulan iñor jarri Arria baiño langille ederragorik. Indartsua ta librea orixe ikusten diat. Sasoia ere alamoduzkoa zeukak, baiña berezko aalmena dik mutil orrek, neurririk gabekoa. Piñu landarea lurrean aldatzen ari danean, ikusgarri utsa dek; eta beste edozertan igoal. Mendi saillak bere kontura artuta, or zebillek aztarrika, batean bezela bestean.

Ez da jokabide txarra gorputza zailtzeko, ori orrela baldin bazan. Emen saiatuta eskuratu leike zerbait. Alperrik egonda, ezer ez.

Aizkoran ere oso gazterik asi zitzaigun Arria bigarrena apustuak jokatzten, txapelketan eta abar. Ez dakit zenbatetan artuko zuen parte. Berarengana joango baldin banintz, jakingo nuen. Baiña iñor endredatzerik etzait gustatzen batere. Ta ortik aparte, berriz, ibilirako oso gogo gutxi daukadanez, ezin nezake argibide zeatzik eman iñolako moduz.

Baiña, ala ta guztiz ere, auxe esango nuke: Euskal Errian ez-ezik, estranjeri aldera joan zanetan ere erakutsi zuela goi-maillako aizkolaria zala Jose Inazio Orbegozo Arria bigarrenak.

Australian txapeldun gelditu omen zitzaigun, nik entzun nuenez. Ameriketn da lurralde aietan ere bueltaka ibilia zan beste lagun batzuekin batera. Baiña ango albisterik ez det, iñori eman aal izateko.

Australiatar aizkolaria, leenengo aldiz Euskal Errira etorri ziranean, uste gabeko ziria sartu zioten emen bertako aizkolarieri.

Donostiako Belodromoan izan zan diodan txapelketa famoso ura. Arria bigarrena, Mindegia ta Astibiak jokatu zuten beste iru australianoren aurka. Talde bakoitzak ogei ta zazpi enbor ebaki bear zituen guztira,

neurri desberdiñetakoak, batzuk etzanda jarriak eta besteak zutik, bi eratara.

Ni ere antxe nintzan Donostian egun artan, munduko aizkolaririk onenak australiatarrak omen ziran zabaldua zegoen otsa alde auetan ere ta.

Zutik jarritako enborretan erakutsi ziguten beraien maixutasuna. Oianetan egingo zuten lana egunero seguru asko, ta zugaitzak ipurditik ebakitzen oituak zeuden itxura zeukaten beintzat. Ortaz konturatu zan emengo jendea.

Baiña etzanda jarritako egurretan etzeukaten aparteko arterik, noski. Narrats antzean ebakitzen baizituzten.

Erremintak oso onak zeuzkatela ezagun zuten. Emengo aizkorak baiño askoz obeak.

Laixter ikusi genituen ondoren artan Australiako aizkorak Euskal Erriko aizkolarien eskuetan, eta andik aurrera kontuak.

Urrengo txapelketa nagusia Donostian jokatu zanean ere, antxe giñan Atotxako futbol zelaian.

Ordurako, zutikako egur ebakitzea menperatua zeukaten euskaldun aizkolariak. Garbiro antzematen zitzaioten, eta azkenean garaile irten zitzaizkigun gainera.

Baiña ez saiatu gabe. Besteak ere begiak argi ta zorroztasun latza ekarri zituzten. Australianoak talde ona, ta Kanadatarrak ere or izan bear zuten, nik oker ez banago. Ez dakit beste iñungorik bazan edo ez. Nik baiño obeki idatzita eduki lezazke onezkero norbaitek gauza auek, ain garrantzitsuak diranez.

Dana dala, diodan txapelketa au 1976-garren urtean ospatu zala uste det, udazken aldean edo orrelatsu, gutxi gora-bera. Nik egunik ez det izentatzen, segurantzirik ez dedalako, bada ez bada ere; eta illik ain gutxi, naasketarik sortu ez dedin.

Garai artan Euskal Errian aizkolari aukera izugarria gendukala ezin genezake ukatu. Asko ta onak gaiñera.

Arria bigarrena zenbat bider txapeldun izana dan ez dakit. Lastima! Baiña aizkoran eder aparta zan, jendearen iritziz; eta orrek zerbait adierazten du, noski.

Beste anaia ere aizkolari bikaiña zala esaten zuten; Arria irugarrena, alegia. Txapelketan iñoiz parte artu zuela badakigu, ta bestela apustu batzuetan ere bai.

Beingo batez gogoratzen naiz Joxe Mari Mendizabalen aurka nola jokatu zuen; eta, estuasun latzak pasa ondoren, berak irabazi gaiñera, juxtu-juxtuan. Apustu neurtua izan omen zan.

Berez mutil aundia, ta ongi prestatu ezkerorrixkutsua, adibidez.

Nik neronek gutxitan ikusi nuen Arria irugarrena aizkoran, udaran pesta egunetan erriren batzuetan izan ezik. Ibili ere etzan egingo bere anaia ainbeste. Nik ortan ez nuke dudarik jarriko.

El Diario Vasco, 2000-08-11.

Beste aizkolari batzuk

Emen apizio izugarria izan du jendeak kirol klase ortan. Danen izenak ematen oso zailla da. Guk eza-gutu gabeak asko baidira, gaztetan apusturen bat jokatu, ura galdu ta betirako erretiratuak ere, agian, laguntzea merezi zutenak.

Baiña norberak gogorik ez baldin badu jarraitzeko, alperrik dira iñork emandako aolku guztiak, eta pake-an utzi ta obe, nai duen modura bizi dedin, eskubide osoa daukanez.

Or Naparroan bazan Antonio Arretxea, Sunbillata-rra, oker ez banabil, Polipaso, Berakoetxea ta oiekin batera txapelketan ibilia. Bestelako apusturik ez dakit iñoiz jokatuko zuen emen, Gipuzkoan, nik entzun ez arren baliteke ta. Naparroako berririk ere ezin nezake eman. Baiña ikusi zutenak aizkolari dotore amorratua-ren faman jarrita zeukatela gogoan det.

Beste bat, Ugarteburu. Au askorentzat da ezaguna. Mutil txikia gorputzez. Orixe izan du bere utsunea. Gaiñontzean, ezer etzitzaion falta. Burutik anketaraiño dana aizkolari osatua. Bizia, egokia ta jotzaille purrukatua. Gizon aundiak ere estu artzen bazekien bolara-tan, oso lan luzea ez bazan beintzat. Askori gustatzen zitzaioten gure Ugartebururen gatza ta trebetasuna.

Zeberio ere mutil gogorra omen zan, esaten zutenez. Nik bein bakarrik ikusi nuen aizkoran jokatzeko; eta bertan, Donostian, txapelketan ote zan daukat buruan.

Etxebeste, Ugarteburu ta oiek ere Trinidadeko plaza apizionatuen neurketan edo txapelketa batean eza-gutu nituen, artean oso gazteak zirala. Baiña ordurako bazebiltzan aizkoran.

Sarritan gu konturatzeko, gauzak zartuak izan oi dira, joko gizonengandik urruti bizitu baigera.

Agitek ere bere leenengo apustua Azpeitiko zezen plazan jokatu zuela uste det, erritar baten aurka. Biak auzokoak edo alkarren urrekoak beintzat.

Asieratik bestea aurreratu zitzaion, baiña azkenerako Agite nagusitu.

Guk Errezillen gendukan kantatu bearra, ta eguerdiko bertso saioa egin da Azpeitira joan giñan Joxe Agirre ta biok, zalako apustu sonatu ura ikustera.

Agite aizkoran txukuna izan dala esan bearrik ez legoke, noski. Lastima da: onen kontrarioaren izenik etzait gogoratzen idazteko.

Baiña aipatu ditudan auetan aizkolari txarrik alerik etzan izango, onak eta obeak baizik; eta geienak base-rritarrak edo baso lanetan oituak gaztetandik. Zailduak, alegia.

Usategieta ere gaztetan arri jasotzen ibili zan. Gero, opizioz aldatuta, aizkorari eldu ta ongi erantzun artu zuen lanari, askoren iritiziz.

Aierbi, Arbeldi, Juanarena ta auek guztiak aizkolari onak omen ziran. Txapelketetan aundien saillean jokatzeko ez du nolanaikoa bearko noski.

Beste bat, Zeanuriko Txatoa deitzen ziotena. Au ezagutu genduen.

Baiña une ontan aaztuta uzten ditudanak barka dezaidatela. Gaur modan dauden aizkolariak, berriz, badakizute nortzuk diran. Oien lanak ederki asko jasoko dituzte ortan dabiltzan gizonak.

El Diario Vasco, 2000-08-12.

Baleztena

Nor ote da, ba, beste ori? Baleztena. Naparroako Zubietan jaioko zan, eta bizi ere bai, noski. Aizkolari ederra.

An jarraituko duelakoan nago. Illa danik ez diot iñori entzun beintzat.

Gizon indartsua ta jotzaille gogorra. Gartziarena ta oien adin modukoa edo pixka bat zaarxeagoa, seguru asko.

Uztapide zana ta biok Zubietara bertako pestetan urte batzuetan joan giñan bertsoara, ta Baleztena aizkolaria zegoen erriko alkate garai artan. Seriotasuna ta errespeto aundia nabaitzen genizkion berari.

Bertsozale purrukatua izanik, arretaz entzuten zizkigun kantatzen genituenak, eta guk uraxe nai.

Lagunartean etzuen zalaparta bigurri asko aterako arek, nere ustez. Izlari neurrikoa ta apalaren antza zeukan, begiratu batean beintzat.

Emen, Gipuzkoa aldean, apustuak jokatua zan. Zenbateraiño ezin nezake esan, ez dakit eta. Baiña oso fama ona eduki zuen.

Gaiñera, askok aipatzen zuten Baleztena aizkolari modura, zerbaitengatik, noski. Ori ezer egin gabe ez du bereganatzen gizonak.

Orduko aizkolariak gaurkoak bezela etziran prestatzen. Etzekiten nola gobernatu. Aragiz ta arraultzez leporaiño bete ta edaria gutxi erabiltzen zutenez, egarritz penatzen ziran geienbat.

Ura txarra zala-ta ardoa ere neurri juxtuan ematen zitzaioten mutilleri; eta gero barru denak egosi edo irakinda gelditzen, ordea.

Ala suprituz zailla da gizona indartzen. Freskura geiago eskatzen du gorputzak.

Orain, gauza oietan oarturik daudenez, fruta eta berdura ugari antzean jaten omen dute kirolariak, eta jinasian galanki ibili, eta entrenatzen ere bai, noski, guk entzuten degunez.

Denak izango dira bearrezkoak, dirudienez.

El Diario Vasco, 2000-08-16.



Paulo Zuriarrain "Ernani Txikia" bertsolaria.

Paulo Zuriarrain, "Ernani Txikia"

Gaurko atal onen betegarritzat aspaldiko lagun zaa-
rretako bat aukeratu det, irakurle. Ez dakit zure
gustorik egingo dedan, baiña aaleginduko naiz, urte
mordoska aundia publikoaren bistan agertu gabe da-
raman txori onen berri ematen. Paulo Zuriarrain du
bere jatorrizko izena, baiña Ernani Txikia esanda erre-
zago ulertuko dute geientsuenak, nere ustez.

Bertsolaritza oso maitea izan du diodan gizon alai ta
xume onek. Ni berarekin kantari erri batzuetan jardun
nintzan, bertsoan asi berrian edo artean oso gaztea
izanik beintzat; eta ortik dakit nolatsu moldatzen zan
gure opizioan.

Astigarragan zapateria edukitzen zuen garai aietan.
Erdi autsitako zapata zaartuak ederki konpontzen omen
zituen, eta berri dotoreak egin ere bai, noski, pertsona
bakoitzari zegokion bezela.

Oiñetan neurriak artu leenengo, ta gero eskuz egin
nai ziran bezelakoak, eta dendetan erosita baiño kontu
obea zala eskuz eraginda esan oi zuen orduko jendeak;
askoz ere gogoragoak zirala eskuz moldatutako zapa-
tak iraupenerako, alegia.

Mendian baso-lanean ari zan mutil edo gizonik ez zan
dendara joango bota berrien billa deskuidatuta ere, zapa-
teroarengana baizik enkargatzera, ta presaka gaiñera.

Baiña gero zer gertatu zan? Gomazko bota luzeak,
belaun azpietaraiño irixten ziranak, sortu egun batetik
bestera zapateroen kaltegarri; ta andik aurrera baso-
-gizonak ere aietaz jabetu, jakiña.

Mendiko lanetan lokatza, ura, elurra, beti ez bada
ere, geientsuenetan gaiñezka izaten baidira, busti-urte-

an batez ere; ta oiñak legor antzean erabiltzeak asko balio lezakela dudarik ez dago gorputzaren osasunerako.

Neri beingo batez esan zidan Ernaniko Paulo Txikiak, Astigarragako bere zapaterian sartu nintzaion uste gabean, eta:

-Egun on, Paulo.

-Bai; iretzat ere ala gerta dedilla -erantzun zidan-. Zer abil, Lasarte, alde auetan?

-Ementxe. Bertso-saió bat daukagula ta Uztapideren zai egon bearra neukanez, zu bixitatzerara etorri naiz, Paulo. Lan askorekin ibiliko zera?

-Zapata zaarrak konpontzen edo zolu berriak ematen ari nauk. Ontan bazegok lana, baiña denbora gutxirako. Faubriketan asi dituk zapatak txurroak bezin errez eta leengo erdi-prezioan egiten, eta akabo! Joan dek gure etorkizuna. Emen jendeak modako gauzak nai dizkik.

Orixe zan Paulo Txikiaren arrazoietakoa bat, nik gogoan dedana ta ez gezurrez moldatua, egi utsezkoa baizik.

Ernanin, txalet ederrean bizi ziran garai artan Paulo ta bere emaztea, biak bakarrik. Ez baizuten familirik sortu.

Ez dakit zergatik, baiña ezkonduetako bikote askori gertatu zaiote ortan asmatu eziña.

Dana dala, diodan Ernaniko txalet aren goardia bere gain eduki zuen Paulo Txikiak. Txaletaren nagusiak edo jabeak kanpotarrak izanik, udaran denboralditxoren bat pasatzen omen zuten oporretan Ernanin, eta gero urte osoan libre Paulo ta bere emaztearentzat.

Nik, Lasartek, gau batez lo egin nuen txalet artan oe eder askoan gustora. Nunbaiten bertsoetan izan giñan Paulo Txikia ta biok egunez, eta onela esan zidan:

-I, Lasarte: gaur gu bizi geran etxean afaldu ta lo egin bear dizkiagu, inportik ez badik. Nere andreak poz aundia artuko likek, biok joango bagiñake, i ezagutu naiean zegok eta.

-Bueno, ba. Ori orrela baldin bada, onartzen dizut, Paulo.

Ori erantzun nionean, ez zan asarre gizona; ta telefonoz deitu zion, geunden ostatu batetik, andreari, zer pentsatu genduen adierazteko eta afari ona prestatu zezan enkargua eman aal izateko denbora berean.

Alaxe, joan giñan, ba, etxe zoriontsu artara, eta Pauloren andreak beso zabalik musuka artu ninduen. Bertozale purrukatua baizan, ernanitar askoren antzera.

Ta afaria, berriz, gozo aparta jarrita zeukanez, nor gu baiño kontentuago? Iñor ez, agian. Alkarrizketa luzea bukatu ondoren, lotara ta kito.

Biaramon-goizean oetik jeiki, gosaldu leenengo ta Aiara. Artean or ari bainintzan lanean.

Soldadutzara joan baiño leenagoko kontuak idazten ezin naiz aspertu. Au da komeri polita: aspaldi pasatako gauzak gogoan.

Paulo Zuriarrain onek gerora Donostian porterotzan denboraldi luze samarra egin zuela uste det. Baiña zenbat urtetan ez dakit seguru, ta ezin nezake erabaki garbirik eman. Esango dedana auxe bakarra da: zaartzaroko erretiroa andik artuko zuela, noski.

Osasuntsu aparta izanik, eta gizon zuzenaren moldera ibiltzen jakin zuelako, arrapatu ditu urte mordoska galanta. Larogei ta zortzi beteak ez badauzka ere, ortxe-ortxe bearko dituela esango nuke, gutxi gorabera.

Paulo Txikia nere gustoko pertsona klasea beti izan da: gizon xuabea, euskaldun garbia, bertsolari goxoa ta fin amorratua. Ez zion iñori kalte askorik egingo, nik dakidala beintzat.

Txirrita zanarekin ere tratatu omen zuen pixkaren bat, adibidez, artean mutil gaztea zalarik. Biak bertso-tan jardunak izango ziran zerbait, zenbateraiño ez dakidan arren, sagardotegian edo abar.

Emen dijoazkizu, ba, Paulo, lagun zaarra, Lasarteren iritziak.

El Diario Vasco, 2000-08-17.

Baserritarra asarre, asto baten erruz

Aspaldiko gertaera zaar auxe aukeratu det gaurko anere lantxoaa osatu aal izateko, irakurle. Ez dakit zurekin asmatuko dedan edo ez; baiña alegindu gabe ez nuke gelditu nai beintzat, eta goazen aurrera poliki-poliki.

Zergatik ote ziran, ba, baserritar ura ta astoa alkarren amorruz? Ori geroxeago esango dizut, atal onen bukaeran. Bien bitartean, arrazoi asko daude itzez garbitu bearrekoak.

Baserrian asto on batek serbizio izugarria egingo du, berez umilla eta otxana baldin bada. Baiña okerrera jo ezkeru, kontuz berarekin! Ez dezu iñundik iñola domatzen asmatuko, ta nik badet eskarmenturik aski ortan.

Alde batetik, perratzailea izana naizelako, bitxo oiek ongi ezagutua nintzan gazte-denboran, perraketan jarduna naizenez.

Ara, irakurle: egun bateko kasoa esatera nijoakizu, jakiñaren gaiñean egon zaitezen. Asto bigurri on-itxurako bat eraman zidaten perratokira, eta bakar-bakarrik nengoen. Baserritarrak, enkarguak egin bear zituela-ta, presaka aldegin zuen kalera.

Alaxe, astoari aurreko besoetan perrak josi nizkion; eta, atzeko anketan asi orduko, txoro-aizea indartu zitzaioren buruan. Nik, laguntzeko iñor ez neukanez, isatseko ille-zurdan soka amarratu leenengo, eta andik txorgatillera lotu nion anka bat, sokaren bidez lazoo egiñez, bestea libre utzita, txandaka perrak jartzeko.

Jotzen zituen golpe latzak; baiña alperrik, ordea. Ezin askatu lazorik; eta, neri lana galerazten zidan

arren, noizbait josi nion perra, ta anka ura libratu ere bai.

Bestea lotu bear derrigorrez; eta, atzetik saiets alde-
ra pasatzerakoan, jo ninduen ostikoz toki arrisku-
tsuan, nere dokumentuen aldemenean. Deskuido
batez arrapatu balizkit, akabo!

-Kontxo, ori dek propina, zapata berriak jantzita!
Itxogin zak pixka batean! Ordaiñak laixter artuko
dituk!

Eta alaxe gertatu zan. Garrote eder batekin bizka-
rreko galantak eman nizkionean, umillago portatu zi-
tzaidan; eta, azkeneko perra jostearekin batera, an dijo-
akit astoaren jabea, bere enkarguak prestatu zituela ta
pozik gizona.

Baiña anketatik eusteko laguntzaillerik gabe nola
perratu nuen astoa galdetu zidan, eta:

-Ez da gaurko au leenengo aldia. Leen ere sarritan
edo nai baiño geiagotan jarduna naiz orrelako lanetan.
Zure asto onek atze aldean errespeto izugarria dauka-
la usteko du.

-Ala dirudi, bai.

-Ta bai?

-Zer pasa da, ba, Lasarte?

-Zer pasa dan? Ostiko bikaiña eman dit puñetero
onek. Baiña bera ere ez da baraurik gelditu. Bizkar
aldeko otzak kendu dizkiot, eta mantsotu arazi ere bai
dotore asko. Pentsu klase ortatik maizago bear luke,
juizioan sartu bitartean.

-Bai. Egia diozu ori, Lasarte. Oraindik gaztea da, ta
arra gaiñera. Sasoirik zoroenean dago. Etxean batzue-
tan egurra erabiltzen det nik, eta andrea asarretzen
zait. Aren bistan ez jotzeko astorik esaten du, eta ez
dakit nola eziko degun.

Auxe izan zan baserritar jatorraren erantzun egokia
bezin zuzena.

–Nik errez eziko nuke, nerea balitz. Asto arrak erre-
medio bakarra du: txikiratu ta kito!

Ori esan nionean, parre algara gozo bat egin zuen baserritarrak; eta perraketaren gastuak ordaindu ta an joan zan etxera.

Beste baserritar zelebren antzeko baten istoria ere gogoan daukat eta kontatzera noa, atal onen asieran aipatzen dedan bezela.

Urrutiko mendi-baserri zaar bateko gertaera da. Bost edo sei famili bizi omen ziran inguruan; baiña etxe batetik bestera tarte dexentea zeukatenak, bakar samar egindakoak, auskalo noiz.

Dana dala, diodan baserri ura terreno-saillez aundietakoa zan kontua entzun izan genduen sarritan. Baita seme-alaba ugari azi omen zituzten bertako gura-soak, zorionez.

Baiña tentazio txarrik sekulan ez zaio faltako lanean aztarrika ari danari, ta an ere uraxe. Auzoko asto demonio guztiak berekin zituen batek pikardi ikaragarriak egiten gauez; eta, etxean aita oso asarre ikusirik, seme batek onela dio:

–Asto orrek bear duen erremedioa nik daukat, aita. Zu lasai egon.

Alaxe, bi kañoiko eskupetari sartu dizkio gatzez kargatutako bi kartutxo, ta beste bi geiago galtza-patrikan artu ta irten da etxetik mutilla gauerdialdera, illargitan.

Arto-soroak buelta dena itxita omen zeukan; baiña uztarriko ganaduak gurdiarekin barrura sartu aal izateko ta kanpora ateratzeko, langa aundi bat edukitzen omen zuen egurrezkoa.

Ta asto gaizto puñeteroak ura muturrarekin iriki dotore asko ta artadira sartzeko modua egiten zuela jakiñik, mutillak, disimuloan joan da langa itxi du leengo, ta bera sartu da artadira.

Astoa an ari da artaburu ederrak jaten gustora. Baiña ez daki mutilla atzean bertan daukanik, eta bi tiroz josi dio ipurdia bete-betean. Erotu da astoa, gatzak ipurdia erretzen diolako. Saltoan langa pasa ta martxa. Antxe bukatu pesta.

Ta mutillak aitari esan dionean, aitaren poza:

-Sekulan lan oberik ez dek egingo, seme!

Aita baten arrazoi ederra

Adiskidetasun aberatsa degu gizartearen oiñarrieta-ko bat, eta eutsi dezaiogun berari, bizirik iraun dezan luzaroan. Ni neroni orren aldekoa naizela esateko ez det uste lotsatu bearrik daukadanik, irakurle; eta zuk ere ez, noski, ala komeni baldin bazaizu. Beraz, goazen, ba, artu degun bidean aurrera, badago zer egiña pranko ta.

Nik une ontan poz bat bakarra daukat: Euskal Erriaren ongarrri saiatu naizela lanean beti edo sarritan beintzat, eta ez dedala batere damurik sentitzen nere barruan.

Bertsolaritzan urte mordoska aundian ibili nintzan erriz erri, oso gazterik asi ta zaartu bitartean. Baiña iritxi ziran ixildu arazi ninduten eguna eta ordua, beste askorentzat bezelaxe. Gizona, eziñak jotzen duenean, ezer gutxi dala badakigu, ta leen egin genduenarekin konformatu bearrean gaude.

Baiña gaur oraindik ere ez daukat bertsolaritza den-dena aaztu ta baztarreratua. Noizean bein kantatzen ditut banaka batzuk irratiz, telebistaz eta lagunartee-tako billeretan ere bai.

Itxura danez, Lasarteren bertsoak entzun nai dituztenak badaude; ta nik, aalmen geixeago balego nere baitan, asko serbituko nituzke, poz aundiz gaiñera. Baiña indarrez eta umorez oso urri nabil. Auxe da gertatzen zaidana.

Konpostura onik ez daukan gaitzak menperatu ninduen. Erriz erri ibiltzea, berriz, lan neketsua ta gogorra dala jakiñik, kezka jabetzen zaio sentimenturik duenari errez, eta ori txarra da benetan.

Etxean idazten jarduten naiz denbora pasa. Baiña, gaztetan eskolarik ikasi ez nuenez, gauza zailla iduritzen zait au ere, ezjakin batek ongi egin aal izateko.

Dana dala, bakoitzak daukana erakutsi oi du, ta nik iñoren kaltegarri ez det pausorik emango, neronek dakidala beintzat. Ez baida komeni nortasun osoa galduta gelditzerik, gerora begira saiatu bearra daukagu emen, badaezbada ere, ea zerbait uzten diogun gure erri oni, on egin lezaiokenik.

Euskerak iraun dezala zutik. Orixe nai nuke nik, ezer eskatzekotan; eta oraingoz ez diot itxura txarrik ikusten. Orioko ikastolan umetatik asi ta zintzo jarraitzen diote gazte leialak euskerazko ikasketari; ta beste erri askotan ere ala dabiltzala uste det. Beraz, ez degu geiegi estutzeko motiborik gai ortan.

Txikitan aurrak, izkuntza bat bezela, bi edo iru ikasi lezazke, errez gaiñera, iñork aukerarik jarri ezkerok. Buru argia edukitzen du ta nekatu gabeko makinaren antza berbera du gaztearen memori freskoak.

Orain au bere ortan utzita, gaiez pixka bat aldatzea ez legoke batere gaizki, ta gizon serio baten ateraldiz mintzatuko naiz.

Arrazoi sendoak bezin ederrak ematen zekiena bai-zan diodan gizon au, irakurle. Geroxeago igarriko diozun bezela, nik neronek parre gozorik egin izan det, idatziko dedan istori ontaz gogoratzen naizen bakoitzean.

Dendero ezagunetako bat zan, ain zuzen, bere erri-tarrak asko ixtimatzen zutena. Nola ez, jator utsa ta umekeri gutxikoa izanik? Alperrikako itzik nekez entzungo zitzaion, eta andrea ere zintzoa eta serbitzala omen zuen, adibidez.

Beraz, bikote jantzia dendan martxa tajuzkoa erabili aal izateko, ta jendearekin ongi asmatzeko ere bai, noski. Orrek berak ez du gutxiena balio, saldu-erosi asko egin bear dan tokirako batez ere.

Esan liteke alako gurasoengandik sortzen diran umeak ere griña berdin samarra ekarriko dutela. Baiña senar-emazte aiek seme bat beintzat parrandazale amorratua omen zuten; eta aitak ez-ezik, amak ere pena uraxe gogoan, arritzeko ez danez. Alpertsurik, ordea, aldakuntzarik artzen ez mutillak eta.

Soldadutza betetzera joan zan garaian, etxekoeri dirua eskatuko zioten, dudarik gabe. An ez baizuen ezer irabaziko, esate baterako; ta zeukanak ordaindu bear derrigor egiten zituen gastu guztiak. Baiña ala ere kontentu.

Ta, lizentziatzeko zai zeudela, diodan mutil onen soldadu lagunak esan dio, biak auzotarrak izanik:

–Nik egun batzuetarako permisoa lortu diat; eta, etxera nijoan ezkerro, ezer nai baldin badek, joango nauk zuen etxera ere.

–Bai?

Ta:

–Bai.

–Bueno, ba. Ori ixtimagarria dek. Kartaz abixua emateko asmoa nian; baiña ire borondate onak geiago balio dik, eta esan akiok gure aitari dirua, paketea, jazteko erropak eta txapela bialtzeko irekin. Dendan arrapatuko dek errezena.

Alaxe, joan zaio, ta esan ere bai garbiro:

–Enkargu bat ekarri dizut, zure semearena, alkarrekin gaude ta. Berealaxe libre geranez, erropak, janarizko paketea, dirua eta txapela bear omen ditu etxera etortzeko.

–Kontxo! Ez zegok gaizki. Noiz dek arako martxa?

–Etzi.

–Bueno, ba. Biar gauean garaiz prestatuko dizkiagu dirua, paketea ta erropak. Baiña txapelik ez. Bururik ez duenak alperrik dik txapela.

Aitaren arrazoi ederra auxe izan zan.



Manuel Olaizola “Uztapide” eta Manuel Lasarte.

Jose Inazio Saizar

Orioko Luxarbe baserrian jaio ta azitako semea degu gizon indartsu, trebe, ikaragarri au. Eguneroko langintza gasolindegi batean duela badakit aspaldiko urtetan. An enpleatzen da.

Baiña ortik aparte arri jasotzera dedikatzen da. Txi-kitandik datorkion griña berezia baidu ori. Amabost edo amasei urte zeuzkanerako, ekin omen zion bere kasa, zerbait ikasi naiean; da bai jarraitu ere, gauzak benetan artuta. Bestela, ortxe geldituko zan bide erdian, dudako apizioa bakarrik eduki baldin balu.

Ogei urterekin irten zan, adibidez, leenengo aldiz plazara. Zarautzen ain zuzen, txapelketa batera. Ta, andik sei illabete ingurura, eun kiloko zilindro egitura berriko arriarekin aiatar baten aurka jokatzea egokitu omen zitzaion, eta garaipena lortu.

Gero, apustu ura pasa ta urte betera, soldadutzara joan; da, serbitu ta etxeratu zanean, bereala ezkondu, ta ondoren urte pare bat arri jasotzeari kasorik egin gabe igaro. Baiña ezin etsi. Ta, berriro ere leengo martxari elduta, aiatar bateri aurpegi eman, nork bere pixu dobleko kubikoa erabiltzekotan, da au ere irabazi Luxarbak.

Urrengo txandan Errezilko Irolegiren kontra jokatzen du amar arroako kubikoarekin, eta galdu.

Geroago, berriz, Bidaniko Beteluk eta biak egin dute apustua amairu arroako arriarekin. Ez dakit erretangularra edo bestelakoa zan. Baiña Luxarbak irabazi, noski, ta onenbestean bukatu ditu bere apustu kontuak.

Ez, ordea, kirol gaiak. Berreun kiloko arkaitza astinduaz ibilia izan bear du geroztik errien arteko nor

geiagoka batzuetan Donostian, Azpeitin, Araba aldean batez ere, ta Ezkion.

Geroago marka jartzera joan izango zan. Berreun kiloko arri erretangularrari zazpi jasoaldi eman gaiñera, ez dakit zenbat minutuan. Bere orduko pixua irurogei ta amabi kilokoa zalarik, lan bikain artaz arriturik, Orioko gizonen batek galdetzen dio Luxarberi bere pixua alako iru bizkar gaiñean nibelduko ote lituzkean.

Arrazoi orrek zer pentsatua jarri, noski, leenez gaiñera, ta pixkanaka prestatzen asi gure mutilla. Borondate ona eduki ta gogor saiatzearen bidez kilotan jetxi, gorputza zigortuaz. Nola ez? Mendian galanki ibiliko zala bistan dago, korrika ta abar, izerdiz ongi bustita. Jan-edanari ere begiratuko zion, neurritik kanpora irten gabe. Ta, entrenamentuak sarritan baldin baziran, naiko kastigu erabiliko zuela dirudi gizarajoak.

Guk uste izan degu kiloak galdu ezker indarrak urritzen zaizkiola gizonari. Iritzi ori askorena da. Baiña Luxarbekin etzan orrelakorik gertatuko. Egia da berreun kiloko arria zazpi aldiz bizkarreratu zuela leen, nik egunkarian irakurri dedanez. Garai artan, mutil onek irurogei ta amabi kilo zeuzkan berekin, da lan bildugarria burutu zuela entzuten genion jende guztiari. Ta neu ere ala pentsatuaz gelditu nintzan.

Baiña 1989-garren urteko apirillaren 23-an, Aian, irurogei ta sei kilotan zegoela, berreun da bi kilo ta erdi pixatzen zituen arri erretangularrarekin marka jartzera joan zan, da lau bider eldu ta bi ontzat eman zizkiotela. Irugarren bat ere jaso omen zuen, baiña bear beze-la ez, noski. Egunkarian onela agertu ziran gauzak.

Leengo laneri ezer kendu gabe, azkeneko au ez ote da arrigarriena? Ni baietzean nago. Bizirik jaiotako semea da Joxe Inazio Saizar.

Oraindik aurrera segitzeko asmoan dala diote, ezeren okerrik ez badu. Urrengo plazaratzen danean, ez

du arri txikiagoa eramango seguru asko, zerbait aundiago dana baizik. Kirolzale purrukatua izaki, eta etsi zailla. Orrek lagunduko dio geienbat. Animatu arazi gaiñera.

Arraunean ibilia dala jakin det Lasarteko traineruan bi urtetan, da Oriotik beste denboraldiren batean. An ere luzituko zuen. Tirako zion bere arraunari.

Gorputzez txiki antza. Orixe du daukan akatsa. Bestela, etzan giro orren ondoan.

Donostiako Martutene inguruan bizi omen da. Ez dakit zer famili duen. Inoiz ikusi det emen, Orioko pesta egunetan, arri azi samarrak jasotzen egoki asko.

Beste anai bat ere badu zortzi arroako zilindroa dotore erabiltzen dakiena. Kalidadez gogorak dira Luxarbetarrak. Nerbioso utsak. Pertsona biziak eta iraupen izugarrikoak.

El Diario Vasco, 2000-08-27.

Bixente Uranga, "Xerore"

Zorioneko pelotariak eskertu nai nituzke inñundik zaalean, ainbat une pozgarri ematen dizkigutelako, beroien pelota jokoaren bidez.

Emen, Orion, leen ez dakit zenbat pelotari ziran eskuz jokatzeko zutenak. Nik neronek inñor ez det ezagutu ortik bakarrik ogia jan duenik eta leenengö mailan ibili danik.

Erri ontako mutillak, geientsuenak beintzat, itxasoan enpleatu izan dira, oso gazterik asita gainera, ta kirol kontuak alde batera utzirik.

Neguaeren zati bat libre eduki arren, ez da aski mutilla aurrera joateko. Urte guztian frontoian ibiltzea kome-niko litzake, ongi prestatzekotan. Pelota beti eskuetan erabiltzea, alegia. Izerdiz bustita berari joka maiz jardun. Bestela ez da pelotari ona izatera iritxiko inñoiz ere, noski.

Orion badaude zaartuta erretiratuak, eskuz poliki jokatzeko zekitenak; eta beroietako bat auxe izentatu genezake, beste inñori ezer kendu gabe, pelotari artista apizionatuetan, alegia: Bixente Uranga, Xerore deitzen dioguna.

Berrogei ta emeretzi urte omen dauzka. Andrea Leitzakoa zuen; 1995-eko azaroan il zitzaiola uste det. Beraz, alargundurik dago Bixente Uranga. Bere seme-alaben babesean bizi da.

Oriotar pelotari pizkor au erri maillan partidu asko jokatu dala jakiñean gaude.

1965-garren urtean, Aurrezki Kutxa Probintzialak Orion antolatutako txapelketa berak irabazi omen zuen. Bakarkakoa izango zan, noski.

Urrengo, berriz, 1968-an arrantzaleen Kofradiak jarritakoa. Beste leiaketa ontan bigarren gelditzen da Xerore.

Urrengo, berriro, 1969-garren urtean Orioko Udaletxeak prestatu du errian bertako pelotarietzat txapelketa berezia, eta Bixente Xerore nagusitzen da.

1974-an ere bai, noski. Arrantzaleen Kofradiaren saria eskuratzen digu gure Xerorek.

Eta 1975-ean Orioko Udaletxeak jarritako leiaketan garaile agertzen zaigu.

Baita ere, eta urte beraren barruan, beste txapelketa bat bakarka jokatu, ta irabazi au ere, Orioko pelotalekuan bertan.

Gero datorkigu 1977-an Aiako errian Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak antolatua omen zan txapelketa, bi-bitara jokatu bearrekoa. An txapeldun zizurkiltarrak irten ziran kontua entzunda nago. Egun artan ez dakit Xerorek pelotari laguna nor zuen; baiña bigarren saria jasota gelditu zirala bai.

Apizionatuetan edo mailla ortan fama aundia eduki zuan gainera luzaroan Bixente Xerorek, prestakizun gutxirekin ibili arren. Itxas gizona izanik, etzeukan denborarik pelotan bear bezela entrenatzeko. Beraz, noraiño igo zitekeen probatu gabe gelditua dala esan genezake.

Emen, Orion, 1978-an, erritarren arteko pelotarien txapelketan ere ederki erakutsi zigun bere maixutasuna. Txapeldun irten baizan gure Xerore.

Urrengo 1979-an oriotar Manterola taillarreko nagusiak antolatzen diote beste neurketa bat erri barruko pelotarieri, ta Xerorek irabazten du segidan.

Eta Orion 1979-an, txapelketan berriro, leen bezela garaile degu Bixente Xerore; eta urte beraren barruan udaletxeak jarritako sariketa, au ere irabazi.

1980-an, Orioko Txindoki ostatukoak jarritako leiaketa bat, eta Xixario jatetxearena bestea, biak zakuratu.

1983-an, txapelketa San Pedro jaietan. Partidu au ere eskuratu, adibidez.

1988-an, Orion, udalak eratu omen zuen apiziona-tuentzat txapelketa berriro San Pedro jaietan. Au neronek ikusitako errezeloa daukat. Bi-bitara jokatu zala uste det. Itxaso lagun zuen orduan Xerorek. Partidu neurtua benetan. Etzan arrokeririk eta txantxarik. Ogei ta bana berdin. Oriotar Txurrero anaiak osatzen zuten beste bikotea, oker ez banago. Ta, azkenean, Xerorek ezker bolea zorrotz baten bidez erabaki auzia. Uraxe bear irabazteko. Jende guztia zutik jarrita txaloka. Egun gogoangarria errian askorentzat.

Pelotak gauza politikak baditu, ongi erabiltzen jakin ezker. Xerore ordurako zaartu samarturik zegoen. Baiña leengo jokaerak gogoan, ordea, ta berezkotasun nabarmena erakutsi zion jende pelotazaleari.

Sake motel antzekoak ateratzen zitzaizkion kontua entzuten genduen askorengandik; ta nik neronek ere alaxe pentsatzen nuen.

Pelota atzera jotzen zeukan beste akats txiki bat. Ortan ere ez nuke esango zenbait bezin indartsua edo trebea zanik. Baiña aurrean, ezkerreko txokoan eta eskubi aldeko bazterrean, tanto dotoreak egiten artista utsa izan dala badakigu Bixente Xerore.

Beeko txaparen gaiñean ederki neurtua erabiltzen bazekien pelota sarritan.

Bere gorputza kantxan lurrera botatzen ikusi izan genduen, pelota arrapatu ta tantoa bereganatu nairik.

Boleak ere bizi amorratuak izan ditu, eta oso ego-kiak gaiñera, era berean.

Amabost urterekin asi omen zan txapelketan parte artzen. Garai ederrean plazagizon egiteko. Eta leenengo aldiz garaile irten, Balentin Manzidor lagun artuta, noski. Ta Erkizia ere erabili izan zuen batzuetan.

Itxurak diranez, Zarautzen bazan beste pelotari artista bat, Zaporra deitzen ziotena. Aren aurka bi partiduru jokatu omen zituen Xerorek. Leenengoa, Zarautzko frontoi txikian, galdu 21 eta 22. Urrengoa Orion, frontoiaren atzeko zokoan. Emen errez irabazi. Bakoi-tza bere etxean nagusi.

Bakarka eta bi-bitara zenbat partiduru jokatu zituen galdetu nion; baiña etzan gogoratzen seguru esateko.

-Denak kontatu banitu, asko -erantzun zidan.

Aspaldiko kontuak diranez, ez da arritzekoa batzuk aaztuta edukitzea.

Nik ere gauza denak ez nituen ongi idatziko, agian. Baiña gaizki daudenak barkatzea nai nuke, mesedez.

El Diario Vasco, 2000-08-30.

Orioko Inaxio Arruti, Loretxu jatetxeko nagusia

Beti zerbait sortzen da burura, ta gaurko atal au osatu aal izateko ere badet alamoduzko gai bat.

Nere idazlanerako ez dira gertakari den-denak ain errez gogoratzen batzuetan, arin samarrak edo garrantzi gutxikoak izanik, batez ere. Baiña asi dedan au oso sentimentala da nere barrurako, ta ezin nezake gordean eduki iñolako moduz.

Orion bizi naiz azkeneko berrogei ta zazpi urte aue-tan, zorionez; eta erri ontara etorri baiño leen ezagutu nuen gizon ixtimagarri bat det mintza-gai: Inaxio Arruti, ain zuzen ere, Orioko Loretxu jatetxe sonatuko nagusi zana.

1999-garren urteko urrillaren leenengo egunean il zan, larogei ta bost urte bete zituen egun berean juxtu-juxtu, bere familia negar-zotiñez beterik utzita.

Utsune ikaragarria nabaitzen genduen ondoren artan. Beste iñork bete ezin zezakeen zulo aundi bat, gu oituta geunden bezela egonik.

Nik neronek dakit zenbateraiñoko pena artu nuen. Kosta zitzaidan nere barruan zeuden tristurak eta nairgabeak kentzen.

Orixe gertatzen zaigu gure gustoko norbaitek betiko begien bistatik aldegiten digun bakoitzean.

Nik Inaxio Arruti zanaren aldemenean pasatako ainbat une eder dauzkat gogoan. Sekulan ez genion batek besteari arrazoi txarrik edo gaizki artzeko modukorik eman, deskuidatuta ere.

Buruz oso argia zan gizon ura, ta zuzen aparta. Seriotasuna ta umorea, biak erabiltzen zekiena; baiña noiz eta nola ongi neurtuta.

Or ikusten da pertsonaren aunditasunak zenbat balio duen; eta ez gera konturatzen ondotik urrutira aldegin bitartean, lastimagarria bada ere.

Inaxio Arruti au langille bildurgarri oietakoa zan. Bere buruaren errukirik ez zuena, esate baterako. Ni nere iritziak ematen ari naiz, irakurle, zuri; ta ez det uste oker nabillenic gai ontan.

Zaldia ta karroarekin, kaleetan biltzen zituzten zaborrak eta etxez etxe sortzen ziran basurak, edo alperrikako zikinkeri guztiak, artu ta berak eraman oi zituen agindutako lekura, zintzo asko.

Erriko barrenderotzan pasa baizituen urte mordoska, ta garai aietan aal zan bezela konpondu bear gauzak. Ez zegoen bestelako aukerarik.

Gerora pixkanaka erreztu dituzte lanak, eta gaur kamion ederrak dauzkate barrenderoak kaleetako zaborrak jaso ta nora komeni dan, araxe eramateko. Oso ongi moldatzen diralakoan nago ni neroni beintzat.

Izan ere, ikusgarrizko basura pillak sortzen zaizkio-te egunero. Kamion aundi bat etortzen da billa, ta lepoino kargatuta bialtzen dute, udaran batez ere.

Emen ez dago txantxarik, eta beste erri askotan ere gauza berbera gertatuko da seguru asko.

Oso ederki ematen dute, txukun eta garbi dauden kaleak. Baiña, ortarako, lana galanki egin bear izaten da, ta arreta aundiz gaiñera, egunik egun, Inaxio Arruti zanaren antzera.

Goizetan goizago oetik jeiki oi zan ura, nagitasunak utzita. Barrenderotzatik bakarrik ez baizan bizi. Orion edo Aiako partean, trenaren estaziotik bi pausotara bezelatsu zegoen pentsu-fabrikata bat, Onena izenekoa; eta an ere bazituen eginkizunak, adibidez.

Beraz, nekea ugari ta atseden gutxi, ara nola dan mundu ontako langillearen bizimodu beartsua.

Orion leen, kale-etxerik geientsuenetan, bei bat edo bi edukitzen zituzten esnetarako, ta bai txekorrak azeitzen aalegindu ere.

Arrantzale jendearen jokabidea orrelaxe ezagutu genduen guk, gaur ez bezela.

Inaxio Arruti nekazaritzan asko jardundako gizona zala badakigu. Lurrak goldez jira ta gero, ez zuen uzta-rikiko ganadurik erabiltzen soroan. Zaldiari zegokion moduko are txiki antzeko bat antolatu ta arekin landu ta gozatu lurrak dotore asko.

Berezkotasuna duen pertsonak edozer gauza egoki asmatzen du, ta artaz baliatu gaiñera. Batere dudarik gabe diot au, alaxe ikusi dedalako ainbat biderrez.

Inaxio Arruti zana zintzo amorratua zan bere izatez. Ez zuen gauza askorik alperrik galduko zabarkeriaren bidez.

Neretzat, guraso on baten antza berbera zuen gizon atsegin arek. Zenbat kontu gozo esan genizkion biok alkarri, Jaungoikoak bestek ezin lezake jakin.

Beti gerora begira nabaitzen nuen, bere familiari bizitza erreztu nairik.

Azkeneko, ordea, eriotza gain-gaiñean zuela igarri zion nunbait, eta egun batez onela esan zidan:

–Nerea joan dek. Medikiak eta botikak alperrik dizkiat.

Etxean ez zuen ezer falta. Seme-alabak lagundu zioten, aitak merezi bezela, bere andrea aspaldi illa zue-nez. Zeruan bilduko ziran biak.

El Diario Vasco, 2000-09-24.

Jeronimo Iturbe, "Agiñeta"

Kirol kontuak sarritan erabili oi ditudanez, gaurko Kidazlana ere bide ortatik dijoa.

Ez dakit zenbateraiño jorratu nezakeen gai polit au. Baiña beti gogozko izan dedalako, aaleginduko naizela ziur egon zindezke, irakurle.

Beraz, goazen aurrera gozo-gozo, ta denborak esango du zertan jardun geran.

Aizkolarieri buruz dexente idatzi det, aspalditxoan asita gaiñera. Baiña oraindik nik aipatu gabeko batzuk badira zoriontzea merezi lutekenak, eta ez nituzke aaztuta baztarrean utzi nai Euskal Erria zer dan erakutsi diguten gizon trebe indartsuak.

Emen Gipuzkoan eta Napparroan ezagutu genituen guk eta gure aurreko gurasoak aizkolaririk onenak.

Baiña, oraingoz, Bizkai aldean ere badaudela uste det mutil sendoak, eta aizkora-lanean dotore moldatzen diranak, adibidez.

Nik neronek iñoiz ikusi ditut telebistaz bizkaitarrak txapelketak jokutzen, oso oker ez banago beintzat, eta itxura onekoak gaiñera. Aizkoran ongi ikasiak ziruditenak.

Kirol klase orrek gastu aundia izango du, bear beze-la mutillak edo gizonak prestatzeko.

Leen egur aukera bazan gure basoetan. Pagoa erabiltzen dute aizkolariak geientsuenetan edo joko garrantzitsuetan batez ere; ta, inguru auetako pagadi eder aiek bukatu ziranez, urrutira joan bearrean aurkituko dirala esango nuke, material klase orren billa.

Ez dakit nundik ekartzen duten. Napar aldetik, agian. An gaur oraindik ere ugari antzean egongo baida.

Baiña pago zugaitzak zutik dauden tokian erosi leenengo; gero ipurdi ondotik bota, soildu ta egur bakoitza bere neurri juxtuan plazan ebakitzeko moduan jartzerako, norbaitek egin bearko du lana pranko, ta kosta ere bai galanki.

Azken aldian urrezko aizkoraren txapelketan erabili dituzten enborrak, den-denak ez ziran xamurrak izango, noski. Baiña ez oso gogor aietakoak ere. Gozotxura geiago zeukaten nere begientzat, telebistak edertzen ez bazituen beintzat.

Dana dala, atal onen asieran aipatzen dedan bezela, leen garai bateko aizkolari ospetsu baten goralmek eman naiean nengoenez, iritxi da txanda, irakurle.

Ta bera nor zan jakin nai bazendu izenez, esango dizut: Jeronimo Iturbe zana. Aspaldi joan zitzaigun mundu ontatik bestera, adiñez ongi osatuta.

Zenbat urterekin il zan seguru esateko moduan ez nago; baiña larogetik gora dexente bearko zituen, noski.

Nik azkeneko aldiz Urretxuko pelotalekuan itzegin nuen berarekin. An bertako pestak izanik bertsoara joanak baigiñan Xabier Amuriza ta biok.

Artean buruz argi zegoen gure lagun zaar Jeronimo Iturbe zana, ta leengo bizimoduari berritaldi bat eman genion, denbora pasa.

Oso iztun egokia zan diodan gizon au bere izatez: Agiñeta aizkolari famatua. Ez erdi ipurdikoa.

Keixeta zana ta biak alkarren kiratsukoak ote ziran daukat errezeloa, adiñez alegia, segurantzi osorik ez dedan arren.

Agiñeta onek mutil gazte apizionatu askori erakutsi omen zioten aizkoran. Nik entzuera ala izan det beti.

Orretzek esaten digu garbiro zer maillatako aizkolaria zan gure Jeronimo Iturbe, Agiñeta.

Zaartu ta gero ere, Euskal Erriko plazetan sarritan agertzen zitzaigun, aizkol jokoren bat baldin bazan, eta norbaiten erakusle gaiñera geientsuenetan.

Bera gorputz dotoreko gizona ezagutu nuen nik. Ez altura aundikoa, baiña bai espalda-arte zabalekoa.

Ni Zumarragan ganadu perratzen aritu nintzan mutil kozkorretan, lau bat illabetetan, Eibarrera joan aurretik; eta antxe ezagutu nuen Agiñeta egun batez, eta onela galdetu zidan:

–Nungo semea zera, gazte?

–Ni leitzatarra –erantzun nion.

Eta berak:

–Kontxo! Naparra, beraz? Guk Napar aldeko aizkolaria estu ta gaizki erabili izan ditugu aizkora apus-tuetan.

–Bai? –esan nion–. Nor zera, ba, zu? Ez zaitut eza-gutzen.

–Zailla da, gazte, zuk nere berri jakin aal izatea. Baiña urrengoan ez dezu ori esango. Ni naiz Agiñeta aizkolaria, Naparroako jendearekin asko tratatu deda-na aizkora kontuan.

Auxe artu nion gogoan Jeronimo Iturbe Agiñeta zanari; eta gero, bertsoan erriz erri nenbillela, prankotan eduki genduen biok alkarrekin itzegiteko egokiera.

Bertsozale purrukatua zalako, gu kantari astea bezelako gozamenik ez zuen berak.

El Diario Vasco, 2000-09-27.



Luis Lopetegi "Agerre I" eta Jose Odriozola "Garatzabal".
1952.11.01.

Agerre leenengoa eta Garatxabal

Gaurko, neronek ongi ezagutu nuen lagun ixtimatu gbaten izena det albiste bezela erriari eskeintzeko, ta bide batez bera nortsu zan adierazi aal izateko ere bai.

Azpeitin, Loiola baillaran, jaio ta bertan azitako seme ospetsu bat zan diodan au, ain gizon apala ta talentu aundikoa askoren ustez; eta nik ere alaxe esango nuke, iñork ortara beartuko baldin banindu, batere dudarik gabe gaiñera.

Nor ote da, bada, Lasarteren adiskide ori? Luis Lopetegi Agerre leenengoari buruz ari naiz idazten.

Arri-jasotzaille egokia izanik, ez zuen geiegizko suerterik eduki gizarajo arek.

Bere garairik onenean, Azpeitin bazan beste arri-jasotzaille on bat ere, ta Luis Lopetegiri jokatzeko bera prestatu zuten. Nik ez dakit gaur oraindik nundik eta nola sortu zan aien arteko asarrea edo konpondu eziña.

Garatxabal deitzen genion Lopetegiren kontrario oni. Ogi bigun gozoa baiño biotz xamurragoa zuen mutil lasai sano bat juzkatzen zuen erriko jenderik geientsuenak. Orrek esan nai du zerbait, ulertzera iri-txiko bagiña.

Diodan Garatxabal au ta Luis Lopetegi, biak edade edo adiñez berdiñak ziran, eta ni neroni ere bai. Beraz, irurok kinto-lagunak giñan, ala bearrez. Eta ori baka-rrik ez: alkar asko maite genduenak, gaiñera.

Nik pena bakarra daukat bi gizon aundi auetaz: biak aspaldi ezkutatuak dirala mundu ontatik. Sekulan ez bainuen itz bat altuagorik bestea baiño erabili

bearrik izan lagun atsegin auekin, alkartutako bakoi-tzean.

Leen aipatzen dedan bezela, Azpeitiko zezen-plazan jokatu zuten apustu sonatu ura Agerre leenengoak eta Garatxabalek. Bazan nork ikusia. Ura jendearen emana ta arreta berezia!

Arrigarritzko dirutzak ere esku-aldatu omen ziran egun artan; baiña jokoa asi aurretik geienbat, adibidez.

Ni neroni ere antxe nintzan, eta korredorez ongi osatua zegoela iduritu zitzaidan zezen-plaza.

Leku aundiak oso ederki ematen du, ala jendez beteta dagoenetan. Erdi utsik baiño obeki, noski.

Ta, leon-kastillo egin ondoren, guk ez genduen ikusi gora bota zuten txanponaren aurpegirik, baiña Agerre asi zan leenengo tanda jokatzeko, dotore bezin txukun, bere aldeko ikusle denak txaloka zituela.

Arri kubikoa zuten izentatua jokorako, amabi arroa ta bi kilokoa, ni oso oker ez banago beintzat; eta Luis Lopetegiren leenengo tanda ikusi utsez, apizionatu askori antzematen zitzaieten denak zoratu bearrean jarri zirala, bere alde dirua arrixkuan zeukatenak, alegia, aurrez jokatuta.

Izan ere, ain zan egokia Agerre zana. Arri kubikoa, beetik gora zetorren martxan, eliz-torreko kanpai edo ezkillu bueltakoen antzera erabiltzen baizuen gorputzean, utsunerik gabe ta nork obeki garai artan, leentxeago diodan bezela?

Agerrek bere lana bukatu ta berealaxe, an dijoakigu plazara Garatxabal, ardi zaar bat baiño umillago.

Azpeitin askok txalo maitasuntsuak jo zitzaizkien. Nola ez? Denak merezi zituelakoan gelditu giñan, aren lanerako borondate ona ikusirik.

Baiña alperrik artu zuen nekaldi galanta. Leenengo tandatik nagusitu zitzaion Agerre, ta kito! Burua makurtu bear izan zuen derrigorrez Garatxabal gizarajoak.

Indarrez osatua zegoela zirudien. Arria ongi jasotzen zuen, nere ustez; eta, are ta geiago esateko, auxe jakin nuen: entrenamentuetan egindako lan berbera egin zuela plazan ere.

Zer adierazten digu orrek? Agerre punta-puntako arri-jasotzailea agertu zala, ta aren ondoan ez zala giro garai artan.

Garatxabalek erabat utzi zion arri-jasotzeari, “Au ez dek nik nai dedan bizimodu-klasea” pentsatuta.

Ez zeukan arrazoi faltarik. Geroztik ez derizkiot beste apusturik jokatu zuenik, nik dakidala beintzat. Erretiratu ta pakea.

Agerre ta biak, gaztetako lagunak izanik edo ez dakit zergatik, baiña apustua jokatu zuten egun berean, bi aldeetako sozioak eta bestelako koadrilla alkar-tu ta denak bat egiñik, gauean afari ederra egin zutela entzun nuen.

An ibili omen ziran Agerre ta Garatxabal gustora, batek eta besteak leengo kontu zaarrak berrituz, anaitasun paregabea.

Nik pena bakarra sentitzen det une ontan, irakurle: ezin dizudala zuri eman Garatxabalen jatorrizko izenik eta apellidorik, guk beti Garatxabal deitzen genionez.

Agian ikasiko nuen bere izen-apellidoak nola ziran. Baiña gazte denboran ikasitako gauzak asko dauzkat nik aaztuak.

Apustu sonatu ura zein urtetan eta zein egunetan izan zan ere ez det gogoan.



Korta eta Arria I Azkoitian. **El Diario Vasco.**

Arria leenengoa, Inazio Orbegozo Juaristi

Kirolariak aipagai ditut gaur ere. Euskal Erriak gizon garrantzitsu asko ta onak eman dizkigu, ta ematen ari da, zorionez.

Gaurko atal ontarako ere aukeratu det alamoduzko bat: Arria leenengoa; Arria bigarrena, irugarrena ta oien aita zana.

Aspaldi samar illa dan arren, gogoan izango dute urtez aurrera dijoazen gizon eta emakumezkoak, guk daukagun bezelaxe, Azpeiti aldean batez ere, ain aizkolari sonatua izanik bere garaian.

Inazio Orbegozo Juaristi, Arria leenengoa, Azpeitiko Mendiolatza izeneko baserrian jaio ta azitako seme pizkorra zan gizon pusketa aundi au, nik entzuera dedanez beintzat.

Tratatu ere egin genduen dexente alkarrekin. Aizkoran ikusi nuen bein baiño geiagotan.

Erriz erri, pestak ziranetan, gu bertsoan nola ibiltzen giñan, egokiera eskura etortzen zitzaigun kirolaririk onentxoena nortsu ziran jakin aal izateko, ta pozik begiratzen genioten, artista zoragarri oiek jartzen zekiten saltsa ta jendearen arteko ilusio sanoari.

Leengo egun batez, edo oraindik oraintsu, ematen nuen Agiñeta aizkolari bikaiñaren aditzera, eta geroztik iritxi da kartatxo bat nere eskuetara. Lagun zaar batek ongi gordeta zeukana bialdu dit zoriongarri, eta ixtimatu diot benetan.

Gaur arteraiño sekulan entzun ez nituen gauza garrantzitsu asko irakurri baiditut dalako karta ontan, idaz-lanerako komeni zaizkidan argibideak, alegia.

1928-garren urtetik asi ta 1936 artera bitartean, Inazio Orbegozo Arria leenengoak, Jeronimo Iturbe Agiñetak eta Errekalde zaarrak bete omen zuten Euskal Erri osoko aizkolaritzaren tokirik aundiena, goi maillakoa alegia.

Iru aizkolari ospetsu auek ez zutela bear bezela prestatzeko aukerarik izan iñoiz ere; baiña, ala ta guztiz ere, entrenamentu asko egin oi zutela aizkoran esaten du neregana iritxi dan paperak.

Arria beste edozein aizkolariri aurpegi emateko bildurrik gabeko gizona zan kontua dio nik artu dedan agiri onek.

Agiñetaren aurka joko inportantea jokatu omen zuen Tolosan 1935-garren urteko maiatzaren 12-an, onoko lan-klase ontara: seiná enbor, 72 ontzakoak, nork denbora gutxiagoan erdibitu edo ebaki; eta Arria nagusitu.

Juxtu-juxtuan, ordea: iru segundoren aldeá kendu omen zion Agiñetari. Ortik pentsatu leike zer estuasun emango zizkioten bi aizkolari sonatu auek alkarri apustu artan.

Baiña ez da emen bukatzen den-dena. Berriro beste apustu bat ere jokatu omen zuten, ogei ta zortzi urte geroago, 1963-an alegia, irurogei urte beteta zeuzkaten garaian; eta bigarren jokoa ere Arriak irabazi, noski.

Baiña ez du esaten zenbat enbor ebaki zituzten, nik irakurri dedan paperak. Agian ez zan apustu garrantzitsua izango; exhibizioren bat igoyal edo ez dakit, ba, nik nola adierazi ere gauzak.

Dana dala, goazen aurrera. Arria gizon aundia zala badakigu gorputzez, ezagutu genduenok. Agiñeta, berriz, askoz ere txikiagoa.

Baiña gizon egoki aparta. Aizkoran ere alaxe izango zan ura, dudarik gabe. Biak onak, bat bezela bestea. Apustu estua da iru segundo besterik kendu ezinean lanen bukaeran.

Zerbaiten motiboz izentatzen ditu atal ura idatzi zuenak, Arria, Agiñeta eta Errekalde, Keixetarekin batera. Ara emen lau aizkolari, nor baiño nor ederra-goak.

1936-garren urtean sututako gerrate negargarri ura itzali ondorenean, Arria berriro exhibizio ta apustu bazuetan nagusitu omen zan.

Ara emen aietako bat, aipatzea merezi duena: Antonio Soraluze Korta zanaren aurka jokatu zuen Arriak apustu sonatua, onoko lan klase ontara: zortzi enbor, 60 ontzakoak eta beste ogei ta amar, 36 ontzakoak, nork leenago erdibitu edo ebaki, eun milla pezeta jokolan jarrita.

Bada zerbait. Sinisteak ere lanak ematen ditu. Baiña nik, irakurrita bezelaxe idatzi ditut gauzak.

Aizkoran ordu bat eta berrogei minutu gelditu gabe pasa ondoren, Arriak irabazi omen zion Kortari.


Ederki kostatako ogei milla duro jasoko zituen egun artan gure Inazio Orbegozo Arria aundiak.

Eta gero, 1952-an, erretiratu zala dio nik daukadan karta edo agiri onek.

Beraz, leen aipatu dedan Arria eta Agiñetaren arteko bigarren apustu ura uzten det ongi erabaki gabe nola zan, garbiro ez dakidalako. Norbaitek segurantzi osoz esango baldin balit, idatziko nuke berriro, pozik gaiñera.

Ta atal ontan beste akatsik billatzen badezu, barkatu mesedez, irakurle. Nik gaizki nai dedalako egiña ez baida izango.

El Diario Vasco, 2000-12-10.



Migel Gallastegi pelotaria. 2004.06.24.
El Diario Vasco: Félix Morquecho.

Migel Gallastegi

Gaurko nere atal ontarako auxe da aukeratu dedan Ggai berezia: pelotariak eta pelota. Biak baidira aintzat artu bearrekoak jende askoren gozamenerako. Ori ezingo degu ukatu inundik inolaz ere.

Gaur badakigu pelota ederki astintzen duten pelotariak ugari antzean dauzkagula. Baiña leen ere ezagutu genituen goi maillako pelotariak, mordoska gaiñera, denboraren bidez.

Eta beraietako bat Migel Gallastegi izentatuko nuke nere gustorako, ta beste inori ezer kendu gabe, noski. Beraz, beraren aritik beteko det asi dedan karrete au.

Nik Eibarren pasa nituen lau urte, gutxi gora-bera, ganadu perratzen, eta sarritan ikusten nuen Gallastegi. Baiña ez nekien nundik eta nola eman berari izketarako bidea; eta kontuz ibiltzea ohea ote zan pentsatuta, segi aurrera ixiltasunean.

Ez bainuen lotsagabe osoa izan nai, jakiñik errespetatzea merezi zuela aren kategoriko artista batek.

Ortik aparte, berriz, gizon serioa ta berriketa gutxi-koa beti izan da Eibarren jaio ta bertan azitako seme garrantzitsu au, nere ustez beintzat; eta pelotazale geientsuenak nik bezelatsu esan oi zuten.

Leen, gure gazte denboran, frontoietan jokutzen zebillela ezagutu zutenak diotenez, pelotari indartsu aparta zan Migel Gallastegi.

Berak aitortu zigun beingo batez telebistatik, eta onela erantzun zion galderak egiten ari zitzaionari:

–Nik pelotarako indarra nuen beste inork baiño geiago, eta orretxen bidez irabazten nituen partiduak.

Ez da oraingoxe kontua nik idazten dedan au esan zuela. Bi edo iru urte izan litezke, gutxienez ere, fetxaren berri seguru ez dakidan arren.

Baiña Migel onen besoetan bazan gatza. Mutil aundia ere bai; ta gero, berriz, bere burua zaintzen jakin. Orixe da gauza bearrezkoa plaza-gizon batentzat.

Ostatu edo kafeterietan egunero karta-jokoan ibiltzea ez da komeniko, neurriz kanpora beintzat. Ala esan oi dute dakitenak. Baiña betiko zintzotasunari eusten errez ote da? Or ere bada koxka, naiko zailla ta neketsua, noski. Baiña derrigorrezkoa.

Pelotari ona izan nai baldin badu, edozein gaztek gogor egin bearra daukala iduritzen zait berezko griña bigurriak menperatzen eta osasunari laguntzen.

Migel Gallastegi, adibidez, parrandan gutxi ibili omen zan, pelota esku artean zerabilkien bitarteko urte aietan. Nik entzuten nuena idazten det, ezer aldatu gabe, bada ez bada ere.

Pelotari bezela aunditzat edukitzen zuen Eibar aldeko jendeak Gallastegi; ta nork ez? Egia orixe da, garbiri bakoitzari berea aitortu ta zor zaiona ematekotan.

Atano irugarrenak, ainbat urtetan bere buruan edo eskuetan edukitako txapela eta txapeldunaren izena Migel Gallastegirekin jokatu ta galdu zituen.

Baiña beti gogoan iraungo du Atano irugarren aundiak pelotarien ixtorialean: eta Gallastegirena ere modu berdintsuan juzkatzen zutenak baziran leen.

Ara emen nolako bikote ederra eman oi ziguten Azkoi-tik eta Eibarrek, bien artean. Eskerrik beroenak mereziko dituztelakoan nago erri euskaldun maitagarri oiek.

Nik neronek ez det Atanorekin itzegiteko egokierarik izan bein ere aurpegiz aurpegi. Baiña bai, ordea, Gallastegirekin, sarritan gaiñera.

Bera bertsozale purrukatua izanik, Eibarren Amaia izeneko zine edo antzokian bertsozko jaialdiak antola-

tzen zituenez, antxe alkartu oi giñan, batzuetan bi bertsolari ta besteetan lau igoal. Orrelaxe txandaka.

Uztapide zanak esango luke, gaur bizirik balego, Eibarren bertsolaritza zenbaiteraiño maite zuen jendeak urte gogoangarri aietan. Ainbat biderrez kantari jardunak baigera biok. Eta, gu joaten giñan aldi bakoitzean, Amaia zine edo antzokian etzan leku utsik ikusten, geientsuenetan beintzat, leporaiño beteta jendez.

Gallastegirekin Zarautzen itzegin nuen Basarri bertsolari zanaren illeta egunean aspaldiko partez, eta onela zion berak:

–Gogoratzen al zaizu, Lasarte, nolako jaialdiak egingen genituen Eibarko Amaian? Orduan bai ederki.

–Gauza onak nekez aaztu oi dira, Migel –erantzun nion.

Bai orixe! Gizon bikaiña billatu nuen, daukan adiñerako, gure pelotari aundia. Orain irurogei urte bezelako sasoi baldin balu, ez litzake giro izango bere alde-menean. Gaurko pelota bizi saltakor oiek astinduko lituzke bapo. Baiña, zaartu ezkerro, jai dago emen, eta kito! Agur, Migel!

El Diario Vasco, 2000-12-27.

Migel Berakoetxea, berriz ere

Gaurko ataltxo onen bidez Naparroara goraintziak bialdu nai nituzke, Gorriti aldera batez ere. Ango-xe seme jator bat baizan Migel Berekoetxea aizkolari ospetsu ura.

Nik ez nuen berarekin apostu-kontuetan ezeren traturik erabili sekulan ere. Baiña bestelako arreman onak bagenituen alkarren artean, zorionez; eta aietaz gogoratzen naiz, arritzekoa ez danez, maiz gaiñera,

Eta esango dizut, irakurle zeran adiskide maite orri, zergatik artu genduen konfiantza berezia Berekoetxeak eta nik, Lasartek. Ortarako aski baida onoko pasadizo polit auxe esplikatzea bakarrik, besterik ezer aipatu gabe.

Ez daukat gogoan zein urtetako gertaera zan idaztera nijoan au. Bestela, gauzak garbiago esango nituzke pozik.

Dana dala, nai duenak zerbait ulertuko du ta goazen aurrera poliki-poliki.

Donostian aizkolarien txapelketa garrantzitsu bat antolatu zuten, Atotxako futbol-zelaiari gaiñera, ni oso oker ez banago; ta aizkolari sailla bildu ziran bertara. Zenbat, ori ere ezin nezake seguru adierazi.

Baiña enbor ebakitze latzetakoa egin ondoren, Gorritiko Migel Berakoetxeari jantzi zioten buruan txapela, ongi merezi zuena, askoren ustez, naiz eta beste gaiñontzeko aizkolaria ere lana galanki egin arren.

Egun artan ez omen zan giro naparraren ondoan luzitzen. Gorputzaldi ederrez bezela prestaera onez osaturik joango zala dudarik ez nuke jarriko Gorritiko seme pizkorra txapelketa ura jokatzera.

Gauzak benetan artuta zebillenetan, kontuz asi bear omen zan arekin jostatzen, indartsu amorratua izanik, eta berez aizkolari egoki utsa gaiñera.

Oiek denak dituen ez da nolanaiko mutilla, ta lan luzera ez dakigu zer iraupen izan zezaken. Ez bainuen bein ere ikusi nik neronek. Beraz, orren sustrai garbirik ez nezaioke iñori eman.

Baiña ogei bat kana erdiko enbor gogorak edo samurrak, ziranak zirala, laixter ebakitzen bazekien gozo asko.

Enbor gaiñera igo ta azalak urratzen asten zan garai-an begiratu bear zitzaion, aren zalapartari batez ere.

Nerbioz ongi ornitutako aizkolari ugari ikusi ditugu; baiña aren parekorik oso gutxi nere begientzat.

Udara partean batetik bestera erriz erri pesta-giro-an ibiltzeko eder aparta iduritzen zitzaigun neri ta gaiñontzeko askori ere bai. Izugarrizko alaitasuna jartzen baizuen jende apizionatuaren artean.

Apustuak ez dakit ziur esateko zenbat jokatu zituen guztira. Baiña banaka batzuk bai, noski; ta nik bat ere ez nuen ikusi aietakorik, lastimagarria bada ere. Orrelaxe gelditua naiz betiko penetan gorritar aizkolari trebe bikain onekin.

Sasoi onean zegoela uste genduen garaian gaixotasun txarren batek menperatu zuela ta kito. Emen il bearra biziarekin ordaintzen du pertsona bakoitzak, bere ordua datorkionean.

Berakoetxeak baserri onetakoa izan bear zuen. Leen Gorritin alamoduzko entzuerak dauzkat nik; eta ortik aparte, berriz, ostatua ere eduki oi zutenez, martxa itxurazkoa bizimodua aurrera eramanez izateko.

Lan sendo sortuko zitzaiotela ere ez dago ukatzerik, baserria eta ostatua biak ongi erabiltzekotan. Oraingoz ez dakit nola moldatzen diran, seguru esateko. Baiña leengo modura edo berdintsu baliteke jarraitzea.

Gaur Gorritin aldakuntza nabarmenak daude. Autobia edo kamio berri ori egin zuten ezkeroztik, erabat apaindu dala dirudi Gorritiko erriak.

Nik nere iritzi laburrak ematen ditut. An bertan bizi diranak ez dakit, ordea, zer pentsatuko duten gai ortaz.

Dana dala, idazten ari naizen atal onen asieran diodan Donostiako Migel Berakoetxeak irabazi zuen txapelketa sonatu ura zertan bukatu zan adieraztea ez legoke batere gaizki, ta ortaraxe nijoa.

Berakoetxea zanari Donostian omenaldi eder zoragarri bat egin zioten txapelketaren ondorengo gau batez, bere sozio lagunen artean. Baiña bestelako jende pranko ere bazala uste det afari artan.

Gu, Basarri bertsolaria ta ni, Lasarte, biok giñan kantatzera deituak. Baiña Basarri ez zitzaigun joan, eta bakarrik jardun nintzan bertsotan. Pozik ikusten nituen entzuleak.

Eta Berakoetxea aizkolariari jo zizkioten txalo bero askoak. An erabili zuten jan bearrean. Merezi ere bazuen eta ongi portatu zitzaizkion bere lagun maitasuntsuak. Beraz, agur!

El Diario Vasco, 2000-12-29.



Jose Manuel Azpiroz "Aiako Txikia". 2001.01.01.

Joan Manuel Azpiroz, "Aiako Txikia"

Korrikalari zaarrak ditut gogoan: gure garaikoak eta Kleentxeago ibili ziran famatu aietako banaka bazuk ere bai, zorionez neronek ezagutu nituenak, gutxi edo geiago.

Ni ez naiz apustuz apustu an eta emen ibilitako gizon klasea. Baiña, bertsolaritzari esker, erreztasun asko izan det korrikalaririk onentxoena ikusi aal izateko, Euskal Erriko plazetan, alegia. Ez, ordea, estranjeroak edo kanpotarrak.

Oraingoz telebistaren bidez ikusten ditugu arritzeko moduko korrikalariak, urrutitik datozenak eta beltzetakoak batez ere, zoragarri utsak. Ez da oien aurrean jartzen errez, naiz eta zurieta ere oso onak badauden arren.

Baiña nik emen bertakoak zoriondu nai nituzke, iñundik alean. Esate baterako, Joan Manuel Azpiroz. Gipuzkoako Aian jaio, azi eta bere bizitza osoa bertan pasa zuen gizon atsegin maitagarri uraxe det gogoan.

Zergatik ote dan galdetu lezaidake agian norbaitek, eta emen billatuko du erantzuna.

Gu Naparroako Leitzatik Aiara bizilekuz aldatu giñanean ezagutu nuen nik diodan Joan Manuel Azpiroz korrikalari ospetsua; ta geroztik beti begi onez begiratu genion batak besteari.

Izugarrizko egokitasuna nabaitzen zitzaion izketan, norbaitekin gustora ari zan bakoitzean. Bere irripar gozo eta ixil antzeko xuabe ura gaur oraindik nere begien aurrean daukadan ixpillu garbi eder bat bezela juzkatzen det.

Gizon apala, euskaldun osoa eta arrokeriaren izpirik sekulan erabili gabe joana izango zan ura mundu ontatik bestera: ta orixe da denok aintzat artu bear genduken gizatasunik baliosoenetako bat.

Nere iritziak ezertarako zentzunik baldin badu edo iñori mesederik egin aal banezaioke esaten det au. Ez naiz txantxetan ari, eskolaz jantzi gabeko pertsona jakintsu aundi baten ixtoriala kontatzen baizik: Joan Manuel Azpiroz korrikalariarena.

Aiako Txikia deitzen zioten, ez dakit nolaz edo zergatik.

Leengo gerra zibilla pasa ta berealaxe ezagutu nuen nik ura, ta artean sasoi ederra zeukala ematen zuen. Kanean pausaje mantsoa erabiltzen zekien arren, anak astindu oi zituen korrika asten zan bakoitzean.

Nik iñoiz ikusi nuen entrenamentuak egiten; ez, noski, sarritan eta nai aiña aldiz; baiña bai banaka batzuetan.

Gauetz illargitan etxetik irten da Aiara ta Asteasu aldera artzeko bide-gurutzean soiñean zeramazkien erropak kentzen ari zala ikusi nuen beingo batez, an pasadan egokitu nintzalako.

Leenengo, gerriz goikoak erantzi zituen, kamiseta ez beste denak; eta urrengo, galtzak edo bonbatxoak, azpitik jantzita baizeuzkan korrikalariak erabiltzen zituzten galtza motzak.

Ni gordeta nengoenez, une artan ez det uste ezertaz konturatu zanik Joan Manuel, eta soiñetik kendutako erropak txukun asko bildu ta orma edo pareta-zoko batean utzi ta orduan asi zan korrika, Asteasuko bide-ari elduta.

Leenengo poliki antzean, motorrak bere martxa artu zezan, seguru samar.

Nik ere, berriz, begien gozamenerako zerbait geiago nai ta atzetik metro batzutan segitu nion. Baiña laixter

utzi ninduen bakarrik. Nere anka-otsa entzungo zuen agian eta aurrera.

Ez dakit noraiño, baiña Asteasutik buelta egingo zuelakoan nago, gutxienez ere.

Ura zan korrikarako erreztasuna! Bizi-bizi asi zanean, neretzat ikuskizun ederragorik ezin nezaken aukeratu, iñolako moduz.

Gorputzez oso egokia billatzen nuen nik neronek Joan Manuel zana. Anka-zankoak ez zituen sendoak, mee antzekoak baizik, karreretan ibiltzen diran zaldiak bezela. Baiña gerritik gorakoa, ordea, zoragarri utsa. Aren petxu-aldeari kamiseta utsean zegoenean begiratu bear zitzaion, ongi ikusi aal izateko.

Nik berarekin topo egin nuen bein baiño geiagotan, sorora lanera zijoala edo andik etxera zetorrela, ta ortik dakizkit emen idazten ari naizen pasadizo auek denak.

Gizon osatua, edukazioz jantzia ta umilla genduen Joan Manuel Azpiroz, Aiako Txikia deitzen zioten korrikalari sonatu aundi ura.

Eguneroko bizitza zuzentasunez mantentzen zuela ere badakigu. Kale-baserria zuenez, ganaduak eduki oi zituen, eta goiz-partean aien martxa erosotu leenengo.

Ta gero, bazkal aurretik, ostatura joan, ardo pixka bat edan, zigarro batzuk erre, tabakoaren kea edo zuma ongi tragatuz, lagunartean, besteei arrazoi txarrik eman gabe.

Lasaitasun ederrean bere arrantxoa egin ondoren, etxera, ta beti garai jakiñean bazkaltzera. Orduari errespeto izugarria zion Joan Manuel Azpiroz, iñoiz aaztuko ez danak.

El Diario Vasco, 2001-01-19.

Antonio Soraluze, "Korta"

Beti sortzen da zerbait, leengo pasadizo zaarrak berritzen asi ezkerero. Gaurko atal au osatu aal izateko ere badet alamoduzko jokolari garrantzitsu bat, eta beraren aipamenak egitea ez legoke batere gaizki, nik une ontan pentsatzen dedanez.

Kirol-kontu auetan gozatzen naiz beste gauza askotan baiño geiago, ta amorraiak uretan edo errekan amuko txixareari bezelatsu eltzen diot gai polit oni, api-zioak eraginda, noski.

Diodan gizon aipagarri au aspaldi samar illa dan arren, leen garai batean lagun ixtimatua nuen nik. Alkarrekin ibiltzen baigiñan sarritan erriz erri, pestak ziranetan, bera aizkoran eta gu bertsoan.

Antonio Soraluze Korta aizkolari ospetsuari buruz ari naiz idazten.

Azkoitin jaió ta bertan azitako seme sendo bikain bat zan Korta, ni oso oker ulertuta ez banago beintzat; eta alaxe agertzen da bere emazte alargunak bialdu dizkidan paperetan.

Duda pixka batekin idazten asi ta baztarrean utzirik neukan artikulu au.

Leen Baleztena Naparroako Zubietako aizkolariari egin nion idazki bat, 1995-garren urtean, artean bizirik zegoela. Baiña ura publikatu zala oraindik ez da denbora asko, ta Korta zanaren emazte alargunak irakurri zuenean, telefonoz deitu zidan:

-Aizu, Lasarte: nik zure lanak beti aintzat artzen ditudanez, oraindik oraintsu El Diario Vasco egunkarian Baleztena aizkolariari buruz itzegiten zenduen; baiña ura il zan, Joan Baleztena Arozena, larogei ta bat

urte zituela, 1996-an. Seguruago jakin nai badezu, beraren eskela bialduko dizut egun gutxiren barruan. Eta, eskelak dionez, abenduaren 21-ean Iruñen il omen zan. Guk, nere senar Antonio Soraluze zanak eta biok, izugarri tratatu genduen, leen Lasarteko base-
rrian bizitu giñan garaian, Baleztena zanarekin.

Orrela zion Kortaren emazte alargunak.

Beraz, ixtimatu det benetan albiste au. Baiña nik Baleztenari buruz esan bearrekoak esan samartuak dauzkadanez, ez du garrantzi geiegizkorik gaur idazten dedan onek. Il zala; orixe bakarrik, eta Korta aizkolari-
riarengana itzuliko naiz berriro.

Onen ixtoriala ez dago atal batean sartzetik iñolako moduz. Oraingoz, aal ditudan banaka batzuk idazten aalegintzea da eginkizunik egokiena, nere ustez.

Korta 1981-garren urteko uztaillaren leenengo egu-
nean il omen zan, Azkoitin, bere sorterrian, irurogei ta amar urte zeuzkan garaian.

Ordurako Lasarteko baserria utzia izango zuen, itxurak diranez, baiña luzaroan bertan bizitu ta gero.

Famili edo senide-talde ugariko semeetako bat zala dirudi Korta aizkolari sonatu onek; eta kirol klase askotan parte artzen zuena ere bai, noski.

Adibidez, 1940-tik 1960-ra bitartean, Lasarteko ba-
serrian apusturako oillarrak, aari-talkalariak eta proba-
idiak edukitzen omen zituen, besteak beste. Plaza-
-gizon osoa izatea da ori, ta ez aspertzea gaiñera.

Aizkolari bezela, berriz, egokia bezin gozoa ta gusta-
garria, jakintsu askoren iritziz. Nik, entzun eta iraku-
rritako modu berean idazten ditut gauzak, bada-ezba-
da ere.

1943-ko abenduaren 13-an, Urretxuko Ederrena
frontoian, Agiñetari jokatu omen zion Kortak onoko lan
ontara: launa enbor, 54 ontzakoak; eta beste launa
enbor, 45 ontzakoak, nork azkarrago ebaki.

Kortak 21 minutu ta 3 segundoan lan osoa bukatu zuen bezela, Agiñetak 21 minutu eta 52 segundo pasa zituela dio paperak. Baiña ez dakit au bien arteko apustua zan edo bestela exhibizioen bat.

Dana dala, urrengo pausoa Azpeitiko zezen-plazara eman dezagun: 1958-garren urteko uztaillaren 6-garren egunean, garai artan txapeldun zegoen Inazio Orbegozo Arria zanari jokatu omen zion Antonio Soraluze Kortak onoko lan klase ontara: 30 enbor, 36 ontzakoak; eta beste 8 enbor, 60 ontzako, nork leenago ebaki; eta Arria irabaztun gertatu orduan ere.

Baiña urte bereko abenduaren 28-an errebantxa jokatu omen zuten bi aizkolari auek Tolosan. Bakoitzaren egin bearra auxe, noski: amarna enbor, 60 ontzako, ta iñor erakuslerik gabe, biak bakarrik izatekotan, apustua egiña zeukaten bezelaxe.

Emen Korta nagusitzen zaio Arriari, 1.442 golpetan bukatuz bere lan osoa; ta pasatako denbora: 44 minutu ta 12 segundo guztira. Arriak, berriz: 1.699 golpe ta 46 minutu ta 45 segundotan emana zuen bere lan guztien kontua. Beraz, bentaja dexentea Kortaren alde.

Guk uste izaten genduen joko-gizonak alkarrekin asarre bizitzen zirala, ta deskuido aundi bat gendukan. Ni ikusita nago bein baiño geiagotan Arria ta Korta nere aldemenean bazkaltzen, kontu gozo askoak esanez, umore ederrean. Biak ziran izlari egoki ta txukun apartak eta neretzat onak.

El Diario Vasco, 2001-01-28.



Gordon Piere eta Juan Kruz Azpiroz "Arroitzko Txikia".
El Diario Vasco.

Joan Kruz Azpiroz, "Arroitzko Txikia"

Apustu-gizonak, ainbat biderrez gogoratzen zaizki-
Adanak, nik ezin ditut gordean eduki inolako
moduz. Zergatik ote da gertakari misterioso au? Aipa-
men berezi bat merezi dutelako, ez gutxiago ta ez geia-
go.

Badira gizon eta emakumezko ugari, egun-pasa
dotore antzekoak egin aal izateko, plazetako apustuen
zai egoten diranak. Ori ere opizio bat baida, beste asko-
ren antzera; ta beti ezagutu deguna, gainera, gutxi edo
geiago, Euskal Erri ontan batez ere.

Korrikalariak daude ixil samar azken aldiko urte
auetan, maratoietan korritzen dutenak izan ezean.

Leen, gure gazte denboran, nunai ta noiznai ikusten
genituen korrikalari onak, plazaren barruko anilloari
bueltak ematen, amar bat kilometro osatu bitartean.

Izugarri gustatzen zitzaizkion jendeari korrikalarien
jo-aldi eta tartekako sarrera bizitasunezko aiek. Nola
ez, ain politak izanik?

Baiña ez dakit zer gertatzen dan gaur joko zoragarri
orrekin. Erabat baztarreraturik dago. Aaztuta bezela,
noski, edo alamoduz nabaitzen degula esan genezake.

Nik korrikalari asko ikusi ditudan arren, nere gus-
torako, ta beste inori ezer kendu gabe, Joan Kruz Azpi-
roz izan zan gure garaikoetan onena.

Leen, gerra aurrean, Txikia deitzen zioten, Aiako
Joan Manuel Azpirozi bezelaxe. Bi korrikalari aundi
auek apellido igoala izatea ere gogoan artzekoa da, nere
ustez.

Joan Kruz Azpiroz Naparroako Arroitzen jaio ta antxe bertan azi ta bizitutako semea zan. Chiquito de Arruiz deitzen zitzaion erderaz. Gizon argia ta arrokeri gutxi zuena, edo batere ez, garbiago esatekotan.

Urte mordoska alkarren inguruan ibili giñan udara parteko pesta giro paketsuan ainbat erritan. Beraz, ongi ezagutu nuen nik ura, ta sekulan ez nion beste iñoren fama txarrik entzun. Izketan ari zanean oso egokia ta txukuna zan, eta ixilla ere bai, denbora berean. Lagunarterako pertsona atsegiña ta gustagarria benetan.

Baiña, korrikalari bezela, plazaren barruan kontuz! Ikaragarritzko garrotea erabiltzen baizuen. Ezurretariñoko bildurra sartu zion arek emengo jendeari, korrikarako prestatuta zegoen garaian.

Zertarako, ordea? Nik au galdetzen det nere ezjakiñean. Noizean beingo joko batekin zer etorkizun dago bizimodurako, famili dexentea dagoen etxerako?

Ta apustularia puntu onean edukiko baldin bada, ari norbaitek lagundu bearko diola ere egia dalakoan nago ni neroni beintzat.

Eskerrak Joan Kruz Azpiroz zanak edozer lan klasetarako balio zuen. Orrekin moldatuko zituen gauza asko.

Arroitzen bertan erriko taberna edo ostatua urte batzuetan erabili zutela badakit andreak eta bien artean.

Baiña aspaldiko kontuak esaten ari naiz: gu erri artara bertsoara joaten giñan garaikoak. Geroztik aldaketak zertaraiñokoak izan diran ez dakit, iñori adierazi aal izateko.

Egun batez entzun nuena daukat gogoan Joan Kruz korrikalariari buruz. Baiña ez berak esanda, beste batek baizik.

Gauetz illargitan zoragarritzko entrenamentuak egi ten zituela. Egunez izango baizan nork zaindua, segu-

ru asko; ta ezkututik artuko zizkioten markak diximulo ederrean, deskuidatu ezker, bere aurka zebiltzarenak.

Orrelako kasoak entzun gabeak ez gera, ta gertatuko ziran tarteka, noski. Jokoan tranpa asko bear dala esaten dutenak badira banaka batzuk, nik ortaraiño ez dakidan arren.

Arroitz korrikalari aundi ura kontrariorik gabe gelditu zan; eta geroxeago bi aziotara asi ere bai jokutzen: aizkoran eta korrika. Baiña emen ere ez det segurantzi osorik, garbiro gauzak esan aal izateko. Ez baidakit zenbat apustu jokatu zituen bi azio auetan.

Aizkora-lanerako, gorputzean pixu geiago komeni; ta korrikarako, berriz, kilo asko artzea kalte. Ta tarte ortan ibili omen zan asmatu eziñik, nik entzun nuenez.

Indarrez jantzia zala iduritzen zitzaieten pertsonak baziran ugari antzean; eta ori uste izateak ez nau bate-re arritzen.


Guk geronek ere bagenekigun orrenbeste, ainbat biderrez ikusi genduenez. Korrika-jokoak ere indarrak erabaki oi ditu azkenean, edo sarritan aurretik igoal.

Egun batez, Bizkaiko erri batean gertatu zitzaion polita. Andoaingo Irizar korrikalaria zuen kontrarioa: Maria Luisa famatu onen aita, korrikalari dotorea. Baiña uste det bentaja pixkaren bat eman ziola Arroiz-tarrak Irizar Andoaingoari.

Eta, lanak bukatzeko lau edo bost buelta falta zitzaizkioten garaian, plazako sokari eusten zion estaka jo zuen anka-muturrarekin Joan Kruzek, eta lurrera erori baiño leen bi besoen gaiñean buelta-kanpana eman bere gorputz osoari ta zutik mutilla! Ala ikusita, jendearen txaloak ez ziran makalak.

Korrikalari bildurgarria zan Arroitzko txikia!

El Diario Vasco, 2001-03-18.



Luxia, Errotazar eta Sagastizabal. 1953.03.16.
El Diario Vasco: GAR.

Joan Jose Narbaiza, "Luxia"

Aizkora, egurra eta aizkolariak beti aldemenen edo Aburu-muiñen erdian dauzkadala dirudi; ta, den-denak aipatzea zailla dan arren, batzuen izenak ezingo ditut utzi, aaztuta baleude bezela, baztarreko zuloan sarturik.

Eta gaurko auxe aukeratu det: Joan Jose Narbaiza Ibarbia, Luxia aizkolari sonatua izandako uraxe. Aspaldi samar mundu ontatik ezkutatu zitzaigula jakingo dezu noski, irakurle, Azkoitin jaio ta bertan azitako seme indartsu ura.

Nik neronek prankotan ikusi nuen aizkora, erriz erri genbiltzala, pesta-giroko exhibizioak egiten; eta gustatu zitzaidan, garbiro aitortzekotan.

Aizkora jokatzan zuen garaian ere mutil aundia zan, gorputzez alegia; eta gero, langintza ori utzi ondoren, gizentzera jo ta gizon pusketa izugarria egiteraiño iritxi.

Egun batez, Naparroako Donezteben aizkora apustua jokatu zutela gogoan det. Baiña Luxiak ez zuen parterik artu joko artan. Beste aizkolari batzuk ziran. Une ontan ezin nezake eman beraien izenik, aaztuta dauzkadalako.

Gu, Uztapide zana ta biok, bertsoara joanak giñanez, eguerdian bukatu genituen plazako lanak; eta gero, bazkari eder bat egiñez, kontu kontari gozo ta paketsu ari zan maaian jende talde aundi bat. Aizkora an zebillen gora ta beera gelditu gabe.

Luxia aizkolaria, berriz, nerekin bertsolaritzari buzur izketan, ain zalea izanik; eta aldemeneko lagun batek onela galdetu zion:

-Aizu, Luxia: jakin al genezake zuk orain zenbat pisatzen dezun, gutxi gora-beera?

-Bai, gizona; esango dizut. Nik oraintxe, bertan nagoen bezela, baskularen gaiñera igo ta eun eta ogei ta amabost kilo pisatuko nituzke.

Auxe izan zan Luxiaren erantzuna. Arrazoi orrek garbiro erakusten du jokoari utzi zion ezkeroztik asko astundu zala, batere dudarik gabe gaiñera.

Berez tailla aundiko gizona baizan; eta, jokoaren kezka estuetatik lasaitu orduko, kiloak errez artu gorputzean. Apusturako prestatzen nekatu diran askori gertatu zaiote diogun xixtima klase ori.

Dana dala, goazen aurrerago. Luxia Eibarren prestatu zuten punta-puntan.

Adibidez, an bazan gizon aberats kapritxoso purrukatu bat, guk entzutea genduenez, Iturrino izenez eza gutzen zutena jenderik geientsuenak errian bertan ere, ta andik kanpora zer esanik ez, noski.

Apusturako griña izugarria omen zuen Iturrino zanak, eta naiko dirua berekin. Ara or bi tentazio gizona dantzan jarri arazten dakitenak. Nik alamoduzko kasoak ikusi ditut sarritan.

Luxiari buruz, berriz, auxe entzun izan det: ongi prestatu zutela Naparroako Martin Gartziarenaren aurka aizkoran jokatu aal izateko, bearrezko zitzaizkion laguntza guztiak emanda. Garai artan beste iñor ez bezela zaindu ta tratatua omen zegoen Luxia.

Martin Gartziarena Leitzako semea da, gizon umil askoa. Gure kinto laguna, nik aiñaxe urte ditu.

Luxia, seguru esateko ez dakit, baiña iru bat urtez zaarrago zala uste det, gu baiño.

Leitzatar Martin Gartziarena asko famatzen zuen Luxiak. Beingo batez onela entzun genion, koadrillan aizkora kontuan izketan ari giñala:

–Gartziarenarekin poliki ibili, mutillak! Nere kontra bi joko galdu dizkik; baiña bazekiat zer falta duen: Eibarren gure ondoan prestatuko baldin balitz, ni naitzen baiño aizkolari ohea jarriko uke Martin Gartziarena!

Auxe esan zigun Joan Joxe Narbaiza Ibarbia, Luxia aizkolari ospetsua izan zanak.

Eta geroxeago Latasa agertu zan bat-batean emengo plazetan, ixilik basoetan ibilitako kukua; ta arekin egin zuen bere azkeneko apustua Luxiak, nik dakidala beintzat.

Erramon Latasa Naparroako Sunbillan jaio ta bertan azi ta bizitutako semea zala uste det, oso oker ez banago, aizkolari aundi ura.

Donostian jokatu zuten apustu sonatua Erramon Latasa zanak eta Joan Jose Narbaiza zanak. Emen jende asko zegoen Luxiaren alde, ta dirua ere bai. Baiña Latasak irabazi joko, ta kito! Antxe bukatu disputa denak.

Ziri zorrotza sartu omen zuen Latasak egun artan. Ikustera joan ziranak ezurretaraiño bildurtuta utzi zituen, adibidez. Ez da dudarik.

“Aritza”

Mutrikuko arri-jasotzaillea

Arri-jasotzailleak beti gogozko izan ditudanez, gaurko atal au ere gai beraren bidez osatzen aaleginduko naiz borondaterik onenez.

Euskal Erri ontan apizio izugarritzkoa ezagutu degu langintza ortarako, oso samurra ez dan arren. Arri jasotzen, gorputza eta burua biak nekatu bear dirala esango nuke nik, nere iritzi bat ematerakoan.

Bestelako lan guztietan bezelaxe, gizon askoren indarrak eta aalmenak neurtzen dakien opizio astun bat da ori, benetako baldarra ta torpea.

Baiña gure gustokoa dala aitortu nai nuke era berean; leendik datorren griña izanik, biziari eusten diona, ta nekez galduko dana gainera, lurralde auetan batez ere. Gizonen arteko norgeiagoka ikusi-zale baigera geientsuenak.

Bada urte mordoska dexentea, egun batez Mutrikun, erriak Aritza arri-jasotzaille ospetsua zanari omenaldi eder bat egin ziola. Ainbeste ta geiago ere mereziko baizuen bere umiltasunak eta arri jasotzen erakutsitako talentuak. Gure mutil kozkor denboran, fama ikaragarria zuen Aritza mutrikutarrak.

Nik diodan omenaldi sonatu artan bertsoara joan nintzalako ezagutu nuen Aritza aundi ura; ta gaur oraindik nere begien aurrean daukadala iduritzen zait bere itxura, bikaiña bezin egokia gorputzez.

Oso altua zanik esateko moduan ez nago. Ordurako zaaturik baizegoen, eta pixka bat buru-makurtua. Baiña gizon zabalera izugarritzkoa izango zala bere garaian antzematen zitzaion aren espalda-arteari.

Izketan, berriz, zoragarri utsa. Ni gozatu arazi nin-
duen unetxo batez ederki, eta ez daukat aaztua.

Gero, andik urte batzuetara, Mutrikuko Maixa base-
rrian ganaduentzat ukuillu berria egiten ari giñala, Ari-
tza arri-jasotzaille sonatuaren semea joan zitzaidan
Maixa baserrira bertara, eta onela dio gure gizonak:

-Emengo lanak aurreratu aal dituzute, Lasarte?

-Bai; menperatu ditugu. Zer dezu, ba? -galdetu
nion.

Eta:

-Nik ere lana emango nizuke, ta presakoa, gaiñera.

-Bueno! Erremintak Oriora eramán baiño leen, ea
egiten degun zere lan ori. Baiña zer material falta dan
ikusit bear det ortarako. Segituan joango bagiña, obe.

Alaxe, bertara joan da esan zidan:

-Ganaduentzat terreno-sail au aspaldi itxi genduan.
Baiña ateak erorita nola dauden ikusten dituzu, Lasar-
te; ta auek tajuz jartzea nai nuke.

-Ea, ba! Gure taillarrean badauzkagu misagrak,
eskuz egiñak, auentzat oso ongi etorriko lirakenak; eta
biar Maixa baserriko obrari bukaera emanda, etzi goi-
zean ementxe izango gaituzu -esan nion.

Eta egin ere bai. Nola ez?

Nik laneko orduetan ixiltasuna nerea nuen, beti ez
bazan ere. Presa zegoenetan, berriketa gutxi erabiltzea
gustatzen zitzaidan. Gero, bazkaltzeko denboran, itze-
gin lasai eta esan bearrezko gauzak.

Mutrikun, Aritza arri-jasotzaille zanaren semea
arrazoi mamitsuak ematen zekien gizon jantzietao bat
zan leen. Ez dakit gaur bizirik jarraitzen duen edo
mundu ontatik ezkutatua dan.

Baiña egun batez, eguerdian, maaian jaten ari giña-
la, arri-kontuak berritu genituen. Bere aitaren pasadi-
zo pranko esan zizkidan, eta gero onela galdetu zidan:

-Nai al zenituzke gure aita zanaren arriak ikusi, Lasarte?

-Bai! Pozik gaiñera.

-Lanean asi aurretik berealaxe erakutsiko dizkizut.

Alako egokiera eskura etorrita, nork ez zuen ixtimatu-tuko, ain zalea izanik, ni garai artan nintzan bezela?

Joan giñan biok eta an zeuden arri bildurgarriak, leengo egitura zaarrekoak, erretangularrak, goitik beerraiño berdin moldatuak. Baiña nola, ordea! Oso latz utziak. Aiek bizkar gaiñera jasotzerakoan, min emango zutelakoan nago.

Zenbat arroa pisatzen zuten esan bazidan ere, ez daukat gogoan. Baiña asko, nolana ere. Ni, beintzat, arritu arazi ninduten. Ordurako arri galantak ikusita neuzkan arren, aien antzekorik ez sekulan iñun. Gain-azalak ongi legundu ta txukundurik eduki balituzte, erakusgarri bikaiñak izango ziran.

Eta beste plomozko edo berunez egindako kubikoaren itxurako txiki bat bazegoen arrien aldemenean bertan. Ez zeukan buelo aundirik; baiña amalau arroa pisatzen omen zituen ark ere.

Beraz, jostailu politak erabilitako karga jasotzaille arrigarrietako bat zala bistan dago mutrikutar Aritza zana.

Gizon apala, umilla ezin geiago ta arrokeririk eza-gutu gabeko pertsona sana iduritu zitzaidan neri.

El Diario Vasco, 2001-04-13.

Joan Iburguren, Aiako Manterolakoa

Kiolak gogoan beti edo geienetan. Auxe da nere Kametsik gozoenetako bat, denbora pasa nagoen bakoitzean erabiltzen dedana. Izan ere, ain dira gauza politak gustatzen zaizkionarentzat.

Oraingoz etxetik irten gabe patxada ederrean ikusten ditugu telebistaren bidez ainbat kirol klase. Bat nai ez badezu, bestea ortxe daukazu, irakurle; ta onena edo grazirik geientsuena egingo dizunari begiratu zenezaiokezu. Ori zure gain dago, beraz.

Aukera osoa ixtimagarri biurtu leike, ta gaurko albiste aukerak ere zure gustokoak izatea nai nuke.

Arri-jasotzaille zaar bati buruz idaztea pentsatu det. Nik ongi ezagutu nuen gazte denboran eta badakit bere berri: Joan Iburguren.

Aiako Manterola baserrian jaio zan gizon ospetsu au. Adiñez gu baiño gazteago da ondotoz ere. Irurogei ta zortzi edo bederatzi inguru ortan ibili bearko du, urtetan alegia. Gauzak garbiro esan ditzagun, badaezbada ere.

Gaztetan mutil ederra zan gorputzez; egoki aparta. Izlari xuabea, ta ixilla ere bai, era berean. Ez zuen umekerizko arrotasunik erabiliko berealakoan. Beti umil eta gozo ikusi nuen nik neronek beintzat, gurekin batera zebillenetan.

Ez giñan urrutira joaten. Aiako errian bertan pasatzen genituen igande-arratsaldeak.

Nik, bertsotan asi nintzanetik aurrerakoan, deiak ugaritzen zijoazen bezela aieri erantzun bearrez, Aia utzi ta kanpora aldegin nuen sarritan garai artan, diru

pixka baten jabe egin aal izateko. Beraz, bertsoaritzari eskerrak eman bearrean aurkitzen naiz.

Joan Iburguren oso gazterik asiko zan arri jasotzen. Gauetik goizera bezela entzun genduen Aiako kalean Manterola baserrian bai omen zegoela arri-jasotzaille dotore aparta.

Agian izan zitezkean bakarren batzuk ordurako gauza orren berri zerbait jakinda zeudenak ixil-antzean.

Baiña nik ez nekien ezertxo ere. Alkarren inguruan edo koadrillan genbiltzanetan, ikusten nuen oso zintzo zebilela ta ez ziola bere gorputzari tratu txarrik eman naiko. Orixe bakarrik erabiltzen zuen gogoan nere buruak.

Baiña geroxeago, ordea, plazan agertu zitzaigun gure adiskidea, ta ez nolanaiko mutilla. Fama galantaren jabe laixter egiña zan. Nik esibizio batzuetan ikusi nuen, eta jende guztia ao zabalik utzi oi zuen.

Aren nerbioak eta bizitasuna ikusgarriak baiziran. Arriari eskuak eransten zizkion bakoitzean, txalo zaparrada ederrik entzundako semea izan zala badakigu.

Baiña ez zuen luzaroan jarraitu arri jasotzen. Gazterik asi ta utzi ere bai, ta kito! Bizimoduko martxari eldu leenbaileen.

Buruz gauzak pentsatzeak asko balio du mundu ontarako, ta Joan Iburgurenek ortan asmatuko zuen seguru asko. Baiña arri-jasotzaille garbia bezin txukuna ta ederra uraxen juzkatzen zuten asko ta askok.

Ez dakit zenbat apustu jokatu zituen guztira, seguru esan aal izateko. Batean enpate egin ote zuen daukat errezeloa. Beste gainontzeko denak irabazi, noski; ta galdu, berriz, bat ere ez.

Aspaldi pasatako kontu zaarrak dira auek. Baiña Federazioko artxiboan gordeta edukiko dituzte, dudarik gabe, garaian garaiko gauzak, garbi ta zuzen, nik ez

bezela; ta bertara joatea aski luke, norbait orren peskizan baldin balego.

Dana dala, urte aietan erabiltzen ziran arrietatik gaurkoetara badago alde ederra. Molde-berriturik daude arri klase batzuk. Erretangularra ta zilindroa, batez ere.

Leen goitik beeraiño neurri berdiñekoak ziran. Beeko barren aldean esku-lekuak jartzen zizkieten, aietatik eldu ta bizkar gaiñera gerrian buelta emanda jasotzeko. Arri neketsuak benetan. Zenbat eta kilo geiago, orduan da okerrago.

Baiña aspaldiko urte auetan asko aurreratu dala badakigu gai ortan. Gaur arri erretangularrari, pisua non komeni zaion, antxe utziko diote; ta kalte egingo dion aldetik, kendu. Jaso bear duenarentzat lana erreztu, aal daneraiño beintzat.

Eta arri zilindroarekin gauza berbera gertatzen da. Plantillak aldatu dituzte.

Eta mutillak prestatzen ikasi ere bai, nereko.

Ori orrela izanik, markak goraka joateak iñor arritu araziko al du? Nik, nere ezjakiñean, ez det uste.

Emen arri kubikoa da bat, moldez aldakuntzarik gabe leengo egitura berean dabillena, ta jendeak asko ixtimatzen duena.

Eta bestea, berriz, bola borobilla, lepoan bueltaka darabilkitenean oso ikusgarri dotorea ta bizi utsa.

El Diario Vasco, 2001-04-17.

Itziar eta Arteondo arri-jasotzaillea

Itziar aldera begira nagoela ametsetan gaua pasata lesnatu naiz gaur goizean. Zer esan nai ote du orrek? An ere badirala gure lagun eta adiskide jatorrak, aipatzea merezi lutekenak. Ez gutxi, gaiñera.

Itziarren bertako jendea bertsozale purrukatua izan dala badakigu ongi baiño obeki ere; ta, ain puntu egokian egonik, inguruko errietatik ere gazte askoren gogozko biurtu oi da, pestak diran egunetan batez ere.

Lastur aldeko larre-beiak eta zezenak ikusi nai dituenak, antxe aurkitu lezazke aukeran. Baiña aien-gandik zer dago? Ostikoak merke ta adarkadak propina, deskuidatzen danarentzat.

Oraingo berririk ez dakit; baiña leen, elizaren ondoko plaza itxi buelta osoan, jendearentzat exerleku ederrak jarri itxituraz kanpotik, eta orrela moldatu oi zituzten gauzak, iñork miñik artu ez zezan.

Arrixkuak aurrez kendu ta txukun antzean prestatu, badaezbazan ere. Segurantziz jokatzek asko balio baidu, ta ortan kapritxoso amorratuak genituen itziar-tarrak.

Ala ta guztiz ere, ixtillu politik ikusten genduen tar-teka zezenak edo larre-beiak ukuillutik plazara ateratzen zituzten bakoitzean. Aien korrika-saioak, pixka bat nekatu bitartekoak beintzat, pertsonak izutu arazteko obeak, Donostiako Kontxan paseatzeko baiño.

Animali klase orrekin kontuz ibiltzen dakienak asmatu oi duela ez nuke dudarik jarriko.

Toreroak ere goizetik pixka bat bildurtzen dira; baiña, arratsaldera ezkerro, berotu dexente ta geiegi arrixkatu zezenaren aurrean.

Eskarmentu gabeko gazte jendeari gertatzen zaizkio okerrrik aundienak, eta errezena ere bai sarritan.

Baiña zaar jendea ere asko gozatzen da, ordea, zezenak eta mutil gazte sasoikoak alkarrekin borrokan dabiltzala ikusi utsez.

Orixe da benetako apizioa, ta auskalo noiztik dato- rrena. Itziarren, Deban eta Lasturren, iru oietan, zeze- nik ez bada, ez dago pesta itxurazkorik.

Orrek adierazten digu garbiro aspaldiko oitura zaa- rrak galtzerik ez dala komeni inñolako moduz, ez erri aundietan eta ez txikietan.

Beraz, aalegindu ditezela leengoari bizibidea ematen aurrerantzean ere, pake ederrean jolastuz. Nere iritzi bakarra auxe da: urtean beingo jai nagusiak ongi pasa aal bada.

Orain gaiez aldatuko naiz, baiña Itziartik beste inñora irten gabe, badago zer esan ugari ta. Itziarrek baditu bere meritu garrantzitsuak, nik entzuerak dauzkadanez.

Gure mutil kozkorretako denboran, Naparroako Leitzan ere izen aundietakoa zuen gizon ospetsu baten aipamenak nola ziran egitea pentsatu det.

Arteondo arri-jasotzaille famatu ura bere izatez Itziarren jaiotako semea zalakoan nago, adibidez, gai- ñera.

Baiña, guk kontu auek oso gutxitan erabili ditugu- nez, baliteke nik gaizki ulertzea gauzak; eta, deskuido santuz alakorik baldin balitz, irakurleari barkamena eskatzen diot aurrez.

Baiña, leentxeago esan dedan bezela, guk Naparro- ako Leitzatik asita dakigu Itziarko Arteondo arri-jaso- tzaille zanaren berri. Alamoduzko fama eduki baizuen garai artan.

Pena bakarra daukat: bere jatorrizko izen-apellido- rik ez nuela ikasi. Bestela, gustora idatziko nituen atal

ontan, jendeari argibide geiago eman aal izateko. Baiña onenbestean bearko du.

Nik gogoan dedala, egun batez Ondarroan ezagutu nuen Arteondo. Ostatu batean sartu giñan eta antxe zegoan, baztarreko maaian exerita, porroi bat ardo aurreko aldean zuela, bera bakarrik, izketarako lagunik gabe ta triste antzean.

Gizarajoa! Arri jasotzeko sasoi ederra zeukan garaian bilduko zitzaizkion ari lagunak, seguru asko. Baiña, zaartu ezkeru, orrelaxe sobratzen da emen pertsona.

Ori jokoetan ibili diran askori gertatu zaiotela jakinik ari naiz ni zerbait idazten.

Gizon zaar aalmentsuak izandako aiek, il ziran arren, ez genituzke sekulan aaztu bear, noizean bein aipatu baizik, eta eskertu, merezi duten neurrian.

Gutxienez ere, bakoitzari berea aitortu eta, aal bada, eman zor zaiona borondate onez.

Plaza-gizon inportanteak baziran leengo guraso zaarretan ere, gaur dauzkagun bezelaxe. Orain marka obeak egiten dirala egi osoa izango dala badakigu.

Baiña Itziarko Arteondo bera noraiño iritxiko zan nork esan lezake, ongi prestatzeko aukerak jarri bali-tzaizkio? Ortxe dago koska bat, neurtzen asko kostako litzaigukena.

Dana dala, zorionak Itziar eta Arteondo zanarentzat. Urrengo artikulua osatzeko ere badet beste gizon aundi bat bertan.

El Diario Vasco, 2001-05-16.

Jose Antonio Gisasola, "Zelai"

Ea, ba! Oraingo pausoak Bizkai aldera naramate, Eango ezagunak zoriontzeko asmoz, nere aalegin denak ezer gutxi balioko duten arren. Agian baliteke bakarren batzuek ontzat artzea ere, ta nik orixe istimatuko nuke benetan.

Arri-jasotzaille eder zoragarri baten albisteak eman nairik nengoenez, iritxi da txanda, ta au ezin nezake alperrik galdu, iñundik iñolaz ere.

Uste det bere jatorrizko izen-apellidoz Jose Antonio Gisasola ote dan; baiña, ala ez balitz, barkatu dezaidala mesedez erregutzen diot. Guk beti, edo geientsuennetan beintzat, Zelai izenez ezagutu degu arri-jasotzaille aundi au.

Oraindik oraintsu entzun nuen erretiratzekotan omen zebilela plazetatik, arri jasotzeari utzita noski.

Badu aspertzeko aiña lan egiña, ta arrazoi osoz utziko duela derizkiot, ainbat estuasun eman dizkion langintza gogor eta torpe ori.

Jakingo nuke pozik zenbat tonelada erabili dituen bere beso, belaun, gerri eta lepo gaiñean, bein asi zaneetik oraindaiño bitartean.

Bizkaiko Mallabin, egun batez, bertako pestak zira-la-ta, izan giñanez, antxe itzegin nuen nik leenengo aldiz Zelairekin. Eguerdian, bazkaltzeko denboran, biok alkarren ondoan egonik, sartu giñan arri jasotzeko kontuetan, ta onela zion gure Zelai mutil gazte umillak:

-Ni neroni ere arri jasotzeko prestatzen ari naiz, Lasarte.

-Bai?

Ta:

-Bai. Joko bat egin genduen, eta or nabil bildurrez. Ez dakit zer gertatuko dan.

Artean oso gazte baizegoen, soldadutzara joan gabe. Emeretzi urte zeuzkala esan ote zidan daukat erreze-loa; ta plazan jendearen aurrean nerbioso jarriko zan kezka ezin zuela burutik kendu zion berak.

Eta nik galdetu nion:

-Etxean egiten dituzun entrenamentuz konforme al zaude?

Ta:

-Bai. Ortan bai.

-Beraz, egon zindeke lasai. Etxean lana ongi egiten duenak, plazan ere egingo du, gazte.

Auxe erantzun nion, Mallabin bertan, Zelai arri-jasotzaille ospetsuari. Ez dakit bera gogoratuko dan egun artako gure alkarrizketaz. Baiña gauzak orrelaxe ziran, eta geroztik erakutsi digu ederki asko zer mailla-ko artista izan dan.

Bildurgarri oietakoa, ainbat ikusleren iritziz; eta nik neronek ere ez nuke gutxiagorik esango Jose Antonio Gisasolari buruz.

Leen, gure gazte denboran, beste arri-jasotzaille bikain bat sortu zan erri berean: Mallabiko Txikia edo Chiquito de Mallabia deitzen ziotena.

Gogoratzen naiz gizon artaz. Inork uste gabeko arriak jaso baizituen bizkar gainera. Fama galanta erabili zuen bere garaian. Gisa ortako pertsonak ez genituzke aaztu bear inoiz ere, ta artu bitza nere zorionik beroenak Mallabiko Txikiak, bizi baldin bada beintzat.

Eta pasadizo au bere ontan utzirik, Jose Antonio Gisasola Zelai aundiarengana itzuliko naiz berriro.

Gizon apal onen doaiak ongi esplikatzekotan, balegoke zer kontatua. Arrokeriz ez du bere izakerarik

narrastuko. Beti erabili duela errespetozko umiltasuna badakigu plazan, jendearen bistan; eta orretzek lagundu oi dio pertsonari aundia izaten sarritan.

Nik uste nuen, entzunda nengoen bezela, arri jasotzeari erabat utzi ziola ta ez genduela berriro ikusiko.


Baiña 2000-garren urteko martxoaren 24-garren egunez, Leitzako Amazabal pelota-lekuan, Iñaki Perurenaren jaialdi bildurgarri artan, arri kubikoarekin exhibizio zoragarri bat eskeiñi zigun Jose Antonio Gisasola Zelai ospetsuak. Ederki astindu zuen arri kubikoa.

Emen edozertarako egokitasuna bear da leenengo, ta Zelairi orixe ikusten zaio gorputz osoan. Gurdiaren kurpilla bezela edo gisa beretsuan erabiltzen du arria, inun utsunerik gabe. Belaun, zanko eta gerri-aldea aurrera sartzearekin batera, atzera okertu galanki, ta besoen bidez bizkarrean nibeldu dotore asko.

Ta, oiek denak orrela izanik, beste gauza garrantzitsu bat badu aipatzea merezi lukena: petxu on aparta.

Marka berriren bat egitera, edo-ta leengoa ontzera dijoan bakoitzean, ikaragarritzko jo-aldiak erabiltzen dituenek, arnasa estutzean, okertuta gelditu oi da petxua, zearo beteta. Baiña bai denbora gutxian freskatu ere ta berriro arriari eldu ta azkar jaso gaiñera.

Sekulan dudako golperik ez. Beti seguru ta garbi. Arri txiki antzekoetan maixu aundi bat izan dala aitortzen dute ortan ulertzen duten denak, zalantzarik gabe, Jose Antonio Gisasola, Zelai, mallabitarra.



Iñaki Perurena arri-jasotzailea. 2001.03.21.

Iñaki Perurena

Leitza aldera goraintziak bialdu nai nituzke gaurko Latal onen bidez. Uraxe baida nere sorterria, zorionez; eta ango lagunetaz gogoratzea ez da beste munduko gauza bat neretzat.

2001-garren urteko martxoaren 24-garren egunez eta larunbat-arratsaldez ikusgarria zegoen Leitzako Amazabal pelota-lekua.

Nik telebistaz ikusi nituen ainbat gustatzen zaizkidan gauzak. Apizioaren eragiña da ori, ez geiago ta ez gutxiago, ta eutsi dezaioGUN berari bizirik, aal dan bitartean.

Iñaki Perurena gure lagun ixtimagarriak lezio ederra eman du oraingo ontan ere.

Gizon ospetsu orren kelmenak ez dira nolanai aazutzeko modukoak; eta, Leitzako errian bezela, Euskadi osoan ere zutik iraungo dute egin dituen lan bildurgarri oiek.

Sei ordu ta ez dakit zenbat minutu pasa zituen, seguru esan aal izateko, arriarekin borrokan eten gabe. Eun kiloko arri zilindroari milla irureun eta amairu jaso-aldi eman zizkiola uste det.

Kilotara biurtuta, eun da ogei ta amabi milla ta zazpireun kilo izango dira, noski; ta, beste modu batera esanik, berriz, eun da ogei ta amabi tonelada ta zazpireun kilo.

Nik orrelaxe ulertu nituen gauzak. Baiña zerbaiten okerrik billatzen baldin badu, barkatu dezaidala mesedez erregutzen diot Iñaki Perurena nere lagun aundiari.

Ni ezin nintzan gelditu gizon zoragarri au zoriondu gabe, ta artu dezala Lasarteren besarkadarik maitekorrena.

Nik atal ontan idazten ditudan baiño zuzenago artuak edukiko dituzte Leitzako Amazabal pelotal lekuan egindako marka, pasatako denbora juxtua ta denak. Baiña leendabiziko asieran berreun kiloko arri erretangularrari zazpi jaso-aldi eman zizkion, zein baiño zein egokiagoak.

Bazekien zertara zijoan, eta denbora alperrik galdu gabe dotore asko bukatu zituen bere lan denak.

Buruz ere ongi jantzia zegoela dudarik ez dago. Bestela, oso zailla litzake postura artan martxa neurtuta eramaten.

Nik nere begiak ez dakit zertaraiño nekatu arazi nituen telebistari begira. Ura zan zoramena edo ilusio itxua!

Pena bakarra daukat: ez nuela den-dena nai bezela ikusi egun artako Perurenaren langintza. Telebistak, tarteka beste gauza batzuk eman bear zituelako, moztu egiten baizuen arri jasotzea, ta nik une uraxe galtzen, lastimagarria bazan ere.

Baiña, ala ta guztiz ere, gauean gustora oeratu nintzan, arratsalde ederra pasa ta afaldu ondoren. "Ori dek gizonaren talentua! Eutsi goiari, Iñaki!" esaten nion nere kasa.

Sekulan aaztu eziñezko gauzak ikusten ari ote geran errezelotan nago.

Ta geienbat arritu arazi ninduena auxe izan zan: arria bizkarrera jaso ta beera botatzerakoan berriro eldu aal izateko moduan zutik uzten zuela, ta txukun asko gaiñera.

Zuzen eta prest eman bear zizkion minutu bakoi-tzeko jaso-aldi denak, anka geldian ematen zizkion; au da, oiñik lurretik aldatu edo mugitu gabe.

Arri-jartzailerik ez zuen iñor. Noizik bein izerdia sekatu zezan, bere semeak esku-oiala ematen zion, eta edateko botillako ura ere bai, egarria sentitzen zuen garaian.

Gaiñontzeko lan guztiak berak bakarrik egingo zituen Iñaki Perurena aundiak. Berrogei ta lau urte baditu. Edadea aurrera dijoakio, ta noizbait utzi bear-ko dio arri jasotzeari. Baiña ez saiatu gabe; bereak eta bi eginda, noski.

Leitzako Amazabal pelota-lekuan jendetza izugarria bildu omen zan, neregana Oriora etorri zan gizon batek esan zidanez.

Jaialdia ere egunari zegokion bezelakoxea antolatu baizuten. Aizkolariak baziran, arri-jasotzailleak ere bai.

Perurenaz aparte, Zelai bizkaitar sonatuak dotore erabili zuen bere arria; ta beste bat ikusi nuen arri aundi samarra jasotzen. Baiña ez dakit nungotarra izan zitekeen. Nik ez nuen ezagutu; ta geiago baldin baziran, ezjakiñean nago.

Dana dala, gure Leitzan bada indarra ta gatza oraingoz, eta gerorako etorkizun ederra, itxurak diranez.

Beraz, Iñaki Perurenari eskerrik beroenak emanaz bukatu dezadan gaurko atal au, ta urrengora arte denoi agur!

Agustin Ostolaza

Beti ez bada ere, aspalditxoan kirolarietaz gogoratzen naiz zerbait idazterakoan. Au ezin det burutik kendu inñolako moduz.

Zer ote da ain zalea izatea? Espelikaziorik eman ezin nezaioken zerbait, dudarik gabe, nik nere barruan daukadan griña. Ta ortik aparte, berriz, kirolari bakoi-tzarenganako sentitzen dedan maitasun berezia.

Gaurko atal au osatu aal izateko ere, badet aipatzea merezi duen adiskide zaarretako bat: Agustin Ostolaza, arri-jasotzaille ezaguna, Arruan edo Arronan jaio ta bertan azitako seme trebea.

Ainbat biderrez ikusi genduen Euskal Erriko plazetan arri jasotzen, pesta egunetan batez ere, bere exhibizio dotoreak egiten-eta.

Apustu kontuan ezin nezake garbiro adierazi zenbat jokatu zituen; baiña baliteke nik dakidan baiño geiago izatea.

Gizon gogorra ta indartsua zala entzuten zitzaion jende askori; nik pentsatzen nuen gauza berbera.

Gorputzez ez zan altua; zabal antzekoa ta egokia bai, ordea. Ongi osatua.

Arri txikietan marka onak jarri omen zituen bere garaian. Orrek esaten digu naikoa. Ez da besteren bearririk, noski.

Bere burua zigortzen jakin bearko du kirolari batek, ongi prestatu nai baldin badu; ta zintzotasuna erabili, jan-edanez ez-ezik, eguneroko entrenamentuetan ere bai. Ta Agustin Ostolaza ortan zuzen aparta omen zan, adibidez.

Nik pixka bat tratatu nuen, eta oso gizon atsegiña iduritu zitzaidan beti. Arrokeririk gabekoa ta izketarako umilla, gozoa.

Gauzak nolainai ez zituen esango, ta ez da komeni ere. Bestela, berak aiña jakingo baizuten batere zer ikusirik ez zeukaten askok.

Beingo batez entzun nuen gertakari polita, osaba ta bere illobaren artekoa.

Osabak, diru-jokatzaile purrukatua izanik, jakin du arri-jasotzaile on batekin sozio dagoela illoba, ta laister jokatzekotan dala beste norbaiten aurka arri-jasotzaile ori; eta izentatutako egunaren bezperan joan da osaba bere illobarengana, ta galdetu dio ea zer modutan prestatua daukaten mutilla.

Ta illobaren erantzuna:

–Zertarako nai dezu jakin, osaba? Dirua segurutik jokatzeke asmoan baldin bazaude, aukera jarriko dizut. Biar plazara joan da nai dezun bezela jokatu. Guri mutilla ederki kostatzen zaigu, gauzak nolainai esateko, osaba.

Ta or konpon ortik aurrera. Nolako galdera, alako erantzuna. Ez dakit bestelakorik merezi zuen azpitanaren billa zebillen osaba maltzur arek.

Nik neronek sekulan ez diot iñori ezer galdetu apustuko joan-etorrietan. Ezta sosik jokatu ere iñoiz, naiz eta apustulari askorekin tratatu dedan arren.

Nik ez det ortarako apiziorik izan. Parean egokitu zaizkidan norgeiagoka batzuk ikusi ta kito. Diru gutxi daukan gizonak etxeke martxari begiratu bear dio leenengo, nere ustez.

Agustin Ostolazak ere ez luke esango Lasartek ezer galdetu zionik, arri jasotzen ibili zan urte aietan.

Eta, kontu kontari ari naizen ezkerre, Ostolazaren seme bikain ori aipatu gabe ezingo det utzi. Aita apustulari ona izan dala badakigu, ta bere ordezeko orain

semea jarri du martxan. Ez da gutxi famili baterako bi gizon orrelako maillakoak izatea.

Badira urte batzuk Agustin Ostolaza emen Orion arri jasotzen ikusi nuela, bertako pestetan gaiñera, ni oso oker ez banago.

Ta bere semea ere ekarri zuen. Arri zilindroaren itxuran prestatutako egur bat jasotzen jardun zan semea, aitaren aginduz. Artean gazte zegoen mutil kozkor mardul eta dotore askoa. Baiña aurrez ikasten ibilita zegoela ezagun zuen. Emengo jendeari grazi izugarria egin zion.

Egun artan, gu bertsotan oltzaduraren gaiñetik jardun giñanez, nik neronek beintzat gustora begiratzen nion mutiko eder zoragarriari. Pena txiki bat daukat geroztik: ez detala ikusi aurrez aurre itzegin aal izateko moduan.

Baiña ori da gutxienekoa. Telebistaren bidez ikusi baidet arri aundi samarren bat edo beste jasotzen, eta pozik arkitzen naiz benetan.

Nik kirolari onak eskatzen dizkiot Euskal Erri kelmentsua dan lurralde bedeinkatu oni. Sortu ditezela landare berriak ugari antzean, leengo zaarrak ordezkatu aal izateko.

Segi aurrera zuek, gazte ta sasoiko zaudeten bitartean! Eta, Agustin, agur zuri!

El Diario Vasco, 2001-06-09.

Kandido Txurruka, berriz ere

Mutrikura goraintziak bialdu naiean nengoenez, Mgaur det egokiera ta aprobe txatu dezadan aspaldi-ko partez.

Nik erri polit txukun artan baditut adiskide ixtimagarriak, eta aietaz ezin ninteke aaztu inolako moduz. Auxe da gertatzen zaidana, garbiro itzegiñik.

Mutrikun, Kalbaixo izeneko baillaran, urtean bein ospatzen zituzten pestak leen. Oraingoz ez dakit nola dabilzan. Baiña uste det jarraituko dutela oitura zaararak mantentzen, erri bakoitzak bereak izanik.

Leen aiña bertsozale baldin badauzka, ez dago errukitzeko moduan Mutriku, gai ortan beintzat.

Ni, emeretzi urte neuzkan garaian joan nintzan leenengo aldiz Kalbaixora bertsozara. Uztapide zana ta biok giñan; eta an ermitaren ondoko terrazaren gaiñetik kantatu genduen. Eguerdian saio bat eta arratsaldez bestea egin genituen.

Aurreko aldean bazan nork entzuna. Ura jendetza! Pozez eta gogoz kantatzen du, alako ilusioa dagoen tokian, bertsolariak. Guk suerte ori izan degula ezin genezake ukatu.

Erri aundi samarretan jende ugari biltzen zitzaigun. Txikiagoetan ere bai, beti ez bazan ere, geientsuenetan seguru.

Gaur telebistaz, irratiz eta egunkarien bidez, asko laguntzen zaiote bertsolariari; eta entzuleak oietatik jakin lezateke nundik nora dabilzan bertsolariak. Beraz, aukerak jartzen zaizkio bertaratu nai duen bakoitzari.

Leen, gure gazte denboran, ez zan orrelako propagandarik egiten; eta bearrik ere ez genduela izango pentsatu arazten dit jokabide onek. Ez dakit zergatik, baiña orduko bertso-eskeak ez zuen azkenik.

Beti gogoan dedan pasadizo bat kontatzera nijoakizu, irakurle. Egun berezi batez, Tolosako Napar-zubia deitzen zaionaren ondoko Zumardian, jaialdi izugarria antolatu zuten baserritarren izenean, adibidez, goizetik asita.

Baiña gu, Basarri bertsolari zana ta biok, arratsaldez joan giñan bertso-saioa egitera, jakiñaren gaiñean zer ordutan gendukan kantatu bearra.

Ta ango jendetzak ni arrituta utzi ninduen. Kirol-jokoak izango ziran goiz partean. Dana dala, amazapi milla pertsona bai omen ziran Zumardi artan.

Altaboza jarri ziguten, an txurrero edo oietako batek zerabilkiena; ta, eskerrak berari, bertso-saioaz kontentut gelditu zan jendea.

Ez naiz atzo arratsaldeko gertaerak idazten ari. Ni soldadutza serbitzera joan aurreko kontua zan. Geroztik urte sail galanta joan zaizkigu asko konturatu gabe, ta kito!

Oraingoz ixtori auek bere ontantxe utzita, berriro Mutriku alderako bidea artuko det. Ango adiskide zaararak bisitatzea komeniko litzake; baiña nik ibilirako ez daukat gogorik.

Mutrikun, besteak aaztu gabe, gizon garrantzitsu bat zoriondu nai nuke, aspaldi il zan arren, neretzat ez baida sekulan ilko: Kandido Txurruka, aizkolari sonatua izandako uraxe.

Nik egin nezaizkioken denak eta geiago ere, ezer gutxi baidira bera ordaindu aal izateko, merezi duen moduan.

Gure kinto-laguna zan, soldadutza alkarrekin serbitu ez bagenduen ere.

Gizon apala bezin umilla ta biotz samurrekoa beti iduritu zitzaidan, neretzat beintzat; eta beste askorengandik gauza berbera sarritan entzuna naiz ainbat tokitan.

Orixe da seiñalerik onenetako bat, pertsonaren ezaugarri berezia adierazten diguna; ta pozzgarri utsa, gainera, denbora berean.

Kandido Txurrukaren gizatasuna ongi neurtzeko motiboz jantzi ziranak asko famatzen zuten.

Or Zarautzen bazan Sujetoa deitzen zioten aizkolari dotore bat, Errota-zaar baserrian jaio ta azitako semea bere izatez; baiña gazte denbora geientsuena baso-lanetan pasa zuena, ta aizkoran artetsua aparta: Joxe Inaxio Esnal, mutil gazte apizionatu askoren maixu izandakoa.

Mutrikutar Kandido Txurruka zana ere Errota-zaar onekin asi omen zan aizkoran ikasten leenengo, eta izugarri gustatu zitzaion.

Egun batez galdetu nion Sujetoari:

–Zer modutan ikusten dezu, Joxe Inaxio, gure lagun Kandido?

–Nik gaur arteraiño ezagutu dedan mutillik jatorrena ori dek. Oraindik ez dik eskarmenturik, eta aizkoran torpe samar zegok. Baiña saiatzen dek agindutakoa umiltasunez egiten, eta badiagu aizkolari ona.

Auxe izan zan Sujetoak eman zidan erantzuna. Ez zeukan deskuido aundirik. Txurrukak laister erakutsi zigun aizkolari onetakoa zala.

Ez dakidana da zenbat apustu jokatu zituen, seguru esan aal izateko; ta zenbat irabazi ta galdu. Baiña geientsuenetan nagusitu zitzaiotela uste det bere kontrarioei.

Gure lagun Kandido Txurruka zana ez daukat aaztuta. Gorputzez eta biotzez, uraxe zan aundia!

Mikel Mindegia, berriz ere

Aizkolariak gogoan, arritzekoa ez danez. Nik nere Abizitzan ainbat une gozo pasa det, izan ere, aizkolarietari begira, batean eta bestean. Oraindik oraintsu bukatu da urrezko aizkoraren txapelketa sonatua.

Gu zaarturik gaudenontzat telebista ongi etorri dala aitortu bearrean aurkitzen naiz. Berari esker, maite ditudan kirol klase asko ikusten baiditut etxetik edo erritik kanpora pausorik eman gabe.

Erreztasunak galestiak dirala badakigu; baiña kotxe ta orrelako tresnak ez dira batere merkeagoak. Erosotasuna gauza egokia iduritu izan zait beti; ori bai. Gasolina, aseguroa ta oiek kostatzen, ordea, izugarri, ta eten gabeko gastua ortxe dago.

Dana dala, urrezko aizkoraren irabazlea Igeldoko Olasagasti omen zan 2001-garren urtekoa. Ez dakit, garbiri adierazteko, zenbat txapela dituen irabaziak guztira. Baiña dexente, seguru asko.

Nik zoriondu nai nituzke, leenengo, Olasagasti; eta, urrengo, urrezko aizkora ortan parte artu zuten aizkolari denak.

Baiña, batez ere, Ezkurran jaio ta bertan azi zan seme bildurgarri artaz gogoratzen naiz geienbat, aizkolarietaz itzegiterakoan: Mikel Mindegia. Berari eskeintzen diot gaurko ataltxo au, beste iñori ezer kendu gabe. Nik ez dakit gizon onen doaiak zertaraiñoakoak izan litezkean; edo nundik eta nola sortu zan dan bezelakoa.

Nik leenengo aldiz Albizturko plazan ikusi nuen aizkoran, mutil gazte dotorea. Amazazpi urte omen zeuzkan artean.

Geroztik zenbat egur ebaki ote du? Berak ere ez lioke galdera oni erantzun zuzenik emango, bat-batean beintzat, ez du jakingo ta.

Baiña aizkolari bakoitzari ezurretarañoko bildurra sartu diona Mikel Mindegia izan dala esango nuke, batere dudarik gabe.

Gaiñera, Euskal Erriko plazetara makiña bat jende joango zan Mindegia aizkoran ikustearren bakarrik. Zoragarri utsa izanik, plaza betetzen baizuen ezkurrtar maixu aundi onek.

Nik entzuera daukadanez, berrogei ta amabi urte edukiko ditu. Zenbaiten sasoi azkarrago pasatzen da.

Baiña Mikel Mindegiak oraindik eusten dio bere mailla modu arriskutsu bati; ta kontu aundiz ibili bearra dago, badaezbada ere, gizon artetsu onen ondoan.

Teknikaz baliatzen baida, beste iñor baiño obeki. Bestela, ezin liteke adin ortan iraun, iñolaz ere. Aizkora lana ez da gero txurroak egitea bezela, guztiz torpea ta nekoso baizik, egur gogorretan batez ere.

Baiña Mindegiari ez diozu nolanai igerriko nekeak noiz erasaten dion geiena gorputzean.

Jokoan burutsu ikaragarria izan da, ta beti azken ona erakutsi du. Zer esan nai ote du diodan orrek? Nere ustez, auxe: kontrarioaren martxa zaintzen jakin duela disimulo ederrean, poliki-poliki. Bestea pixka bat aurretik baldin badijoa ere, atzetik orpoz orpo jarraitu eta nekatu arazten duenean, berak aurrea artu ta kito!

Aizkolari artista eta maleziz buruz gain jantzia ikusi det nik Mikel Mindegia. Nere iritziak idazten ari naiz. Norbaiten gustokoak ez badira, barkatu dezaidala mesedez.

Baiña gaiñontzeko aizkolaririk geientsuenak ao batez aitortzen dute Mindegiaren aparteko aunditasuna; eta orixe aski dalakoan nago ni ere, nere ezjakiñean.

Egun batez, telebistan alkarrizketa egin zuen gure Mindegia sonatuak, eta onela galdetu zioten: ea aizkolarietan onena nor izan dan. Berealaxe eman zion erabakia:

–Gure aurreko zaarretan, nik ezagutu dedan onena, Latasa, batere dudarik gabe.

Auxe zan Mindegiaren erantzuna, ta berriro beste galdera berdintsua:

–Leengoetan Latasa diozu onena; ta zure garaian?

–Gure garaian ere onak izan dira batzuek.

–Eta zu?

–Nerea besteak esango dute. Nik ez daukat ortan itzegin bearrik.

Ori da dotorezia, gauzak garbiro adierazteko. Mindegia egurrari epaia ematen bakarrik ez da egokia ta txukuna. Bai izketan ere. Agur, Mikel!

El Diario Vasco, 2001-08-18.



Kaxiano Iburguren "Lizartzako Itxua" soiñujolea.
1978.04.30. **Loubet.**

Lizartzako Kaxiano itxua

Beti zerbaiten aitzakiaren billa ibili oi geranez, gaurko auxe bururatu zait: Lizartzako Kaxiano itxua; ta berari buruz ea osatzen dedan ataltxo berezi bat.

Oraindik oraintsu jakin det lau kurpilletako karro edo silla batean exerita dabillen kontua. Baiña beste norbaitek erabili bearko du ori, orrela baldin bada. Bera ez baida gauzako, bakarrik moldatu aal izateko.

Penagarria da, baiña datorrena artu ta aurrera, aal dan bitartean. Emen ez dago beste jokabiderik.

Egun bateko gertakariz gogoratzen naiz une ontan. Erri batera joan giñan, Kaxiano soiñu jotzera ta gu, Azpillaga ta Lasarte, bertsotara; eta Kaxiano genduen zuzendari.

Alaxe ari giñan kantari bere aginduetara, eta bizi antzean gaiñera. Entzule jendea gustora zegoen beintzat.

Baiña bertso-saioa aurrera zijoan bezela, gai auxe jarri zigun: Azpillaga etxeakoandrea zala; ta ni, berriz, bere gizona:

–Goizean goiz lanean asi ta nekaturik etorri zaizu zure senarra, gosez eta egarriz. Zer emango zenioke gosaltzeko, etxeakoandre?

Alaxe ekin zion Azpillagak, lasai ederrean, eta onela dio:

–Salda ona badaukat leenengo asteko, ta gero aragi egosia. Bestela, uretan pasata arraultzak.

–Arraultzak ez; aragi egosia naiago det, arraultzak zuk bearko dituzu noski ta –erantzun nion garaian, aiek ziran parre algarak jendearenak.

Pesta giroko kontu zelebreek orrelaxe oi dira sarri-tan.

Emen idatzi dedan pasadizo au Kaxiano itxuak kon-tatzen zuen dotore. Nik berari entzun niolako artu nuen gogoan.

Kaxiano gizon sanoa, leiala ta buruz oso ongi jantzia dala badakigu. Bertsotan ere bapo moldatzen bazekien; eta lagunarterako, berriz, ezin ohea. Sentimentu oneta-ko pertsona bere izakeraz.

Guk ala ezagutu genduen urte sail luze batean. Alkarrekin sarritan ibili baigiñan erriz erri ta pestarik pesta.

Zenbat soiñu jotako semea ote da Kaxiano? Orixe dala esango nuke erantzunik ez daukan galdera, ta alperrikakoa denbora berean.

Onoko beste gertaera au ere polita iduritzen zait orain esplikatzeko.

Beingo batez baillara batera joan giñan Uztapide zana ta biok bertsoara, igande goizez, egun guzti-rako.

Baiña bezperan, larunbat illunabarrez pestari asie-ra eman aal izateko, Kaxiano itxua soiñu jotzera era-man omen zuten.

Gaua geientsuena parrandan pasa ta biaramon goi-zean pasakaillea deitzen zaion kalejira egin bear derri-gor, eta Kaxiano jeiki arazi dute oetik, soiñua jo zezan.

Eginkizun ura bukatu ondoren, berriro lotara joate-ko asmoan zegoen garaian, esan diote Kaxianori meza nagusian ea elizan organoa joko luken mesedez; ara jai egunetan erriko organista joaten zala, baiña gaixotasu-na arrapatu zuela ta ez zeukala segurantzirik ezertara-ko noski abixatu omen zioten erritik.

–Bueno! Ori orrela baldin bada, zer ordutan asiko da meza nagusia? –Kaxianoren galdera.

–Emendik ordu betera.

–Ni oera nijoa pixka bat atsedentzera; ta, bear nazutenean, deitu bildurrik gabe. Organoa jotzeko oitura gutxi daukat, baiña aaleginduko naiz.

Ori esan da martxa Kaxianok; eta, oiaren gaiñean etzan orduko, lo artu seko, noski. Baiña deitu aurretik esnatu, ordea, ta jeiki ta prest jarri. Kezka eduki arek.

Alaxe, zai zegoela, sartu zaio lagunetako bat gela barrura, ta joan dira biak elizara. Ango lanak bukatu ziranean, ostatura.

Gu ordurako amaiketakoa egiñik geunden. Kaxiano maian exeri ta begiak igurtzitzen asi zanean, onela dio batek:

–Zer gertatu zaizu? Ez al da lorik egin gauean?

–Ez bear aiña beintzat. Organista gaixotu dala ta meza nagusia jotzen jardun nauk.

Ori entzunik, esan nion nik:

–Kontxo! Meza nagusia jo egiten al dezu zuk, Kaxiano?

Jan-gelan zeuden denak parrez gozatu ziran, eta Kaxiano bera ez gutxiena. Logureak kendu zituen ederki.

El Diario Vasco, 2001-08-30.



Agustín Ostolaza arri-jasotzaillea. 1989.12.05.
El Diario Vasco: Jesus Insausti.



Migel Zestao pelotaria. 1978.07.28.
El Diario Vasco: Pepe Gil.

Migel Zestao pelotaria

Uste gabeko bixita 2001-garren urteko ekainaren erdi aldera, aspaldiko lagun zaar batek egin zidana. Gogoan daukadanez, bera gaitzat arturik osatu nai nuke gaurko nere ataltxo au, bidezkoa iduritzen zaidan bezelaxe.

Nik merezi baiño geiagoren bixitak izaten ditudala aitortu bearrean nago. Ez dakit zergatik; baiña pertsona askok daukate nerekin itzegin naia, ta poz aundia ematen didate ikusi bakarrez. Nola ez? Biotzak agintzen dio gizonari, ta emakumezkoari ere bai, lagun urkoa zenbateraiño maite izan bear duen.

Nik aipatu ta goraldtu nai dedan au Napparroan Leitzako semea da, ni naizen bezelaxe: Migel Zestao, pelotari ospetsua.

Erremontean jokatzen zuen leen, pelotan ibili zan garaian, dotore asko, adibidez; eta neronek ere sarritan ikusi nituen bere partiduetako batzuk, telebistaz, etxe-ko sukaldetik, iñora joan gabe.

Emen, Orion, partidu zoragarri bat jokatu zuen Migel Zestaok beingo batez. Lau pelotarik binaka alkar neurtu zuten. Ez dakit beste irurak nortsu ziran. Baiña oso partidu gogorretakoa izan zala, bai, gogoratzen naiz gaur oraindik ere.

Migel Zestao leitzarrak atzetik jokatzen zuen bizi asko, pelota gora geiegi jaso gabe, bee samarretik, zorrotz antzean erabiliz, eta tanto galdu gutxirekin. Orion jendea oso gustora utzi zuen egun artan.

Kantxan gizon saiatua ta pelotari txukuna bezin egokia izana dala dudarik ez nuke jarriko Migel Zestao.

Frontoian dirua jokatzeko modukoa nai du artara dijoan bakoitzak; eta zer bear da leenengo? Konfiantza, nere ustez, beintzat.

Migelen zestotik pelota xuabe ta gozo atera oi zan, txirristara batean. Ots fiña entzuten genion. Orixe da esku ta beso oneko pelotariaren eginkizun nagusia: pelota zestoa ongi erabiltzea atzetik aurreko punta-raiño, beti erreza ez bada ere.

Dana dala, atal onen asieran aipatzen ditudan bixitalarietako batekin itzegiteko suertea izan nuen goiz batez ementxe, Orion bertan. Joxe Mari Salsamendi pelotari aundia izandakoa ta Migel Zestaorekin topo egitea egokitu zitzaidan, zorionez. Ai zer nolako bikotea eguna pasatzeko!

Norabait kanpora zijoazela ziruditen. Nik ikusi nituenerako automobillaren barrura sartuta baizeuden biak; eta beste lagun bat ere bazuten; baiña ura ez nuen ezagutu.

Urte mordo da Migel Zestao ikusi gabe nengoela, ta berak ez luke sinistuko esan utsez zertaraiño poztu arazi ninduen.

Pelotari utzi ta erretiratu zan garaian, Leitzan omenaldi eder bat egin zioten Migel Zestao pelotari bikaiñari, merezi bezelakoxea, noski; ta gu antxe giñan bertotan, Lazkao-Txiki zana ta biok.

Oso jaialdi dotorea antolatua zeukaten aurrez leitzatarrak erriko semearentzat. Emen bakoitzari zor zaiona emanda asmatzen da, ta leitzatarrak ortan ez dira atzera begira egoten. Bere semeak eta alabak maite dituen erriak baditu meritu galantak, nere ustez beintzat.

Guk Leitzan jende atsegiña billatu izan degu, bertara joan geran guztietan; eta, Migel Zestaoren omenaldi uraxe ere biotzaren erdian gorderik neukanez, bistara agertzea dala onena pentsatu det.

Izan ere, ango alkartasunak ez baizuen azkenik. Batetik, bazkari zoragarri utsa; ta, bestetik, berriz, ondorengo umore ederrez jantzitako arratsalde artaz ezin nintzan aaztu iñolako moduz.

Bazan nork kantatua ta nork entzuna. Guk geronek ere bertsoak axalean genduzkanez, aalegindu giñan jendearen egarria asetzen, ezin geiago.

Eguraldia txarra izan zan ibilirako. Elurra mardul botatzen baizuen, eta kamioetan kontu aundiz erabili bear kotxea derrigorrez. Bestela, aberi gogorren bat gertatu ziteken, deskuidoren batez. Egun pozgarri arek merezi ez zuen bezelakoa.

Baiña gauza den-denak ongi irten zitzaizkigun zorionez.

Agur, Migel!

El Diario Vasco, 2001-09-22.



Jose Manuel Agirre "Endañeta" arri-jasotzaillea.

Endañeta

Kirolez kirol nabil, ezti gozoa miazten bezela. Auxe kbaida nere gustoko lanetako bat, ain zuzen ere; eta gaurko atal ontarako aukeratu det ongi ezagutzen dedan lagun ixtimagarri atsegin bat: Joxe Manuel Agirre, Endañeta arri jasotzaille sonatua izandakoa bere garaian, Itziarren, Endañeta izeneko baserrian jaio ta bertan azitako seme indartsua.

Ainbat erritan ibili giñan alkarrekin, Joxe Manuel au arri jasotzen eta gu, Uztapide zana ta biok, bertso-tan.

Urte aietan, pestarik antolatzekotan, arri-jasotzaille, aizkolari, soiñu-jole, dantzari txiki, txistulari ta bertsolariak oso bearrezkotzat juzkatzen zituen jende-ak.

Erri aundi samarretan batez ere, ta erri txikietan bezelatsu baillaratan, aalegindu oi ziran urtean beingo pestak antolatzen, leengo oitura zaarrik galdu ez zedin.

Guri bertsolaritzak ez zigun diruzko aberastasunik eman; baiña bai, ordea, lagun berriak ezagutu aal izateko aukera ederra, ta orrek berak ez du gutxiena balio, biotzik duenarentzat.

Nerekin itzegiñez bazkaritxoren bat egitearren, alde askotako ezagunak etortzen dira Oriora, ta poz ikaragarria artzen det beraiek ikusi utsez.

Gauza berbera gertatuko zaiola pentsatu arazten dit Jose Manuel Agirre Endañetak ere, aspaldi utzi baizion arri jasotzeari, ta leen lagunak zituen aietaz gogoratu-ko da, seguru asko.

Emen denbora badijoakigu, ta guk ere urteetan egingo genduen aurrerakorik aundiena, beste ezertan

ez noski, nik neronek beintzat; eta Endañeta, gazteagoa dan arren, ura ere onenak emanda egongo dala derizkiot, sasoi bikaiña izan bazuen ere. Betikorik ez da iñor mundu ontara jaio danik, oraindaiño bitartean.

Arri-jasotzaille garbia eta ederra zala badakigu Endañeta, Euskal Erriko jendeari asko gustatzen ziztaiona. Fama galanta eduki zuen bolara batean.

Apustuak ez dakit zenbat jokatu zituen guztira. Guk exhibizioak ikusten genizkion sarritan errietako pesta egunetan. Txalo zaparrada ugariak entzuten oitua zan, merezi bezelakoxeak, nere ustez.

Dana dala, aurrerako norabidea jartzen dit idazlan onek, eta jarraitu dezaiodan aal danik egokiena Endañetaren nortasuna nolakoa zan adierazten erriari.

Igandez apusturen bat jokatu ta nekaldi galanta artu arren, asteleen goizean ezer pasa ez balitz bezela joaten omen zan lantokira, betiko ordu moduan. Egunik utsegin gabe, segi antxe bere eginkizunak betetzen.

Igeltseritzan jardun oi zala badakit leen. Alkarren inguruan ere egokitu giñan batzuetan lanean, Zumaian batez ere, ta toki geiagotan zer esanik ez.

Gizon serioa bezin apala ikusten genduen Joxe Manuel Endañeta, berriketa gutxi erabiltzen zuena, ta orixe da pertsonaren izakerarik aberatsenetako bat.

Ortik dator bizimoduari dagokion errespeto jatorra, ta batek besteari zor diogun maitasun anaikorra, nere ustez beintzat.

Plaza-gizon askoren berri jakindako seme bat nazute ni neroni ere. Bertsolaritzak eman dit ortarako aukera berezia, eta publikoan umiltasuna eskatzen du gaiñetik begira dagoen jendeak; ez arrokeria.

Arrokeriz ezer gutxi irabaziko du plazetan bere burua erakutsi bear duen gizonak. Agian, apusturen batzuetan nagusitu liteke; baiña ez dezala pentsatu be-

ra bakarrik danik aalmentsua. Bestela, neurriko trajea laister josiko dio bakarren batek.

Joxe Manuel Agirre Endañeta arri-jasotzaille ixtimatusa izan zan Euskal Errian, indarrez eta jakinduriz ongi osatua.

Leengo egitura zaarreko arriak erabiltzen zituen. Garai aietan ez baizan bestelakorik. Gerora aldatu zituzten arrien plantillak, danen mesederako.

Baiña ordurako utzi samartua izango zan Endañeta arri jasotzeari, ni oso oker ez banago, ainbat neke ta pasada txar artu ondoren.

Zuzentasun ikaragarrikoa ta zintzo purrukatua omen zan Endañeta bere prestakizunetan, adibidez. Ori ontzat artu bearreko gauza da.

Norberak jakiten du zertsu komeni zaion, batere dudarik gabe; ta segi aurrera bakoitzak gustokoa duen martxari.

Beraz, agur bero bat, Joxe Manuel, zuri!



Iñaki Gorostidi arri-jasotzaillea. 1999.03.07.

El Diario Vasco.

I T T I A

Orioko erakusketa eta Iñaki Gorostidi arri-jasotzaillea

Aurten, 2001-garren urteko abuztuaren 5-ean, igande, Orion erakusketa berezi bat izan zan leengo tresna zaarrena; eta oraingo berriak ere ikusten ziran banaka batzuk. Egun osoa Orioko plazan pasa zuten kanpotarrak.

Erakustera eta, bide batez, erosi nai zuenari zerbait saltzen, Iñaki Gorostidi adunatar arri-jasotzaille ospetsua ere ementxe zan, beste askoren artean.

Baiña geroago itzegingo det, berari dagokion bezela, atal onen barruan. Orain, bestelako kontakizunak dauzkadanez, ortik jarraitu dezaiodan aurrera, poliki ta txukun antzean, aal baldin bada beintzat.

Leengo urtean ere izan zan aurtengoaren gisako erakusketa dotore bat emen Orion, eta oso ederki jantzia zegoela ematen zuen bertako plazak.

Noizean bein komeni dira orrelakoak jendearen gozamenerako, ta gure aurreko guraso zaarren lanerako moldeak nolatsu ziran jakin aal izateko.

Artesanía deitzen zaiona da ori, esku-lana, pazientzi aundiz egin bearrekoa; baiña oso gustagarria era berean.

Nik neronek, errementaria izanik, burniz modu askotako gauzak egin ditut nere bizitzan; eta ortik dakit zenbat izerdi atera dedan suaren ondoan, berotasunak urtu bearrean, udara partean batez ere.

Ez det esango jarduera atsegiña danik; baiña nere gustokoa bai, ordea. Eta, denbora aukeran arrapatu izan baldin banu, askoz ere geiago saiatuko nintzala pentsatzen det gaur nere kasa.

Baiña alpertsurik. Gure garaia joan zan eta kito!
Leen egindakoarekin konformatu bearko degu.

Zugaitz zaarretik ez dago frutu berririk sortzeko modurik, iñolaz ere. Ura bere parteak emana baidago; eta, nekeak erasana, utsaren urrengo biurtua, edo artaraxe dijoana beintzat pixkanaka, egunetik egunera.

Baiña aurrerantzean ere beti izango dira esku-lanera-ko apizio sutsua duten bakarren batzuk, eta egingo dituzte erakusgarri politak, jendearen bistara agertze-ko modukoak, nik uste dedanez.

Gazteak, gogoa artu ezkeru, edozertan ikasten baidu, burua argi daukan bitartean.

Nik, abuztuaren 5-garren eguneko erakusketa artan, Orioko plazan Matximentako senar-emazte sasoiko birekin itzegin nuen. Bere ondotik pasatzera-koan, gizonak eman zidan izpidea, eta kontu kontari une batez gustora jardun giñan.

Xexto txikiak egiten ari zan, gaztaiñezko zumitze-kin, dotore asko; eta andrea, berriz, aiek saltzen. Gizo-nak gazterik ikasiko zuen saski-egintzan, nik ulertu nionez.

Lepo-otar aundi antzekoak ere bazeuzkan salgai. Beraz, klase denetara ongi osaturik zeudela ziduriten. Baiña xexto txikiak saltzen zituzten errezena. Aiek izan nunbait jendearen gustokoak edo kale-etxe askotarako apaingarririk egokienak.

Dana dala, gizon apal arek esan zidan pelotan jokatzan ere ibili zala bost urtetan frontoietan; baiña utzi egin ziola, aspertuta edo ez dakit zergatik. Ori berak jakingo du. Nik ez nion galdetu.

Saski-egintzan ederki moldatzen da beintzat; eta bizimodua, agian, ortik atera lezake oraingoz, leen bezelako ixtimaziorik edukiko ez duen arren. Beti bearko baidira saskiak edo otarrak, baserrietan beintzat; eta kalean ere bai gauza batzuetarako.

Dana dala, au bere ontan gelditzen da; ta, atal onen asieran diodan bezela, Iñaki Gorostidi arri-jasotzaille bikaiñarengana pasako naiz, ainbeste merezi du ta.

Nik gizon apal onen berri badakit pixka bat. Zizurkillen ikusi nuen leenengo aldiz arri jasotzen.

Apakintza baserria Adunan dago, adibidez; eta antxe omen du bere ogibidea. Miniaturan jarduten dala uste det, egoki asko. Oriora erakusgarri politak ekarri zituen, ainbat moldetan eta buelo txikietan egindako arriak.

Arte-lana orixe da, pazientzi aundiz moldatu bearrekoa.

Iñaki Gorostidi gizon txiki samarra izanik, arri jasotzaille ederra zan. Esku bakarrez baliaturik, 185 kiloko arria bizkarreratu omen zuen 1982-garren urtean.

El Diario Vasco, 2001-10-11.

Goierriko garai bateko agin-ateratzailleak

Goierri aldeko gertaera zelebre antzeko batzuetaz gogoraturik, asi naiz zerbait idazten. Ea osatzen dedan ataltxo txukun samar bat, irakurle, zuri eskeiñi aal izateko. Orixe da nere asmoa.

Nik Goierriin baditut aaztu eziñezko lagunak, zorionez; eta aietako askok bisitatzen naute, udara partean batez ere, Orioko ondartzara datozen bakoitzean.

Loretxu jatetxe sonatuan sartu orduko, Lasarteren galde egin oi dutela badakit, eta orretzek ematen dit pozik aundiena, garbiro aitortzekotan.

Baiña alde guztietan daude pikaro bigurri amorratuak, zer pentsa, eta idaztera nijoan au bera ere pasadizo polita iduritzen zait.

Erri txikietan, ortza-agiñak ateratzeko aukerarik ez zan izaten leen, eta kanpora joateko autorik ere ez, gaur bezela.

Baserri batean neska gaztea agiñeko miñez gaizki omen zebillen egun saillean, ez jateko ta ez lotarako pakerik gabe, zearo ernegaturik, noski; ta bere anaiak galdetzen dio:

–Zer den, neska, orrelako antsi tristeak erabiltzeko?

–Agiñeko miñez negok, gau ta egun ikaragarri supritzen.

Ori entzunik, anaiak onela erantzuten dio:

–Nik kenduko diñat ire agin usteldutako ori berealaxe, emen sukaldean bertan.

Alaxe, lurreko sua omen zeukaten etxean, eta burni-pusketa bat berotu leenengo sutan; gero, nes-

katxa exeri arazi sillan; eta alanbre mee antzeko luze bat lotu agiñari, ta esku batekin alanbreari eldu, ta sutatik artu burni beroa, ta:

–Ea, iriki zan aoa.

Alaxe, neska gaixoak aoa irikitzearekin batera, urreratu dio mutillak burni berotua; ta neskak jo du bildurrez kolpe aundi bat buruarekin atzera; ta, agiña kanpora alanbrearen puntan an atera zanean, onela esan omen zion mutillak:

–Ikusten al den ire agiña nola atera dan? Emen zegon. Onek ez din geiago miñik emango. Ta urez garbitu bear den aoa ongi. Baiña ez ur beroz, otzez baizik; iturrian datorren bezela, freskoa erabili.

Astakeriz ederki osatua zegoela esan liteke mutil uraxe ere.

Gertakari au goierritar aitona zaar batek kontatuta dakit nik. Ez da neronek asmatua.

Eta beste gizon serio antzeko bati entzunda nago kaso berdintsua.

Diodan aitona au ere agiñak min ematen ziola gaizki omen zebillen, eta auzoko bere lagun bati esplikatu dio zer gertatzen zaion illunabar batez; eta pentsatu dute bien artean egoera txarrean dagoela, ta nola edo ala agin petral ura kendu egin bear dala segituan.

Alaxe, auzoko lagunak eraman du aitona bere etxera, ta:

–Erremintarik bai al daukak ortarako modukorik? –aitonaren galdera.

–Alikateak badira nunbait etxe ontan. Billatzen baditut, aiekin aterako dizut zure agiña. Aitona, exeri ta lasai egon bitarteko denboran –mutillaren erantzun freskoa, ta polita era berean.

Alako kajoi batean gordeta zeuden alikate zaarrak eskuratu ditu, baiña aspaldian iñork ezertan erabili gabeak, eta erdoitu ta gogortuak. Zikiñaren bidez ez

iriki ta ez itxi ezin egin iñolako moduz. Eta aitonak onela dio mutillari:

–Gasoilla bai al daukak?

–Leen bazan; orain ez dakit. Baiña miatuko ditut baztarrak –esan da berealaxe billatu gasoilla suertez, eta aitonari eman.

Arek garbitu ongi leenengo, gero sekatu ta prestatu zizkionean, artu eskuan alikateak mutillak eta atera dio agiña.

Aitona joan da bere etxera, ta mutilla ere bai. Baiña gau osoan ez omen zuen lorik egin, odol-ustuko zan bildurrez; eta urrengo goizean an dijoa mutilla aitona ikustera, ta soroan atxurrean ari omen zan ordurako aitona, miñik ez zeukala ta kontentu.

Auxe da Goierriko istoria, eta beste onekin bukatuko det gaurko nere idazlana.

Erri txiki batean perratzaileak ateratzen omen zituen agiñak noski, ta joan zaio baserritar zaar bat:

–Aizak; presaka etorri nauk.

–Zer dek gertatzen zaikena? –galdetu dio perratzaileak.

Eta:

–Agiña kendu bearra!

Artu tenazak eta eldu ta:

–Atera diat!

–Baita begia ere atera didak! –baserritarraren erantzuna.

El Diario Vasco, 2001-10-16.

Gauza txarrak pasa ezean, onik ixtimatzen ez

2001-garren urteko udarak agur egiñik aldegin zigun beti-betiko bere garaian, irakurle, zuk ondo dakizun bezela.

Ez det esango oso gozo ta kontentu pasa genduenik, eguraldiaren aldetik laguntza falta zitzaigulako, zerbaiten gaixotasuna sentitzen genduenok larri ta estu antzean ibili giñalako baizik.

Zaar jendeak errez antzematen dio noiz datorren eguraldiaren aldakuntza.

Egoaizea da bat gorputzaren kaltegarri, neurritz kanpora indartzen dan garai berean. Orrek pertsonari tornillo denak mugitu arazitzen dizkio.

Osasunez urri antzean dabillenak egunez supritu bearko du, ta gauez oean ere ez du lo gozo askorik egingo. Bueltaka ibili bai, iñun leku onik billatu eziñik.

Emen, kosta alde auetan, berriz, umedadeak indar ikaragarria duenez, lan txarrak ematen dizkigu.

2001-garren urtea apuntatzeko modukoa izan zan umedade kontuan. Eguzkirik gabeko berotasunez asperturik pasa genduen udara guztia, edo geientsuena beintzat.

Laiñoz estalirik eta zero-goia illun bezin triste ta trumoi-tontor galantak ikusten genituen maizegi edo nai baiño geiagotan. Itxas gaiñean tokia beretzat artua zeukala zirudien trumoi indartsu baldarrak, eta ortik atakatzen zuen.

Ala ere, gaitz erdi. Gu bizi geran lurralde auetan ez zuen iñoiz bezelako arrizko txikizio aundietakorik egin.

Kanpoko erri askotan bai, ordea, adibidez. Panderoa ederki astindua omen du arriz eta euriz.

Urak gaillendu ta inun kabitu eziñik baztar guztiak aurrean artu ta eraman bearrean ibili izango zan, eskuetaraiño etorrita zeuden kosetxa denak alperrik galdu bitartean.

Orixe da gauza penagarria benetan. Ikusi ta azkeneko momentuan ezer jasotzerik eza. Bizimodurako atzerapen ikaragarria. Leen juxtuan dabillena tajutuko du orrelako urte pobre batek.

Ara zer gertatzen zaion langille jendeari aldizka, ta datorrena artu bear derrigorrez, beste jokabiderik ez dagoenean. Diodan urte ontan, iraillak eman dizkigu girorik onenak bere garaian.

Oiek uztaillan eta abuztuan izan balira, beraneante geiago ikusiko genduen Euskal Erriko ondartzetan, seguru asko. Baiña eguraldiaren portaera txarrez jendea aspertuta joango ote zan daukat errezeloa.

Emen, Orioko kanpiñean, ez dakit zertaraiñoko jendetza egongo zan, garbiro esateko. Baiña erri barruko kaleetan oso gutxi ikusten genduen, aurreko urte batzuekin konparatu ezker.

Ori ostatuetan nabarmenduko zala uste det ongiena, batere dudarik gabe gaiñera.

Estranjeroak, dendetan jateko gauzak erosi ta gero beraiek prestatzen dituzte. Ala merkeago pasatzen nunbait, eta dirua gutxiago gastatu ere bai, noski.

Nik emen nere iritziak ematen ditut; besterik ezer ez.

Dana dala, badakigu urte guztiak ez dirala berdiñak izaten, eta ez dezagun etorkizunaren itxaropenik galdu inoiz ere. Urrengoa obeagoa eman dezaigula eman bear digunak. Orixe litzake guk pozik artu genezakeena.

Bititza ontan, gauza txarrik pasa ezean, onik ez da ixtimatzen merezi bezela. Ortantxe daukagula okerrik

aundienetako bat pentsatzen egoten naiz ni nere kasa aldizka.

Udazkenak, berez oparoa ta gozoa baldin bada, asko lagundu lezaiguke. Beraz, goazen bere emaitzak aztertzerara.

Leen, gure gazte denboran, nekazaritzatik bizi giñan garai aietako kontuak datozkit gogora; udazkenaren zai nola egoten zan jendea, fruta freskoak jateko amorratzen: sagar, piko, maats, udare, aran, gaztain eta beste ainbat klasetako janari gozoak.

Gaur ere badaude; baiña emen bertan gutxi. Kanpotik ekartzen dituzte aukera osokoak. Eskerrak jokabide orri, ta ez dedilla iñoiz ere galdu.

Bestela, penaz urtuko giñake noski, ta frutu ona ere bai. Ongi eldua ta legezko tratamentua emana baldin bada, biltzerakoan batez ere, gero errez jaten da ura.

El Diario Vasco, 2002-01-17.



Julian Retegi pelotaria. 1997.09.06. **José María López.**

Julian Retegi

Julian Retegi, Erasunen jaio ta bertan azitako seme Jospetsu au zer izan dan nik esan bearrik ez legoke, noski. Baiña eskerrik maitasuntsuenak eman nai nizkioke, idatziko dedan ataltxo onen bidez, onartzen baldin badizkit beintzat.

Nik Erasunen ikusi nuen leenengo aldiz, pelotan jokatzan, Julian Retegi. Amazazpi urte omen zeuzkan garai artan, Erasungo adiskide batek esan zidanez.

Motibo berezia nuen erri dotore ura bixitatu aal iza-teko. Zorionez an sortua dan Joan Inaxio Retegi, Julia-nen osabaren omenaldia prestatu zuten Erasunen; eta, nik bertsotarako abixoa artua neukanez, nere eginkizuna betetzera joan nintzan. Joan Inaxio Retegi pelotariak txapela irabazi baizuen, beste urte batzuetan bezelaxe; ta ospatu ere bai aundikiro.

Bazeuzkan maite zuten lagunak. Arrigarrizko jendetza ikusi genduen egun zoragarri artan Erasunen. Baiña bein baiño geiagotan jaso zituelakoan nago Joan Inaxio Retegik omenaldi anaikorrak bere errian.

Zenbat txapela irabazia dan seguru ez dakidan arren, sei uste det, gutxi gora-beera esateko. Bada zerbait!

Ori orrela izanik, pelotari aundiaren fama beti mantendu zuen erretiratu bitartean; eta gero Julian Retegi asi zitzaigun egurra ematen arrapatzen zuen guztiari. Marka bildurgarria jarri dute oiek osaba-illoben artean, dudarik gabe noski.

Ni prankotan kantatua naiz Erasunen, bi pelotari eder oien omenaldietan, eta bestelako jai berezietan ere bai; ta arretaz entzuten ditu ango jenderik geientsuenak bertsoak.

Baiña pelota da erri dotore sano artan maitatuena. Zer esaten digu orrek? Bertako seme pizkorrak zaletasun izugarria sortu dutela, ta indarberritu dala pelota leenez gaiñera.

Argatik esnatuko ziran bat-batean gaur plazetan dabiltzan gazte sasoiko oiek. Badatoz landare berriak aukeran, eta pelota esku onetan dagoela pentsatu genezake, oraingoz beintzat, naiz eta Julian Retegi maixu aundia erretiratu zaigun arren.

Gizon sonatu onek aiña partidu jokatzeko, gejentzuenak aspertuko dira, nere ustez.

Urteetan aurrera joana ta nekatua zegoela bistan dagoenez, kontentu egon gindezke, ainbat denboran iraun eta jokatu dituen partidu ederretaz jabetzen baldin bagera.

Amar txapela irabaziak ere izan bear ditu, nik entzuera daukadanez. Ez da txantxetako lana orixe bera bakarrik ere, ongi begiratzen badiogu. Frontoi bakoitzaren txokoak eta baztarrak ederki ezagutzen zituen Julian Retegik.

Beingo batez gogoratzen naiz: Berrobin pelota-leku berria egin zuten; eta, ura inauguratzerakoan, bidezkoa zan bezela, pelotariak eraman zituzten: Julian Retegi, Joxean Tolosa, Panpi Ladutx, iru auek.

Eta gogoan ez daukadana laugarren pelotariaren izena da. Pena ematen didan arren, orrela bearke du. Aspaldi samarreko kontua danez, nere buruan ez det billatzen.

Baiña Txomin Garmendia bertsolaria eta adiskidea alkate zegoen garai artan Berrobin, bertako semea izanik.

Panpi Ladutx pelotariaren aita zana ere ortxe zan egun berean, semearekin batera etorria, gizon apal askoa.

Ta gu ere, berriz, bertsotara joanak giñanez, alkarren inguruan pasa genduen egunaren zati aundi bat.

Pelotariak sasoi onean zeudela erakutsi ziguten partididu eder baten bidez.

Frontoian autsa egon bear zuen. Ori beti gertatzen omen da obra berrietan, ongi sekatu bitartean.

Julian Retegi kejatu zala uste det pixkaren bat, pelotan ari ziran garaian.

Frontoian lurreko autsa arrotzen nunbait eta arek izerditurik zeuzkan besoak erre ta min ematen ziotelako, unetxo batez alda-gelara joan bear izan zuen. Baiña an zerbaitekin igurtzita edo nolabait ere, beintzat, berealaxe itzuli ta partidua bukatu bitartean tanto ederrik egin zuten lau pelotariak, Berrobitarren gozamenerako.

El Diario Vasco, 2002-02-02.

Legorretako Jainkoa, Artxanberri bertsolaria

Zaldibi bertsolari askoren kabitzat juzkatuko nuke nik, nere pentsamentuz. Goierrri aldean jende bertozale sutsu ugari dan arren, Zaldibiren parekoak den-denak ezin litezke izan. Bestela, bertsolariak ez luteke atsedentzeko denborarik artuko, ta orduz leen zearo erreta geldituko lirake. Seguru samar diot au.

Bertsoari maitasunezko arreta ta errespetoa zaizkio Zaldibin. Guk, Uztapide ta biok, ongi baiño obekiago ere bagenekigun ori. Zenbat egun zoragarri pasata ote gaude erri polit artan, patxada ederreko lagunez inguraturik?

Bertan ere baziran an bertsotan dotore egin oi zuten gizon eta mutillak. Nik, leenengo, Artxanberri ezagutu nuen, Legorretako Jesus Eskisabelen etxean.

Diodan Eskisabel onek ostatua edukitzen zuen, eta Legorretako Jainkoa deitzen zioten erriko ezagun denak edo geientsuenak beintzat. Ez dakit nundik eta nola zetorkion izengoiti ori; baiña berak pozik entzuten zuela zirudien.

Beraz, goazen aurrera, gai beraren aria eten gabe. Jesus Eskisabelek pestak antolatzen zituen etxeko ostatuan bertan, soñujole onen bat ta bi bertsolari kanpotik eramanda. Gu, Uztapide ta biok, joaten giñan sarritan edo noizean bein.

Baiña, Jesusek berak bertsotan dexente zekienez, deitu zidan neri, alako egunetan ea libre ote nengoen, aien etxean kantatzeko.

-Bai. Nik ez daukat iñungo arazorik. Lagunari deitu al diozu?

Ori galdetu nionean:

–Ez. Oraingoan biok egingo degu emengo bertso-lana, Lasarte –erantzun zidan.

Eta izentatu zuen eguna. Iritxi zanean, goizetik joan nintzan Legorretara, garai ederrean amaiketakoa egin aal izateko; ta ozturik neukan sabelari berotualdi itxurazkoa eman nion.

Ordurako maiak jendez bete samarturik zeuden arren, neretzat jarlekua laister prestatu zutenez, exeri ta zertatik jan nai nuen uraxe eraman zidaten, gozo asko jarria; ta bapo lagunartean, kontu zaarrak kontatuz.

Gustora nengoela, urreratu zitzaidan Jesus Eskisabel, eta onela dio:

–Bazkal aurreko bertso-saioaren eske ari dira or, Lasarte. Egingo al degu?

–Bai, gizona. Zuk agintzen dezu –erantzun nion.

–Goazen, ba. Igo mai baten gainera.

Ta esan nion:

–Asi zaitte, Jesus, kantari.

–Ez. Zu asi, Lasarte, lasai, Jainkoak lagunduko dizuta.

Ura zan erantzuna jaso nuena, ta jendearen gozamina! Parre-algara ederrik eragin zigun.

Legorretako Jainkoak, izketan oso egokia izanik, ateraldi ikaragarriak zituen gizon arek.

Beingo batez egunkarian irakurri du, Basarri bertsolariak idatzitako atalean, bertsolari apizionatuen txapelketa bat antolatzen asita zeudela ta izenak aurrez ematea komeni zala, zenbat bilduko ziran jakin aal izateko.

“Kontxo! Au neretzat egoki zetorrek” pentsatuta, deitu du Zarautzera telefonoz.

–Nor da? –galdera.

Ta:

-Esango dizut bereala. Zu Basarri zera noski.

-Bai; serbitzeko.

-Ederki. Nik Legorretako Jainkoa naiz. Gaur goizean irakurri ditut zure albisteak. Zer da diozun txapelketa-kontu ori? Gazte ta zaarrentzat edo nola eratu dute, Basarri?

-Entzun ongi, Jesus. Or adiñak ez du zer ikusirik. Leen txapelketan parterik artu ez duten denak sartu litezke. Apizionatuentzat bakarrik da ori.

-Ba, apuntatu nere izena ere segituan, Basarri, apizoz ni autsiko nauenik ez da iñor joango ta ~Jainkoaren erantzuna.

Amaika orrelako esandako Jesus Eskisabel, gizon umoretsua ta maitagarri utsa.

Legorretan biok kantatu genduen egun artan, arratsalde zaldibitar Artxanberri agertu zitzaigun artean. Bertsolari-gisara ez nuen ezagutzen nik Artxanberri, naiz eta sarritan alkarrizketa ugariak egiñik geunden arren. Baiña Legorretan asko gustatu zitzaidan aren bertso-moldea. Gizon umilla ta izlari goxoa. Bi edo iru bertso-saio egin genituen umorez eta patxada ederrean.

Gero, berriz, andik urte-sail batera, Zaldibin omenaldi bikaiña jaso zuen. Uztapidek eman zizkion erriaren ordezeko sariak Artxanberri zaarrari. Guk bertsoak kantatu ta jendearen txaloak entzun eta bapo.

Ez dakit, seguru esateko, zenbat bertsolari giñan: Azpeitiko Imanol Lazkano an zan. Nere ondoan eduki nuen. Eta Joxe Agirre, Lazkao-Txiki, Patxi Iraola ta abar.

Patxi Iraolak bere erria ongi serbitu duelakoan nago. Bertsolari dotorea ere bada, ta saiatua gaiñera. Iraolatarrak bertsozale purrukatuak dira, nere ustez. Egun batez, Rufino idazleari onela entzun nion:

-Gu, iru edo lau anai, alkarrekin bertsotan jarduten gera tarteka, bat-bateko bertsogintzan.

Sekulan ez det bertsotan ikusi nik neronek Rufino Iraola. Ez dakit nolakoa dan. Baiña oso urria ez da izango. Paperean ongi jartzen baiditu bertsoak, eta bada zerbait.

Bizkai aldeko albiste batzuk

Bizkai aldeko albiste batzuk eman naiean nengoen Baspalditxoan, eta etorri da ortarako txanda, irakurle; ta au ezingo det alperrik galdu, aukera obeagorik sortuko dalakoan. Beraz, eldu dezaiodan berari, bada-go zer idatzirik eta.

Bertsolaritza indartsu omen dabil Bizkai aldean, nik entzuten dedanez. Landare berrien etorkizuna onartu dezagun, merezi duen neurrian.

Leen, gure gazte denboran, oso banaka ezagutu genituen Bizkaian bertsolariak, plazetan ibili oi ziranak batez ere. Ostatueta kantatzen zutenak guk uste baiño geiago izan zitezken agian. Ortan ez naiz sartuko aurreragi, badaezbada ere, ez nuke inor gaizki utzi naita.

Gu Bizkaian erri prankotan pesta nagusiak ikusita gaude bertsolaritzaren bidez, eta esango ditut garai aietan an ezagutu nituen bertsolari batzuen izenak, gogoratzen zaizkidanak beintzat.

Ara emen bat. Au Arrola deitzen ziotena zan. Gizon-pusketa ikaragarria. Luzea eta zabala. Izketan gozoa ta egoki utsa.

Aulestin, San Joanetan bertsotara joan da antxe pasa genituen bi egun. Azpeitiko Joxe Lizaso ta biok giñan kantuan jardunak, eta Arrolak etzuen gure ondotik aldegin. Beste inun ez bezelako lagunartea baliteke Aulestin billatzea bere gustorako.

Diodan Arrola au Abel Muniategi bertsolariaren osaba omen zan. Ni leendik orrelako zerbait entzunda nengoen, Abel Muniategirekin alkarrizketa bat eduki nuenean, galdera egin nion, jakin-miñak eragiñik:

–Aizu, Abel: Arrola bertsolaria zure osaba al zan?

–Bai. Egia da ori. Nere osaba zan ura –erantzun zidan, eta kontentu geratu nintzan.

Egun batez Bizkaira joan giñan bertsoara. Zein erritan zan gure langintza ez naiz gogoratzen, lastimagarria bada ere. Baiña Uztapide, Basarri ta ni, Lasarte, irurok beintzat seguru. Laugarren bat ere izan ziteken, eta Joxe Lizaso izentatuko nuke, ala balitz, duda pixka bat daukadan arren.

Aspaldiko kontu zaarretan sartu naiz sustrai zuzenak eman aal izateko, Baiña oker aundirik ez det erabiliko nolana ere, ta goazen aurrera.

Diodan erri artan Arrola ikusteak asko poztu ninduen. Denbora pasa zebillen, berak zionez. Guk goiz-parteko bertso-saioa plazan bukatu ta berealaxe inguratu zitzaigun, eta gero alkarrekin bazkaldu genduen patxadaz, umore ederrean.

Mai-buruan exeri arazi zuen norbaitek Arrola, ta urrengo Basarri jarri zitzaion bere ondoan alde batetik; eta bestetik, berriz, Uztapide, ta ni aren aldamenean.

Alaxe, asi giñan, ba, jaten eramaten zutenetik. Ni Arrola zaarrari begira gozatu nintzan geienbat. Ura zan jateko modua! Errez eta asko. Basarrik onela esan zion:

–Gose aundia ekarri al dezu, Arrola?

–Bai. Nik apetitu izugarria det. Baiña gaur artu bear du pasada ederra, aurrean nai aiña jartzen badidate.

Arrolaren erantzun dotorea auxe izan zan.

Bazkaldu ta gurekin batera bertsoan egin zuen, eta gustora gizona.

Beste bertsolari baten aipamena, nere eskuetan dagoenez, ez nuke aaztuta utzi nai: Balendin Enbeita. Nik asko ixtimatzen nuen gizona. Prankotan itzegiña naiz beronekin.

Gu emendik Bizkai aldera bertsoara joandako bakoitzean edo geientsuenetan agertu oi zitzaigun, Gernikatik oso urruti ez baziran gure kantu-lanak. Eta ori bakarrik ez. Bertsoan plazetan ere alkarrekin jardun gabeak ez gera.

Balendin Enbeitak Uztapiderekin ere arreman onak izan zituela badakit, eta Basarrirena berdintsu esango nuke.

Euskera, Euskal Erria eta bertsoa, oiek ziran mai-teenak Enbeita zanarentzat.

Beste bertsolaria, berriz, Basilio Pujana. Auxe bera ere ez da txantxetako gizona, nere ustez. Ixilla bezin apala ta gozoa. Onekin ere bertsoan jardunda nago gutxi edo geiago.

Ta Aulestia Murelagan bazan Ameriketean artzai ibilitako bertsolari apizionatu bat. Egun batez, aren berri zekiten batzuen aginduz, ostatuan berari bertsoan ekin nion pixka bat tentatzearren, eta bertso bakarra kantatu zuen. Onoko auxe zan azkeneko puntuan eman zidan arrazoia:

Lasarte, zu ere joan zindezke
Amerikara pastore.

Atal ontan izentatzen ditudan bertsolariak ezagutu nituen nik Bizkaian leengo zaarretan, edo agian geiago; baiña ez naiz gogoratzen bestetaz.

Geroago artu zigan bertsolaritzak indar berezia Bizkaian: Lopategi, Azpillaga, Mugartegi, Muniategi, Arregi, Buztarri, Sardui eta abarrez osaturik. Urrengo txandan, berriz, Amuriza, Enbeitatar gazteak, Areitio... Ta ortik aurrera ez dakit zenbat, seguru esateko. Aipatu gabe utzi ditudanak barkatu dezatela. Amurizak eman zion bertsolaritzari arnas berria, ta gaur Bizkaian bertsolariak aukera ona omen dago.

Uztapidek poz artuko luke, nik artzen dedan bezela.

Errezilko erria eta ango bertsolari zaarrak

Errezil neri asko gustatu zitzaidan erria izan da, bein ezagutu nuen ezkeroztik. Zergatik ote da ori? Ango euskeraren gozotasunak ta erabiltzeko moduak argitu arazten dizkit begiak. Izkuntza garbia, ugaria ta ikas-teko erreza baida era berean.

Euskera bere izakeraz oso zabala da, ta kostako zaigu ezkutuan dauzkan aberastasunak billatzen, zoko guztiak ongi miatzen aleginduta ere noski. Nik orrela pentsatzen det nere ezjakiñean.

Erri txikietan etxez etxe, edo baserriz baserri obe-kiago esanik, komeniko litzake jende elduarekin arreman onak izatea, euskerari bizirik eta osasuntsu eutsi nai badiogu. Bestela, goitik beera amildu ta zearo galtzeko arriskuan ote dagoen iduripena daukat, naiz eta gaur beraren alde lanean saiatzen diran pertsonak asko dauden arren.

Errezillen bertan jaio ta bizi danak aoan erabiliko du euskera eguneroko ogia bezela, ta orrek badu bere balorea. Emen bakoitzak bere oiturari lagundu ta bes-terena errespetatzen jakin bear luke.

Nik neronek Errezil ez daukat saltzeko. Bertsotan maiz jarduna naiz erri polit artan. Lagun ixtimatuak banituen leen, eta gaur oraindik ere baiezkoan nago. Bertsolaritza maite ez duenik iñor gutxi izango da Errezillen. Beraz, poztu gindezke, ango jendearen portaeraz konturatzen bagera.

Letea izeneko jatetxe sonatu bat bada erri zorientsu artan, nik ongi ezagutzen dedana. Ainbat aldiz lagunarteko billera anaikorrak ospatu genituen leen, kantari jarduten giñan garaian. Baiña bertsolaritzatik erretiratu

nintzan ezkeroztik, ez det bixitarik egin Letea jatetxera, ta ez dakit nola dabillen, garbiro esan aal izateko.

Dana dala, Errezil oso aberatsa omen da nekazari-tza-kontuan, nik entzuer a dedanez. Baserri on asko dituela, alegia, laboregintzarako ta abar.

Baiña orrek ez du esan nai gaurko nekazari denak errez bizi diranik eta diruz gaiñezka daudenik. Eguneroko martxan segi antxe aztarrika lanean, beste alde guztietan dabiltzan antzera, ta kito.

Bertsolari zaarrak aipamen berezi bat mereziko dute, dudarik gabe; ta bide ortatik eman nai nituzke ondorengo pauso batzuk, irakurle. Zuk onartuko baze-nizkida, neretzat mesedegarri izan litezke agian gaur edo biar. Ori pentsatuta bakarrik ez naiz ari idazten; baiña geroko etorkizunari begiratzen diodan arretaren barruan beintzat, badaezbada ere.

Leentxeago esaten det atal ontan Errezillen banituela nik lagun ixtimatuak. Ara emen beraietako bat, gaurko gazte jendearen artean oso ezaguna ez dana: Antonio Mari Loidisaletxe bertsolaria. Orain erriz erri bertsotan dabillen Loidisaletxe bertsolari gazte jator orren aita zana genduen Antonio Mari. Gaur bizirik balego, larogei ta bost urte bearko lituzke, nere kon-tuetan oker ez banabil.

Nik ura mutil koskorretan Aian ezagutu nuen, ostatu batean bertsotan ari zala bizi asko. Aren orduko sasoia ta kelmena artu litezke, iñun salgai baleude. Beste bertsolari apizionatu batek laguntzen zion, eta saio galanta egin zuten aiatar askoren pozgarri.

Nik dexente kantatzeko egokiera izan nuen, Errezillen bertan ez-ezik, kanpoko erri batzuetan ere, Antonio Mari Loidisaletxerekin.

Etzan plazetan ugari ibilitako bertsolaria. Ez dakit zergatik. Berak jakingo zuen ori. Baiña biotz oneko gizon sano gustagarri bat zala ez det dudarik

Neretzat beintzat pertsona umoretsu apartak eta seriotasuna erabiltzen ere ongi ikasiak izan dirala iduritzen zait Antonio Mari ta bere familiko geientsuenak, nik ezagutu ditudanak batez ere,

Beste bertsolari zaar batengana pasako naiz une ontan: Txapel zana, Errezilko semea genduen au ere, naiz eta Azpeitin bizitu zan arren urte mordoan. Gizon zuzena, berriketa gutxikoa ta zintzo amorratua. Nik ala juzkatu nuen zaartzera. Gaztetan ez dakit nolakoa zan.


Biok bertsotan prankotan jardun giñan, ni gaztea nintzan garaian. Baiña laister erretiratu zitzaigun gure Txapel gizarajoa.

Txapel eta Zepai bertsolaria, biak koiñadoak ziran. Zepai Azpeitin jaió ta Errezillen azia omen zan.

Egun batez entzun nuen Uztapidek, Zepaik eta Antonio Mari Loidisaletzek egindako bertso-saio bat irratiz. Donostiko Loiolan zala uste det. Auskalo noizkoa. Iru bertsolariak txandaka kantatu zutela gogoan daukat, bizitasun osoan, bat ixildu zai, bestea erantzuten asteko.

Alaxe bear luke, gaiñera. Bertsolaritzak bestela ez du grazirik.

Zenbait bertso



Franki baserria, Manuel Lasarteren jaiotetxea, Leitza.

Errota zarra

Antonio Iburguren eta bere taldeak, gurdi baten gainean errota zutela, kalez kale kantatzeko, Manuel Lasartek moldatutako bertsoak, larogeiko amarkada inguruan.

Errota zarra, gaur ez daukazu
garai bateko indarrik,
baiña batzuek maite zaituzte
eta ez egin negarrik.
Alea irin biurtzen dute
zuk daduzkazun bi arrik,
arto errea jaten duenak
ez dauka droga bearrik.

Arto errea janez bizitu
giñan len urte morduan,
baserrietan ogia kontuz
izaten baizan orduan.
Irin gozo ta ederrik egin
zendun erreka onduan,
errota zarra, zu argatikan
zaitugu beti goguan.

Erreka ondoan lana egiten
zendun uraren indarrez,
ta gu gaztetan asetzen giñan
taloz eta arto errez.
Zu ikustean oroitzen gera
aurreko guraso zarrez,
aieri esker sortua nola
baiziñan ala bearrez.

Bi arri oiek martxa emanda
asitakoan bueltaka,
urrutitxotik otsak entzuten
ziran triki eta traka.
Egun guztian era artantxe
jardun oi ziñan presaka,
zure jabeak ortik baizeukan
bizi modurako laka.

Zokoratu ta bakardadean
zeunden ixil eta triste,
eta zu ortik ateratzeko
almenak izan dituzte.
Orain gurdian erakusgarri
dotore jarri zaituzte,
zu era ortan ikusterikan
ez genduen asko uste.

Urte mordoa igaro arren
naigabez bete ta larri,
ikusten dezu nolako gurdi
polita dizuten jarri.
Onez aurrera or erabili
nai zaituzte erriz erri,
ez dakitenak jakin dezaten
zure langintzaren berri.

Arjentinako euskaldunekin

(Berastegiko lagun batek eskatuak,
Arjentinara zijoala eta, 1985.)

Barka zazute une batean
kantari nai det asi-ta,
bestela bere sentimenturik
ezin det erakutsi-ta.
Euskal Erritik aldegin gendun
etxeko lanak utzita,
pozikan gaude alde ontako
berri onak ikasita,
ta batez ere gure senide
euskaldunak ikusita.

Nik orain arte ez nun ikusi
Arjentinako parterik,
etorri giñan eta ez digu
iñortxok itxi aterik.
Mundua zer dan ezagutzeak
guretzat ez du kalterik,
ez nuen uste emen bazanik
olako lagun arterik,
zuek eskertu gabe ez dago
berriz etxera joaterik.

Euskal Errian izan ditugu
iñoiz gustoko egunak,
baiña ez dira eskasagoak
emen pasa ditiugunak,
azken arnasa eman artean
aztuko etzaizkigunak.
Nunai billatzen ditugu gure
adixkide ta lagunak,
esan gentzake mundu guztian
badirala euskaldunak.

Maitasunean emen guztiok
nola elkartzen zeraten,
gure euskera beti ari da
frutu berriak ematen.
Jarrai dezagun bizimodua
pazientziz eramaten,
guraso onak, zuek saiatu
beti euskaldun izaten,
zuen aurtxoak gure izkuntza
zarra ikasi dezaten.

Ainbeste dira Euskal Erritik
kanpora irten ziranak,
Arjentinan da beste paraje
askotan bizi diranak.
Baiña guztiok senide gera
lur artan jaio giñanak,
ori garbiro ikusi degu
zuekin bildu geranak,
anai-arrebak, bertso onekin
agurtzen zaituztet danak.

Lazkao Txikiri

Gure Lazkao Txikik
egin digu karta,
berri onez betea,
dotore aparta.
Berak esaten dunez
ez du ezer palta,
danetik osatuta
bizi omen da ta.

Zer moduz aurkitzen dan
garbi du azaldu,
elkarren konfiantzik
ez dezagun galdu.
Pernando zuzendari
eduki bear du,
ark ere goraintziak
dizkigu bialdu.

Lazko Txiki ez da
emen gure bistan,
amezketar Pernandok
dauka bere listan.
Kotxe eder batean
sekulako txispan
biak omen dabilta
zeruko autopistan.

Joxe Migel txofertzan
dabil nereko,
ta Fernando ondoan
aren mekaniko.
Aiek martxa artua
daukate betiko.
emen il ziran baiña
an ez dira ilko.

Apaiz bati jarriak

Aste Santua, 1993

Elizkizunak utziagatik
sarri zerbaiten aitzakiz,
aste santuak osatzen gaitu
aukera bikain egokiz.
Oroi gaitezen zeru ederrez
betiko atsedeen tokiz,
ta ura ere lortuko degu
Jaungoikoaren errukiz.

Jaungoikoaren Seme aundia
zuten gurutzean josi,
Aren maitasun berdingabeak
etzuen ori merezi.
Mundu guztia zuenbidera
nai zuen bildu arazi,
ta azkenean zer egin zuen?
Esker txarra irabazi.

Bere odola ixuri zuen
gurutze artan josirik,
andikan iru egunerako
berriro zegoen bizirik.
Etzuen palta bere Aitaren
laguntzik eta grazirik,
umillagoak bear genduke
maitasun au ikusirik.

Sorbaldan zula bera zintzilik
jarriko zan gurutzea,
igaro zuen gure Jesusek
Golgota bide luzea.
Bere naia zan Kalbarioko
nekaldia burutzea,
ta pekatariz errukitzeko
Aitari erregutzea.

Alde danetan zabaldu nairik
sinismenaren grazia
zebillelarik, sortu zitzaion
etsaiekiko auzia.
Baiña Jesusek denori zigun
garbi adierazia:
«Ni naiz bidea, Ni naiz egia
eta betiko bizia».

Beraz laguntza bidali beza
gure lurralde bitxira,
pekataririk sartu ez dedin
betiko zulo itxira.
Nik ongi dakit ilko naizela
emendik urte gutxira,
alere ezin naiz errenditu
Jesusen erakutsira.

San Tiburtzio pestetarako

L 999 urteko abuztuaren berezitasunez gogoraturik, zerbait idatzi bearrean aurkitzen naizenez, ortaraxe nijoakizute umiltasun osoz, irakurle izango zeraten leitzatar guztioi.

Mende zaar onek emango duen azkeneko abuztua aurtengoa degula jakiñik, agurtu dezagun bein betiko borondate onez eta biotz xamurrez.

Ez nuke esango den-dena gure gustokoa izan danik orain artekoa, baiña gauzak datozkigun bezela artu bearra daukagu guk derrigorrez. Beraz, bukaera goxo bat eskatzen diot mende zaar gogoangarri oni Euskal Erri osoaren izenean mundu guztiarentzat, eta ea urrengo sortuko zaigun berria obeagoa ematen duen gure Jaungoiko Jaunak.

Nik, zaartu naizenez, lur ontako eginkizunak bete ditudan errezeloa daukat. Baiña gaur eta gerora jaioko diran aurtxo maitagarri denentzako zorioneko bizitza eskatu nai nioke ogeitabatgarrengo mendeari, bada ez bada ere.

Ta goazen Leitzako pasadizo batzuk esplikatzeraz poliki-poliki, iñor mindu arazi gabe.

San Tiburtziotan ospatzen dira erri ontako pesta nagusiak, aundikiro gaiñera. Aurtengoz, abuztuko illaren amaikagarren eguna asteazkenean egokitzen da, ta ez dakit diodan San Tiburtzio egun berean edo bezperatik asiko diran pestak. Ama Birjiñak bitarteraiñoko jaiak egin oi ziran leen, baiña agian baliteke aurtan zerbait geiago luzatzea ere.

Aurreragotik asita, pestetan gastu ugari sortzen dala badakigun arren, nik entzun dedanez ez dago kez-

katu bearrik gai ortan. Igaz Gabonetan loteriaren bidez diruz ongi jantzitako familiak bai omen ditugu Leitzan. Ez noski erri osoan, ori zailla da ta. Baiña Amazabal izeneko frontoi ingurura gordoaren zatiren bat aizeak eramane omen zuen, eta uste gabeko jendea aberastu, alajaiña.

Ez det batere gaizki billatzen, Nik ez nuen gordoarekin gizentzeko suerterik izan eta ementxe segitzen det beti bezelaxe plako eta zimel. Jokatzeko geiegizko gogorik ez dedala ere ez nuke ukatu nai; baiña azi gutxi ereiten dan soroan edo larrean ezin liteke labore asko artu iñolako moduz, eta neri gauza ber-bera gertatzen zait, iñungo dudarik gabe.

Dana dala, gure Leitzan abuztuko San Tiburtzio pestakin batera, tailarretan lanean dabillen jendeak, urtero bezela, oporrak ere artuko dituelakoan nago; ta ez dira gaizki etorriko pixka bat paseatuz eguneroko nekaldiz aaztu ta gorputza eta burua atsedendu aal izateko.

Nik, gaztetan Eibarren ganadu perratzen jardun nintzan garaian, ango parrandero baten ateraldi polita ikasi nuen, eta auxe da: erriko pestetan bukaeran, pena izugarritz, onela esan omen zioten bere lagunei:

–Bueno, mutillak, ni banijoak etxera. Zuek nai dezutena egin. Biar goizetik berriro lanean asi bearra zeukagu. Au ez dek martxa tajuzkoa. Jai biaramon guztiak jai artuko nizekikek nik pozik.

Eibartar arek ez zuen lanik eskatzen, bizimodu lasaia baizik.

Baiña emen, eguneroko ogi berria eskuratu aal izateko, badakigu saiatu bearra daukagula modu batera edo bestera ta...

Agur leitzatar denoi, ni ere zuen senide bat naizela ez aaztu mesedez. Urrengora arte.

Urtero sortzen dizkit
pozezko irriparrak
Plazaola errebistan
idatzi bearrak.
Nere lagun zerate
gazte eta zarrak,
pestak ongi igaro,
agur leitzatarrak.

Idazten det biotz on
ta umore alaiz,
aztu gabe Leitzako
arrebaz ta anaiz.
Erri maite au buruan
erabiltzen det maiz,
bai aurrerantzean e
bizi baldin banaiz.

Biotzez, Unamunotar Egoitzi

Soraluzetik gutun eder bat
da niregana iritxi,
ogei urteko gazte batena,
ez det istimatu gutxi.
Pare bat bertso nai ditu eta
eman gabe ezin utzi,
bere gustoa egingo diot
Unamunotar Egoitzi.

Zure gutuna gordeta daukat
nik maitasun izugarritz,
Lasarte ezin liteke aztu
euskeraz ta Euskal Erriz.
Oraindik gazte ugari daude
nere bertsoen egarriz,
oiekin asko gogoratzen naiz,
zurekin geiago berriz.

Lenago ere lagun leialak
banituen Soraluzen,
ta orain berriz, Egoitz, zurekin
ditut tratuak ain zuzen.
Gure izkuntza premian dago,
laguntzen saia gaitezen,
Euskal Errian jaiotakoak
euskaldun izan ditezen.

Zer bertsozale ote zera ni
ain gogozko nauzunean?
Jaunak luzaro gorde zaitzala
pakezko osasunean.
Egoitz, zurekin bat egin nai det
geroko etorkizunean,
ta Oriora etorri zaitez
ongi datorkizunean.

Orio, 2000-3-31

Orioko arraunlarien istoria

Orioko Kiroldegan, 2001-eko azaroaren 11-an.

Gabon esanez mintzatuko naiz
oitura dedan moldera.
Arraunlariak emen al dira?
Au da lenengo galdera.
Orain eun urte zer gertatzen zan
esan bearrean gera,
Oriok Kontxan irabazi zun
lendabiziko bandera.

Gaur zorionez toki askotan
arraunlari onak daude,
ta nik oraindik naiago nuke
ugariago baleude.
Oriotarrak goraltzen ditut
besteak bajatu gabe,
au izan bait da arraunlaritzan
sarritan jaun eta jabe.

Oriok arraunlari bikaiñak
askotxo ditu emanak,
aspaldi ontan neronek ondo
ezagutu ditudanak.
Arraunlaritza utzi zutenak
eta orain dabiltzanak,
merezi dute ta txalo beroz
eskertu ditzagun danak.

Jendeari poz eman asmotan
naiz etxetikan atera,
bertso onekin noa lanari
bukaera ematera.
Gizona pozik etorri leike
olako lagunartera,
ea berriro elkartzen geran
emendikan eun urtera.

Aita San Frantziskori

Bat-bateko bertsoak, elizan kantatuak.

Eskerrak eman nai dizkat aita
Frantziskoren langintzari,
gure ongarri berak munduan
eraman zun bizitzari.
Orain zerutik laguntzen digu
emen gauden bakoitzari,
ea gu ere izaten geran
Jainkoaren serbitzari.

Frantzisko sinismena zabaltzen
ibili zan munduz mundu,
umiltasuna erakutsi ta
premizkoari lagundu.
Guk ere noski obe genduke
ori egingo bagendu,
lagun urkoa maite duenak
Jaungoikoa maitatzen du.

Ain urrutira joan zan Frantzisko
ardi galduak biltzera,
maitasuna ta goxotasuna
zuen itzetik itzera.
Gizon jakintsu batek esanda
nik badaukat aditzera,
azkenik bera iritxi zala
lapurrak konbertitzera.

San Frantziskoren aunditasuna
guk ez genezake neurtu,
zenbat tokitan ote zituen
biotz gogorak samurtu?
Gorroto eta griña gaiztoak
zitun maitasun biurtu,
gurekin ere oroituko da
ta ez gaitezen bildurtu.

Pertsona ez da baloratuko
emen luze-laburrian,
zeruko Jaunak juzgatuko du
bakoitza bere neurrian.
Pobrea dala uste degun bat
gu bizi geran lurrian,
gero aberats gerta diteke
Jaungoikoaren aurrian.

Itzalditxo au bukatzen det nik
baiña ez dezagun etsi,
senide zintzo batzuk gerala
bear degu erakutsi.
Kristau fedea sendotu eta
gizatasunari eutsi,
aita Frantziskok iñoiz ez gaitzan
bere eskutikan utzi.

Zorionak

2005-eko uztaillaren 3-an bi apaiz omendu zituzten Orioko parrokian: Andres Garmendia, ogei ta bost urtez Orion erretore izana, eta Jesus Iturrospe, apaiz egin zaneko urrezko eztaietan. Mezetan onako bertso auek eskaini zitzaizkien, Manuel Lasartek ospakizunerako jarriak.

Egunsentian nere begiak
begiratzen dute gora,
itxura danez goialde ortan
zerbait ona egongo da.
Orain artean ezin deguna
ikusi leike gerora,
guk nai bezela joaten bagera
Zeruko Aitaren ondora,
emango digu pake santuan
atsedentzeko denbora.

Zarrentzat dago babes lekua
eliz onen barrenian,
nik beintzat ala aurkitu oi det
kantura natorrenian.
Jaungoikoaren etxean gaude
txokorik ederrenian,
eta Berari eskatzen diot
modurik jatorrenian
gero zeruan babestu gaitzan
garaia datorrenian.

Esker onez

Manuel Lasartek, Gipuzkoa-Donostia ospitaleko erizain eta lankideei, bertan gaixo-aldi bat igaro ondoren.

Ospital ontan egon berria
naiz amaika egunetan,
konfiantza nun mediku eta
gaixo zaindari danetan.
Oso egoki ibili ziran
nerekin ar-emanetan,
merezi ere badute eta
eskertzen ditut benetan.

Ospitaleko enpleatuak
dira langille sutsuak,
emakume ta gizonezkoak
leial ta maitasuntsuak.
Gaixotasunak ekartzen gaitu
aberats ta beartsuak,
bi bertso auek izan litezke
zuentzat zoriontsuak.

Iru bertso

Naparroko zilbor aundi batek eskatua:

Ik ere olakoa
sortu bear uan,
makiña bat txuleta
sartu dek barruan.
Orain gizendu ta ezin
kabitu larruan,
ire antzeko pranko
badek Naparruan.

Beste bertso bat:

Arras batean afaritxo bat
egin genduen Altsatsun,
aizu, Lizaso, galdetzen dizut
gogoratutzen al zazun.
Len txarrak asko egiñak giñan,
ark ere aien antza zun,
naiago nuen gaztetan fraile
sartu banintz Arantzazun.

Beste bat:

Ongi gozatua naiz
ni len aurtzaroan,
nere ama zanaren
magal oparoan.
Agian ariko naiz
bere anparoan,
bertso auek idazten
aurten azaroan,
nola ezin nezaken
segi luzaroan.

Aurkibidea

Itzaurrea	7
Martin Gartziarena	14
Polipaso	21
Keixetaren pasadizoak	24
Erramon Latasa	29
Joanito Iturain	31
Erramon Iurrebaso	35
Mikel Mindegia	39
Migel Berakoetxea	43
Jose Mari Mendizabal	47
Kandido Txurruka	49
Basarri zanaren adierazpenak	53
Patxi Astibia	57
Manuel Matxain	64
Segundo Kalonje	69
Bautista Kortajarena "Ondartza"	75
Joxe Mari Rekondo, torero euskalduna	80
Ijito baten konpesioa	84
Nere sorterria ezin nezake aaztu	88
Ion Lopategi	92
Joxe Mari Salsamendi	97
Arria II eta III	103
Beste aizkolari batzuk	107
Baleztena	109
Paulo Zuriarrain, "Ernani Txikia"	112
Baserritarra asarre, asto baten erruz	116
Aita baten arrazoi ederra	120
Jose Inazio Saizar	124
Bixente Uranga, "Xerore"	127
Orioko Inaxio Arruti, Loretxu jatetxeko nagusia	131
Jeronimo Iturbe, "Agiñeta"	134
Agerre leenengoa eta Garatxabal	138
Arria leenengoa, Inazio Orbegozo Juaristi	142


Migel Gallastegi	146
Migel Berakoetxea, berriz ere	149
Joan Manuel Azpiroz, "Aiako Txikia"	153
Antonio Soraluze, "Korta"	156
Joan Kruz Azpiroz, "Arroitzko Txikia"	160
Joan Jose Narbaiza, "Luxia"	164
"Aritza", Mutrikuko arri-jasotzaillea	167
Joan Iburguren, Aiako Manterolakoa	170
Itziar eta Arteondo arri-jasotzaillea	173
Jose Antonio Gisasola, "Zelai"	176
Iñaki Perurena	180
Agustin Ostolaza	184
Kandido Txurruka, berriz ere	187
Mikel Mindegia, berriz ere	190
Lizartzako Kaxiano itxua	194
Migel Zestao pelotaria	198
Endañeta	202
Orioko erakusketa eta Iñaki Gorostidi arri-jasotzaillea	206
Goierriko garai bateko agin-ateratzailleak	209
Gauza txarrak pasa ezean, onik ixtimatzen ez	212
Julian Retegi	216
Legorretako Jainkoa, Artxanberri bertsolaria	219
Bizkai aldeko albiste batzuk	223
Errezilko erria eta ango bertsolari zaarrak	226

Zenbait bertso

Errota zaarra	231
Arjentinako euskaldunekin	233
Lazkao Txikiri	235
Apaiz bati jarriak	237
San Tiburtzio pestetarako	239
Biotzez, Unamunotar Egoitzi	242
Orioko arraunlarien istoria	244
Aita San Frantziskori	246
Zorionak	248
Esker onez	249
Iru bertso	250

Auspoaren azken liburua:

- 286 Ramos Azkarate
Galtzaundi berriz ere (I)
- 287 Ramos Azkarate
Galtzaundi berriz ere (II)
- 288 Pedro Juan Etxamendy
California'ko bertsolari eta musikari
- 289 Jose Agustin Garziandia
Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak
- 290 Xalbador
Odolaren mintzoa
- 291 Pedro Migel Urruzuno
Koroi eder bat
- 292 F. Apalategi
Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak (I) • Relatos de guerra de carlistas y liberales (I)
- 293 F. Apalategi
Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak (II) • Relatos de guerra de carlistas y liberales (II)
- 294 Manuel Lasarte
Plaza-gizonak



Zenbait bertso-liburu eskeiñi zizkigun orain urte batzuk Manuel Lasartek. Baiña gero egunkarian idazten asi zan. Artikulu-pilla argitaratu ere bai, Oiek bildu eta liburuetan or daude, aren euskeraz gozatu nai duenarentzat.

Lasarteren bertsoa eta prosa irin beraren opillak edo aita beraren umeak dira: euskera jator eta dotorea, arrazoi mamitsuak, umorea, izkuntza garbi eta aberatsa... Aren bertsoa entzutea atsegingarria bazan, prosa ere ezta bezin gozoa irudituko zaigu.

Gaurko liburu onek *Plaza-gizonak* du izenburua. Lasartek bere bertsolari-ibillaldietan ezagutu dituan gizonen berri ematen digu. Gure Euskal Erria txikia degu luze-zabalean; baiña kristau mota asko eman dituana. Baratza txikia, alegia, baiña landare ezberdiñez ongi ornitua. Oien erretratuak lumaz egiñez, Euskal Erria osoarena ere eskeintzen digu Lasartek. Orregatik bakarrik gure esker ona mereziko luke.



Auspoa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

